# Goienkaria

2006ko martxoaren 31 > Egubakoitza > VI. urtea > 238. zenbakia > Doan banatzekoa
www.goiena.net



"Gurasook onartu behar dugu umeek jelosiak dituztela; portaerak ez"

**Jose Amiama**
Psikopedagogoa > 09

**G2a** Gaztetxoak kantari Arrasaten> 43

**DEBAGOIENA** Debagoieneko Ezkontzen ferian 19 saltoki izango dira Eskoriatzan > 06

**DEBAGOIENA** Gazte Topagunerako prestatzen dihardute ibarrekoek ere > 05

**KARATEA** Euskadi osotik etorritako 120 neska-mutiko Bergaran > 40

**GIZARTEA** > GATAZKAK KALTETUTAKO HERRITARRAK, SU-ETENAZ BERBETAN

# Kaltetuek diote bake prozesua aurrera atera beharra dagoela

**ELKARRIZKETATUAK** Ertzain bat, ETAren biktima baten eta preso baten senideak, PPko kide bat eta enpresaburu bat

**ITXAROPENA** Gauza batzuetan bat ez datozen arren, denek itxaropenez begiratzen diote bakerako oraingo aukerari

**AUKERAK** Beste bake saiakera batzuek porrot egin arren, oraingoak aurrera egin dezan nahi dute guztiek > 02-03




**ELKARREKIN** Txema Gisasola Fagor Etxetresnak taldeko oraingo zuzendaria eta Pablo Mongelos, orain artekoa, atzoko agerraldian. ARGAZKI PRESS

## "Fagorren emaitzak onargarriak dira, baina ez dute ilusiorik pizten"

Halaxe esan zuen atzo, eguena, prentsaurrekoan Bilbon, Pablo Mongelos orain arteko Fagor Etxetresnak taldeko zuzendariak. "Europako ekonomiarendako ez da oso urte ona izan 2005a, baina gu Europako talderik indartsuenetakoa bihurtu gara Brandt erosita; gure lana egin eta sakondu egin dugu eta gure benetako proiektuaren 0 urtea izan da 2005a", azaldu zuen Mongelosek.

1.498,6 milioi euroko salmentak izan zituen iaz Fagor Etxetresnak taldeak. > 04

**ARRASATE** > INDARKERIA

## Emakumeen aurkako indarkeria plana onartu du Udalak

Arrasate da lehen herria Udalean horrelako plan bat onartzen dena > 15

**ARRASATE** > PRESOAK

## 'Gazta'-k kartzelan segituko du

Jose Inazio Gaztañaga preso arrasatearrak kartzelan segituko du. Berez, eguaztenean kaleratu beharko lukete, espetxean 17 urte egin ostean, baina Unai Paroti ezarri dioten legea aplikatu diote eta beste 13 urte eduki nahi dute kartzelan. Hori salatzeko kale bilkura egin zuten Mondragoen eguaztenean. > 18

**ARETXABALETA** > HIRIGINTZA

## Etxabeak egokituta, 17 bizitoki egin dituzte hiru urtean > 30

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 44-45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








**ERTZAINA** Ertzain bat Bergarako komisarian. LEIRE KORTABARRIA



**ETA-K HILA** ETAren biktima baten semea. LEIRE KORTABARRIA



**ZINEGOTZIA** Itziar Lamarain, PPko zinego

**SU-ETENA** > BOST KALTETU DEBAGOIENDARREN IRITZIAK

# Gatazkak kaltetutakoak, itxaropentsu bake bidearekin

**SUFRIMENDUA** Gizarteko talde guztiek asko sufritu dutela azpimarratzen dute, eta orain dela unea bakearengatik lan egiteko

**ESKAERAK** ETAren biktimei errespetua, presoen etxeratzea eta enpresendako lasaitasun egoera eskatzen dute hainbatek

**LEIRE KORTABARRIA / GORKA ETXABE / JULEN IRIONDO** > BERGARA

Itxaropena eta, oraingoan bai, bakea lortu egingo den sentsazioa: hori aho batez dioskute aste honetan elkarrizketatu ditugun bost debagoiendarrek.

Desberdintasunak dituzte, bai, baina antzekotasun bat ere bai: denoi eragin die modu berezian euskal gatazkak. Horregatik, itxaropena ere berebizikoa dute.

## 'Joxe' (balizko izena)

DEBAGOIENEKO ERTZAINA

### "Bakearekin, ertzainok zerbitzu hobea eskaintzeko gai izango gara"

Izena ez ematea nahiago du *Joxe* deituko dugun Debagoieneko ertzain honek; baina iritzia garbi dauka eta jakinarazteko gertu dago: pertsonalki zein ertzain moduan, "oso pozik" dago, eta bake prozesuak "zailtasun handiak" izan ditzakeela eta luze joko duela uste duen arren, oraingoan ondo irtengo den itxaropena du. Izan ere, ertzain horren iritziz, "denok sufritu dugu, eta oraingoan bakea lortzen ez bada, denondako astindu handia izango da: gizarte osoarendako, eta baita ETAko presoen senideendako eta euren ingurunearendako ere".

Ertzainen lana "hobetu" egingo dela dio: orain arte, euren burua babesteko neurri bereziak hartu behar izan dituzte, lanari eragiten dietenak: esaterako, istripu bat izan dela abisatzen dutenean, benetakoa dela egiaztatu behar dute; kalean oinez ere ezin dira ibili... Bake egoeran, zerbitzu hobea eskaini ahal izango dutela uste du ertzain horrek.

## Luisi Dominguez

ETA-REN BIKTIMA BATEN SEMEA

### "Gorrotoarekin ez goaz inora ere, eta gatazkarekin gogait eginda gaude denok"

Luis Dominguez ehorzlea 1980ko urtarrilaren 25ean hil zuen

**Batxilergoak-Heziketa Zikloak-Ikastaroak**

Matrikulazio epea: Apirilaren 24tik maiatzaren 5era
- TEKNOLOGIA
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- PRESTAKUNTZA BATXILERGOA (GMHZtara bideratuta)

- MAKINEN ETA LINEA EROANBIDEEN MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA
- NATUR INGURUNEAN KIROL EKINTZEN GIDARITZA
- MEKANIZAZIOA

**Langileentzako ikastaroak: CNC Tornua, 50 ordu (2006/05/02-2006/05/25) Plano irakurketa 50 ordu (ekaina)**
**Eguzki Energia fotoboltaikoa ikastaroa: 40 ordu (2006/04/24-2006/05/10)**



zuazola-larraña Oñatiko b.h. institutua

**Tel.: 943 78 21 60** **www.onati.net** **onatikobhl@goieskola.net**



...otzia. LEIRE KORTABARRIA



**PRESOAK** Preso baten ama eta arreba. JULEN IRIONDO




**ENPRESABURUA** Migel Lazpiur bergararra, Confebask-eko burua. LEIRE KORTABARRIA

ETAk. 26 urte joan dira ordudanik, baina Luisiri, haren semeari, oraindik "gogorra" egiten zaio hura gogoratzea. Dagoeneko gorrotorik ez du sentitzen: "Gorrotoarekin ez goaz inora. Itxaropen handia dut su-etenarekin. Denok gogait eginda gaude egoera honekin, eta bake prozesua bertan behera gera dadin inortxok ez du nahi; orain inoiz baino gutxiago". Luisik argi dauka egoera normalizatzeko presoen aldeko mugimenduak egin behar direla; alde hori ere zuzenean ezagutzen du, preso bat lagun duelako eta sarritan hitz egin izan duelako harekin Euskal Herriko gatazkaz.

Itxaropenerako aztarna gehiago ikusten ditu Luisik, "politikariak hitz egiteko asmoz" ikusten dituelako. Bakearen bidean egoteak ematen dion pozak badauka, ordea, alde mingotsa: "Gaizkien eramaten dudana da egoera honetatik etekin politikoak atera nahi izana", dio. Daukan beste pena handia hau da: "Zergatik ezin zen hau lehenago egin? Orain dela 20 urte, Lizarrako itunarekin… izan ziren aukerak".

## Itziar Lamarain

PP-KO ZINEGOTZIA ARRASATEN

### "Elkarrizketarako prozesua ireki da; ez dadila izan klaudikazioarena"

Arrasaten jaio zen orain dela 60 urte Itziar Lamarain, eta herrian PPko zinegotzi da 2003a ezkero. Bizkartzainekin bizi izaten segitzen du, Espainiako eta EAEko gobernuek bestela esan artean.

Baikorra da Itziar, baina errezeloak ere baditu: "Pozik nago ETAk su-etena agindu duelako, nahiz eta su-eten definitiboa nahiago nukeen". Bake prozesuaz hau dio: "Prozesu bat ireki da, elkarrizketarena izango dena, baina ez dadila izan klaudikazioarena". Eta hauxe gaineratzen du: "Eskatzen duena ematen badio gobernuak ETAri, zer egin dugu 40 urteotan? Hildako asko ekidingo genituen, egoera zail asko kalean eta bizkartzainekin bizi beharra. Horren aurrean, batzuk geunden tokian egoten segitzen dugu, malgutasun handiagoa izan dezakegu; esango digute Aznarrek hitz egin duela ETArekin, baina guztien agerian egin genuen".

Autodeterminazioa ez du negoziagarri ikusten, baina elkarrizketaren aldekoa da: "Orain legeak dauden moduan egonda, autodeterminazioa ez da bidezkoa. Legeak aldatu beharko ditugu espainiar herriak eskatzen badu. Dena dela, biolentziarik gabe hitz egin dezakegu guztiaz".

## Juanita eta Begoña

PRESO BATEN AMA ETA ARREBA

### "Denak kontuan hartu behar dira prozesu honetan, baita presoak ere"

Arantzazuko Kortakogain baserrian, Sabin Usandizagaren itzuleraren zain daude Juanita, ama, eta Begoña, arreba. Sabin 1997a ezkero dago kartzelan; orain, Badajozen. Su-etenarekin, Sabin etxeratzea gertuago ikusten dute: "Inoiz ez da berandu. Itxaropentsu gaude, zain gaude", diote. "Eurei, oraingoei, lehengoei eta datozenei begiratuta, albiste itxaropentsua da, alai egotekoa, poz ikaragarriarekin egotekoa".

Bakea ez dela erraz etorriko, baina denon lana dela, hori da euren iritzia: "ETAk eman duen bake bide hori hor daukagu, guretako eta denondako bakea eskuratzeko. Lan handia da, baina polita da bide horretan jarraitzea". Hori bai, orain Espainiaren aldetik mugimenduak eskatzen dituzte: "Eurak has daitezela legea betetzen. Egurra eman digute euskaldunoi, euskaldun izateagatik bakarrik", esaten dute. Lege betetze horretan, presoak kontuan hartzea eskatzen dute, eta euren zeresana aintzat hartzea: "Denak kontuan hartu behar dira, presoak ere bai, eta estatus politikoa eman. Denok sartu eta lan egin behar dugu, eskuinetik hasi eta ezkerreraino". Iritzi horretan, Etxerat erakundearekin bat datoz; izan ere, prozesu berrian, presoak Euskal Herrira ekartzea eta mintzakide izatea aldarrikatzen dute euskal presoen senideek.

## Migel Lazpiur

CONFEBASK-EKO BURUA

### "Bakea inbertsioa da, eta enpresoi ez digute bakerik eman 50 urtean"

"Ilusioz baina tentuz, prozesu konplexua izango delako", hartu dute enpresaburuek su-etena, Migel Lazpiur bergararrak dioenez. "Estortsioak, mehatxuak, biolentzia… Horiek desagertu egin beharko lukete orain", diosku, eta bera "lasaiago" dagoela onartzen digu, nahiz eta oraindik bizkartzainekin dabilen.

Euskal enpresei "abantaila asko" ekar diezaieke bakeak, bere ustez: "Bakea inbertsioa da. Euskal enpresaburuoi ez digute bakerik eman 50 urtean, ez eta aurreko su-etenetan ere, eta beti aurpegia eman dugu herri honengatik". Orain, eskatzen du "biktimei eta familiei errespetua gizarte osoarengandik", eta presoen egoeraz zera dio: "Arazoaren beste ale bat da, eta horri ere irtenbidea eman beharko zaio".

forum sport
IREKI EGIN DUGU
Irudi berria, denda berria,
prezio hobeak eta KIROL GEHIAGO
Zeren zain zaude egiaztatzeko?
Garibai Etorbidea 2-6,
Arrasate




**URTEKO BALORAZIOA** Txema Gisasola, Pablo Mongelos eta Belen Kortabarria prentsa agerraldia hasi aurretik. ARGAZKI PRESS

**EKONOMIA** > 2005EKO BALANTZEA ETA 2006KO PLANA AURKEZTU DITU FAGORREK

# Trantsizioko urtea igaro ostean, berrikuntza du helburu Fagorrek

Kalitatearen eta iraunkortasunaren aldeko joan den urteko lanak emaitzak eman ditu

Berrikuntza da 2006rako helburua, munduan hazteko eta besteengandik bereizteko

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

"Fagorrek 2005ean izan dituen emaitzak onargarriak dira, baina ez dute ilusiorik pizten", esan du Pablo Mongelos orain arteko Fagor Etxetresnak taldeko zuzendariak prentsaurrekoan. Joan den urteko datuen irakurketa egiteko eta 2006rako dituen egitasmoen berri emateko eman zuen prentsaurrekoa Fagorrek atzo, eguena, Bilboko Guggenheim museoan, eta hantxe egin zituen adierazpen horiek Mongelosek. Hala ere, urte ona izan dela adierazi du. "Europako ekonomiarendako ez da oso urte ona izan 2005a, baina gu Europako talderik indartsuenetakoa bihurtu gara Brandt erosita; gure lana egin eta sakondu egin dugu eta gure benetako proiektuaren 0 urtea izan da 2005a", azaldu du Mongelosek. Taldeko egungo zuzendari Txema Gisasola eta taldeko presidente Javier Gantxegi ere izan ziren prentsaurrekoan. Hirurak daude baikor etorkizunaren aurrean, eta berrikuntzaren aldeko apustua egin dute.

**SALMENTAK GORA**

Fagor Etxetresnak taldeak 1.498,6 milioi euroko salmentak izan zituen joan den urtean; %41,7 barne merkatuko salmentak izan ziren eta gainerakoa, kanpokoa. Bestalde, 110 milioiko inbertsioak egin zituzten. Fagorreko etxetresnak Espainiako merkatuaren %20,8ra iritsi ziren 2005ean, aurreko urtean baino puntu bat gehiago.

**IZOZGAILU DOMOTIKOAK**

Mongelosek esan duen bezala, kalitatearen eta iraunkortasunaren aldeko apustuarekin jarraitu dute 2005ean ere, eta hortxe egin dituzte inbertsio handiak. Adibidez, arropa garbigailuen planta eraberritzeko 18 milioi euroko inbertsioa egin dute; urtean 800.000 garbigailu egiteko prestatu dute.

Horrez gain, beste hainbat etxetresna merkaturatzeko lanak ere egin dituzte, besteak beste: erabiltzailearekin komunikatzeko gaitasuna duen izozkailua, bakarrik garbitzen diren labeak, lehendabiziko aldiz katalogoan sartu dituzten upategi zerbitzua ematen duten armairuak eta arropa asko batera lehortzen duten aparailuak.

**BERRIKUNTZAK 2006RAKO**

2006an ere berrikuntzan inbertitu gura dutela esan du Txema Gisasolak, Fagor Etxetresnak taldeko egungo zuzendariak, "Europan eta munduan hazteko, lanpostuak sortzeko eta gainerakoengandik bereizteko, batez ere". Laster, Driron gailua merkaturatuko dute, mota guztietako arropa lixatzen duena. De Dietrich marka Espainiako merkatuan zabaldu gura dute, eta horixe izatea maila altuko Europako etxetresna marka.

Javier Gantxegik, bestalde, ez zuen aipatu gabe utzi MCC taldeak joan den urtean izan zituen emaitza onak. Industriako eta banaketako sailen salmenta totala 11.800 milioi euro baino handiagoa izan zen. Inbertsioak, berriz, 1.081 milioi eurora iritsi ziren. "MCCren barruan hainbat sektoretako 220 enpresa daude, ia 80.000 langile ditu eta Euskal Herriko KPIaren %4 da", zehaztu zuen Gantxegik.

**LANTEGI BERRIA POLONIAN**

Bestalde, Fagor hazten doa. Aste honetan bertan lantegi berria zabaldu dute Polonian. Fagor Industrialek inauguratu du lantegi berria Polonian. Inaugurazio ekitaldian izan ziren, besteak beste, Poloniako plantako arduradunak, Oñatiko egoitzakoak eta herrialde osoko banatzaileak. Ostalaritza eta sukaldaritza sektoreek erabiltzeko mahaiak, hozteko bitrinak, apalategiak eta banatzeko orgak egiten dituzte Poloniako lantegi horretan, eta herrialde hartan ez ezik, Frantzian, Italian, Alemanian eta Errusian ere saltzen dituzte. 2005aren hasieran hasi ziren lanean lantegi hartan; 80 langilek egin dute hasierako produkzioa, baina bizpahiru urtean 200 langilera iristea da asmoa.

KONTUAN HARTZEKO

## Urrezko ezteiak apirilaren 14an

MCCk urrezko ezteiak egingo ditu datorren apirilaren 14an, eta horren barruan, baita Fagor Etxetresnak lantegiak ere. 1965. urte bukaeran, 24 langilek egiten zuten lan Ulgorren. Petrolioarekin berotzen zuen estufa edo berogailuak egiten zituzten. Imajinazioa erabiliz eta lan eginez, produktu berriak erabili zituzten berogailuak botatzen zuen usaina eta kea txikitzeko. Poliki-poliki marka berriak sortzen eta lantegiak erosten hasi ziren eurena handitzeko. Egun, etxetresnen Espainiako multinazional bakarra da, produkzio lantegiak sei herrialdetan ditu eta ia 10.700 langile ditu. MCC barruan ia 80.000 langile daude.

SIMPLY CLEVER




ŠkodaOctavia Berria
16.360 eurotik aurrera

Gasolinazko FSI eta TDI motorrak, Tiptronic eta DSG transmisio automatikoak, atzealdeko ardatz besoanitza, direkzio elektromekanikoa, 8 airbag, burueuskarri aktiboak, egonkortasun kontrola (ESP), pneumatikoen presioa neurtzeko sentsorea (TPM), bi guneko Climatronic eta maletatoki zabala, 560 litrokoa.

Octavia 1.6. Active. Penintsularako eta Balearretarako salneurria, garraioa eta Prever Plana barne. Octavia gamaren kontsumoa: [4,9-7,6] l/100 km. CO2 isurketa: [132-182] g/km. Irudiko autoa eta iragarkikoa ez datoz bat.

**UDALAITZ** · Gipuzkoa etorbidea, 36 · Tel. 943 71 18 70 · **Arrasate**

Gorka Uriarte eta Aizpea Otxandiano > Gazte Topagunearen bultzatzaileak

# "Gazte Topagunean jaiak eta aldarrikapenek bat egingo dute"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Apirilaren 14tik 17ra bitartean Gazte Topagunea izango da Etxarrin, *Tipi tapa independentzian topa!* lelopean. Ibarretik ere joango dira zenbait gazte, eta horietako bik, Gorka Uriartek eta Aizpea Otxandianok, topagunearen gaineko azalpenak eman dizkigute.**




BULTZATZAILEAK Aizpea eta Gorka, Gazte Topaguneko kartelekin. MAIDER ARREGI

**Zein helbururekin egiten da Gazte Topagunea?**

Gazte Topaguneak irudikatu nahi du gazte mugimenduak aldarrikatzen duena: independentziaz bizi ahal izatea; norberaren independentziatik hasi eta independentzia kolektibo eta Euskal Herriaren independentziara. Azken urteotan gazte mugimenduak egin duen lanaren adierazgarri ere izan nahi du. Horretarako, topagune honetan borrokak eta jaiak bat egitea nahi genuke gune aske batean.

**Gazte Topagunea bera zer da?**

Euskal gazteak biltzeko eremu bat, aldarrikapen zehatzak egiteko eta jairako tokia.

**Zeinendako da topagunea?**

Bizi eredu ezberdinak ikusi nahi dituen edozein gazterendako da. Herri honetan dauzkagun zenbait gauzarekin ados egon ez eta aldatzeko gertu dauden gazteendako.

**Gazte Topagunera joaten denak zer aurkituko du?**

Etxarri-Aranatz hainbat gunetan banatuta egongo da: herri eskola, gaztetxea, kultura etxea, azoka, kafetegia, kanpalekua, osasun eta informazio gunea, herri gunea, jantokia eta karpa erraldoia.

**Gune horietan zer egongo da?**

Gune nagusiak lau dira. Herri eskolan Euskal Herriak behar duen eskola eredua irudikatu nahi da euskal curriculuma gauzatuz. Sozio-ekonomia, feminismoa, nazioartea, euskara eta halako gaiak landu nahi dira hitzaldi, eztabaida eta tailerren bidez, irakaslerik gabe.

**"Gazte Topagunean aldarrikatu nahi da independentziaz bizi ahal izateko aukera"**

Gaztetxeak irudikatuko du edozein herritako gaztetxea izan behar lukeena. Gaztetxe eta gazte asanbladen garapenerako baliagarriak izan daitezkeen tailerrak eta eztabaidak izango dira eta musikak ere izango du lekua.

Kultura etxea Euskal Herriko kulturaren eta sormenaren erakusgarri izango da. Horrez gain, nazioarteko gaiek eta gazte mugimenduaren borrokek izango dute lekua.

**"Bizi eredu ezberdinak ikusi nahi dituen edozein gazterendako antolatu da topagunea"**

Herri gunean, berriz, kale animazioa izango da nagusi. Ikuskizunez gain, domekan Musikherria rock maratoia egongo da.

**Lau gune horietako ekintzez gain, izango da besterik, ezta?**

Azokan gazte mugimenduaren materialak egongo dira salgai eta emakume gazteen eta preso gazteen artelanak ere ipiniko dituzte ikusgai. Bestalde, egun bakoitzean gai batek hartuko du tokia: zapatuan liburu, fantzine eta truke azoka egongo da, domekan artisau azoka eta astelehenean nekazaritza azoka. Karpa erraldoia ere gune garrantzitsua izango da: talderik ezagunenen kontzertuak eta ekitaldi politikoa egingo dira han. Sagardotegia ere ipiniko dute eta 8.000 gazterendako akanpalekua egongo da.

**Nola animatuko zenituzkete ibarrekoak Topagunera joateko?**

Giro ona egoten dela aipatuko genuke; baita ere jendea ezagutzeko eta harreman berriak izateko aukera izaten dela. Bestalde, aldarrikapen gunea izateaz gain, ongi pasatzeko gunea ere badela azpimarratuko genuke.

### Txartelak ibarreko Herriko tabernetan eskura daitezke 38 euroren truke

Debagoienetik Etxarrira joan nahi dutenendako autobusak antolatu dituzte. Izena emateko Arrasate, Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaletako Herriko tabernetara jo beharko da. Hamar euro ordaindu beharko dira, baina bakoitzari 10 txartel emango zaizkio eta laguntza-bono moduan salduta bidaia doan egiteko aukera izango du. Topagunerako txartelak ere Herriko tabernetan egongo dira salgai: lau egunetarako txartelak 38 eurotan. Bestalde, egongo da aukera egun bakarreko txartelak hartzeko ere.

Gazte Topagunean jokatuko dira gazte olinpiadetako finalak. Aurrez, herrialdekako finalak egingo dituzte. Ibarretik Aretxabaletako taldea dago sailkatuta Ordizian asteburu honetan egingo duten finalerako, eta hara joateko ere egongo da autobusa.

POLITIKA

## Konponbidea aldarrikatuz, ekimenak herriz herri

Ezker Abertzaleak Anoetako proposamena aurkeztuko du

I.A. > BERGARA

Ibarreko Ezker Abertzaleko hainbat ordezkarik ekimenak antolatu dituzte apirilaren lehenengo asterako. Konponbide demokratikoaren aldeko ildoan kokatuta daude ekimenok.

"Norgehiagoka politiko eta armatuaren eszenatokia behin betiko gainditzeko asmoz, bake prozesuaren eraikuntza lanetan buru-belarri aritzea da gure lehentasuna. Prozesua ahalik eta lasterren martxan jar dezagun ezkertiar eta abertzale garen debagoiendarrok gure ekarpena egin nahi dugu", esan zuten prentsaurrekoan.

**ANOETAKO PROPOSAMENA**

Gogoratu zuten urte eta lau hilabete pasa direla Anoetan *Orain herria, orain bakea* proposamena aurkeztu zela. "Dokumentu honek gatazka konpontzeko metodo bat planteatzen du". Hori aurkeztuko dute herriz herri apirileko lehen astean.

Bestalde, udaletan sufritzen duten bazterketa politikoa konponbiderako oztopo dela salatzeko, apirilaren 7an eskualdeko manifestazioa egingo dute, Oñatin, 19:30ean hasita.

### Hitzaldiak herriz herri

ARRASATE
Apirilak 3, astelehena
19:00. Monterron

ESKORIATZA
Apirilak 4, martitzena
19:30. Kultur Etxea

ARETXABALETA
Apirilak 6, eguena
19:00. Kurtzebarri

BERGARA
Apirilak 6, eguena
19:00. Miguel Altuna

**Ekitaldia**

OÑATI
Apirilak 7, egubakoitza.
19:30. Herriko Plaza

- > Eskualdeko herrietatik auto karabana iritsiko da.
- > Herriko hainbat kaletatik manifestazioa egingo da.
- > Amaitzeko, ekitaldi politikoa izango da plaza bertan. Gaia: *No apartheid.*

ALDI BATERAKO LAN ESKAINTZAK

ERIZAINTZAKO DIPLOMADUNA
Interesdunak **apirilaren 6an** aurkeztu behar dira goizeko **10:00etan** Udaletxean probak egiteko.

AROTZA eta ITURGINA
Interesdunak **apirilaren 5ean** aurkeztu behar dira goizeko **10:00etan** Udaletxean probak egiteko.

**Oinarri-arauak**: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila

ITVRRIETA
Sagardotegia – Erretegia



Ostegunetik igandera zabalik
(gainerako egunetan aurrez deituta)
Aste Santuan ere zabalik.

Sagardotegiko menua
(Galiziako txuletarekin)
Postreak aukeran
30 € (BEZa barne)

Arraga auzoa
605 70 64 51 / 945 44 53 85

**Jose Antonio Martinez** > Azokaren antolatzailea

# "Saltoki askok eta hotelak opariak eta beherapenak egingo dituzte"

**ENEKO AZKARATE** > ESKORIATZA

**Zapatuan eta domekan hitzordua dute ezkongaiek Mendigoia hotelean, ezkontzen azoka antolatu duteeta. Hotel batean egingo duten azokarik handiena izango dela esan digute antolatzaileek:**

**Zer ikusiko dugu domekan?**

19 erakusmahai jarriko ditugu. Erakutsiko dituzte ezkontzetarako produktuak: andregaiarendako jantziak, ama pontekoendako, senargaiarendako, argazkigintza, musika, ezkon agurrak, estetika zentroak, gonbidapenak, antzinako automobil bat izango da, koltxoien erakusketa bat ere bai, bideoena, bidaiak… Eta hotelak erakutsiko du ezkontzetarako erakuts dezakeen guztia.

**19 horietatik zenbat izango dira Debagoienekoak?**

Eskoriatzatik hotela bera. Bergaratik, berriz, Lonbide Oinetakoak, Mugika Sastreria, Amparo ileapaindegia, Urkan argazkilaria eta Bed's saltokia. Arrasatetik: Belen Maiztegi, Tamayo, Disko Movil J&T, Barcelo Bidaiak, Foto-Video Zapping, Bea lentzeria, Angela estetika zentroa, antzinako automobilen alokairuaz arduratzen den enpresa (Felix) eta Eslu ile-apaindegia.

**Egun osoan izango da azoka?**

Goizez 10:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldean 16:00etatik 21:00ak arte. Sarrera doan izango da, eta edozein etor daiteke; izan ere, denetarik izango da ikusteko, ez bakarrik ezkontzetako produktuak. Hotelak ere ateak irekiko ditu, guztia ikusi nahi duenarendako. Edozelan ere, ezkontzeko asmoa dutenek denetarik aurki dezakete azokan.

**Ekitaldi indartsuenetako bat moda desfilea izango da…**

Bi saio izango dira: goizez eta arratsaldez. Desfilea bera izango da. Lau neska izango dira andregaiendako jantziak eta jantzi dotoreak erakusten, emakume bi ama pontekoen jantziak erakusten eta Arrasate eta Bergarako lau mutil senargaien eta aita pontekoen jantziak erakusten. Akaso bosgarren bat ere izango da. Zapatuan eta domekan, goizean goiz entseguren bat egingo dugu, batez ere mutilekin.



Jose Antonio Martinez da azokaren antolatzaileetako bat. ZAPPING

**"Azoka ondo ateratzen bada, hurrengo batean errepikatzea da ideia"**

**"Urtean lantzen ditudan ezkontza gehienak azoketan lotu dituzte"**

**Luze jo du antolaketak?**

Bizpahiru hilabete daramatzagu zoroen pare lanean. Dena dela, ideia orain dela urtebete pasa izan genuen. Kiroldegiren baten antolatu gura genuen azoka, baina aurrekontua handiegia zen. Hotelekoei komentatu genien, haiei ideia ona iruditu zitzaien eta instalazioak egokiak ziren.

**Zein aurrekontu duzue?**

Gutxi gorabehera, 6.000 euro.

**Eibarren egin da halakorik?**

Eibarren hiruzpalau bider egin dute eta han ondo funtzionatu du; jende asko ibiltzen da, ikusteko polita da azoka… Eibarren egiten ez dituzten ekitaldiak sartu ditugu guk; , desfilea izango da horietako ohiko bat.

> AZPIEGITURAK

## AHT martxa onean doala esan du Garraio sailburuordeak

AHT proiektua martxa onean doala esan die Garraio sailburuorde Arantxa Tapiak Aramaion Zuiako Koadrilako udal ordezkariei. Zuiako Koadrilako zatia Madrilgo Gobernuaren eskumena da eta Arantxa Tapiak esan zuen eurekin dituzten harremanak onak direla. Trazatua definituta dagoen arren, puntu asko dituzte oraindik zehazteke. Kezkatuta dauden herritarrei esan zien ahaleginak egingo dituztela adostasunera heltzeko. Aramaioko, Arratzu-Ubarrundiako eta Legutianoko udal ordezkariek eskatuta etorri da Tapia.

> GARRAIOA

## Autobusak egongo dira Arantzazura joateko domeka oro

Arantzazura joateko eta handik Oñatira jaisteko autobusak egongo dira ordu oro domeka eta jaiegun guztietan, aste honetatik aurrera. Oñatitik Arantzazura doan lehen autobusa 07:30ean aterako da eta azkena 19:30ean; Arantzazutik Oñatira, berriz, 08:00etan lehena eta 20:00etan azkena. Oñatin hiru geltoki izango ditu: San Lorentzon, Euskadi etorbidean eta posta etxearen atzean. Arantzazun bertan ez ezik Kortakogainean ere gelditukoda, norbaitek eskatuz gero. Joan-etorriak euro bat balio du eta txartel bakunak, erdia.

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**KAZETARIA**

**behar du GOIENKARIAn lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea.
- Idazten trebea izatea.

Baloratuko da:
- Kazetari titulua izatea.
- Idatzizko hedabideetan esperientzia izatea.
- Internet, ofimatika, QuarkXPress… erabiltzen jakitea.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
edo posta elektronikoz: admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2006ko apirilaren 5a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak




OIHANA ELORTZA

## Bergarako IATko langileek greba egingo dute hilaren 11n eta 12an

Apirilaren 11n eta 12an egun osoko lanuzteak egingo dituzte Bergarako IATko (ITVko) 18 langileek. Lan hitzarmenaren alde deitu dute lanuztea, eta gauzak konpontzen ez badira, uztailean greba mugagabea egingo dutela esan dute. Bergaran, Irunen eta Urnietan daude Gipuzkoako IAT lantegiak. Beste langileek ordu gutxiago eta urtean 1.000 euro gehiago kobratzen dute, eta Bergarakoek ere baldintza horiek eskatzen dizkiote enpresari. Enpresak oraindik ez die deitu beste bilera bat egiteko.

**HIRIGINTZA** > ETXEBIZITZAK BERRITZEKO LAGUNTZAK

# Suradesaren bidez 6.721.437 euro eman dituzte obretarako

Etxebizitzak berritzearen gaineko 1.768 kontsulta jaso dituzte eta 1.061 espediente bideratu

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Suradesak, Debagoieneko Hiri Birgaitze Elkarteak, 2005ean egindako jardunen gaineko datuak jakinarazi ditu. Iazko emaitzak ez dira apartekoak izan 2004ko emaitza bikainen aldean. Hala ere, aipatzekoa da Suradesaren bitartez kudeatu dela ibarrean Bizigune programa.

Iaz 1.768 kontsulta jaso zituzten, eta Suradesako ordezkariek bizilagunen 87 bileratan hartu zuten parte. Eskariak jaso ostean, 1.061 espediente bideratu zituzten; eta guztira, obretan 6.721.437 euro gastatu ziren.

Datuak iazkoak badira ere, kontuan hartu behar da zeresana izan dutela aurreko urteetan egindako kontsultek eta batzarrek, eta aurrerantzean ere hala izango dela.

**BIZIGUNE**

Suradesak jakinarazi digunez, orain artean dirulaguntzen gaineko kontsultak jaso dituzte batez ere; orain, ordea, informazio teknikoa eta juridikoa ere eskatzen dute.

Bestalde, aipatzekoa da iaz hasi zela Suradesa Bizigune programa Debagoienean kudeatzen. Programaren bidez, urtebete baino gehiago hutsik dauden etxebizitzak errentan ematen dira. Hala ere, "sistema ezezaguna izanik zabaltzea zaila izango da", Suradesakoen esanetan.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak, halako etorkizuna




www.mondragon.edu

## kontsumoa


Ibarrean lau txakolin egile daude. GOIENKARIA

### Ibarreko txakolin egileek gertu dute aurtengo txakolina, botiletan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Txakolina botilaratzeko sasoia otsaila eta martxoa ei da, eta ibarreko txakolin ekoizleek dagoeneko botiletan sartua dute edateko gertu. Bergaran Amatiño baserrian ditu mahastiak Karlos Mendizabalek, eta aurten 500 botila bete dituzte, etxekoen artean banatzeko guztiak. Bedoñako Artazubiaga baserrian 5.000 litro inguru ekoiztu dituzte, guztia etxeko mahatsarekin. Otxia izenpean merkaturatzen dute. Arrasaten Kajoi tabernan edan daiteke eta Bonet dendan salgai dute; gainontzean, etxetik egiten dute salmenta gehiena. Upain baserrian 20.000 botila bete dituzte, baina oraindik erabaki gabe dute merkaturatuko dituzten ala ez. Arrasateko Hegiaundi baserriko Jabier Agirrek esan digunez, ez dute zenbaketarik egin. Euren txakolina, Kataide izenpean, Arrasaten eta inguruetan eros daiteke.



### Aireportuetan 204.000 maleta galtzen dira urtean

Urtean 204.000 maleta galtzen dira mundu osoko aireportuetan; bestalde, kalteak izaten dituzte 30 milioi maletak. Kalte eta galerengatik 2.050 milioi euroko kostua izaten du sektore horrek. Izan ere, kalte-ordaina eman behar diete bezeroei, edo maleta bueltatzeak dakartzan gastuak ordaindu.



### Oilaskoaren kontsumoa %20 jaitsi da

Europan hegazti gripearen lehen kasuak agertu direla eta, oilaskoaren kontsumoak behera egin du. Salmentek %15 eta %20 artean egin dute behera Espainian. Hori dela eta, Nekazaritza ministroak jakinarazi du publizitate kanpainak egiten dihardutela kontsumitzaileak lasaitzeko.

### Ez da beharrezkoa transgenikoak identifikatzea

Ekoizpen transgenikoen identifikazioa eta etiketatzea nahitaezko egingo dituen araua ez da indarrean jarriko 2012. urtera arte. Cartagenako Protokoloaren arabera, 2005. urterako erabakita eta indarrean behar zuten arauek. Ekologisten arabera, multinazional handien presioa da arrazoia.

### Ordu aldaketarekin euro bat aurrezten dugu hilean

Domeka goizaldeko ordu aldaketarekin etxeetako elektrizitate kontsumoa %5 jaitsiko da datozen sei hilabeteetan. Hau da, etxe bakoitzeko, hilabetean euro bat gutxiago ordainduko da argiarengatik. Gutxi dirudien arren, etxe guztien batura eginda energia handia aurrezten da, adituen ustez.

gure artekoak

**GOMISTEGI** > Begiratu hutsean baserri bat baino ez dirudienak gaztagintza enpresa eta Artzain eskola dauzka bere baitan, besteak beste. Ia 25 urteko bilakaeraren ostean, aurrera egiteko asmoa du kooperatiba moduan.

Batis Otaegi

# "Hemendik gutxira Gomistegi kooperatiba bihurtuko dugu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

**Gomistegiko gaztak ezagunak dira oso. Gaztagintzaren gainean jakiteko asmoz jo dugu hara; eta Artzain Eskola ere han egonik, zuzendari Batis Otaegik eman digu Gomistegiren berri.**


Koldo Madariaga gaztagilea eta Batis Otaegi Artzain Eskolako zuzendaria. I.A.

**Nola hasi zineten gaztagintzan Gomistegin?**

Fraideek artaldea jarri zuten orain dela 24 urte. Orduan, 400 bururekin 15.000 litro esne biltzen zuten; gaur egun, 300 ardirekin 55.000 litro. Frantziskotarrek gestionatu izan dute enpresa. Horretarako, Nikolas Segurola arlo administratiboaz arduratu da batik bat; haren iloba Jose Ramon Orbegozok azken hamar urteotan artzain lanak egin ditu; gaztagilea, berriz, Koldo Madariaga da.

**Urte hauetako garapena nabarmena izan da, ezta?**

Gaztagintzan orain dela 20 urte iraultza etorri zen. Kataluniako aditu batek Euskal Herriko gaztak aztertu eta ikusi zuen teknikak ez zirela ongi erabiltzen. Proposatu zuen iparraldeko gazta egiteko era ekartzea. Orduan pasa zen modu tradizionaletik edukiontzi mekanizatuak eta herdoilgaitzak, esneen parametroak neurtzeko tresnak, gaztak ontzeko ganbarak... erabiltzera.

FITXA TEKNIKOA

**> GAZTA KOPURUA**
Gaur egun ia bederatzi tona gazta produzitzen dira urtean, kanpainan; 7.000 gazta inguru.

**> SARIAK**
Azken 10 urteotan 70etik gora sari jaso ditu Gomistegiko gaztak. Orain dela hiru urte Espainiako lehen saria eskuratu zuen.

**> SALMENTA**
Orain dela bi urte Arantzazuko Ostatuan saltzen zen; gaur egun Gomistegin bertan ere eros daiteke.

**Idiazabal izenpean saltzen duzue gazta.**

Eztabaidak egon ziren gazta bakoitzari tokian tokiko izena jartzeko, baina merkaturatzeko hobea zen izen bakarra. Idiazabalgo gaztak ardi latxaren eta Karrantzakoaren esne gordinarekin eta EAEn edo Nafarroan egina izan behar du.

**Etorkizunerako asmoak?**

Hemendik gutxira Gomistegin kooperatiba egin nahi dugu. Horren barruan, gaztagintza, formazioa eta bisita didaktikoak sartuko dira.

etxeko leihotik


**Eneko Azkarate** > GOIENKARIAko zuzendaria

## Guztion artean etorkizuna eraiki

Su-etenaren ostean, ez dakit etorkizunak zer ekarriko digun, baina bai nik zer nahiko nukeen. Hauxe: elkarrizketa-mahaiak antolatzerakoan, alderdi politiko guztiak hartzea aintzat, inor ez baztertzea eta nork bere burua ere inork ez baztertzea (entzun, San Gil?); Euskal Autonomia Erkidegoan mahaia eratzerakoan, lehendakariaren gidaritza zalantzan ez jartzea (entzun, Patxi?), eta Nafarroan ere mahaia eratzea (entzun, Sanz?), eta Frantzian ere aintzat hartzea Iparraldekoen nahiak (bai, Chirac?); inork ez izatea informazioaren esklusibarik edo tratu berezirik (e, Zapatero?); ETAk inor ez mehatxatzea eta ez egitea estortsiorik inori; Madrilgo Gobernuak gizalegez jokatu eta presoen senideei sufrimendu handiagoa ez eragitea, eta presoak etxerantz gerturatzea; Epaileak justuak izatea denekin; ETAk eta Zapaterok segitzea konponbiderako lanean elkarren artean berbetan; legez kanporatuta daudenak legeztatzea; biktima guztiei laguntasuna eskaintzea denok; eta, amaitzeko, berandu baino lehen alderdi guztien arteko akordioa lortu eta azken hitza euskal gizarteari ematea (bai?). Baikorregia? Ea, bada.

**"Nahiko nuke inor ez baztertzea eta nork bere burua ere inork ez baztertzea..."**

**> Jesus Egigurenek eta beste hainbat euskal sozialistek idazten dituzte iritzi zutabeak euskaraz, *Argia*-n, *Berria*-n, *Aldaketa Hamasei*-n... Naturala da euskaraz jardutea euskal hedabideetan.**

**> Aritz Arrieta Debagoieneko gazte sozialisten idazkariak iritzi artikulua idatzi behar zuen oraingo astean GOIENKARIAn. Baina Arrasateko sozialistek ez diote utzi, euskaraz eta gaztelaniaz izan ezean.**

begi-bistan



**Belarra mozten Errotalden (Bergara)**
**2006/03/30**

**Argazkia:** Irati Agirreazaldegi.
**Testua:** Irati Agirreazaldegi.

Udaberrian hasten da eguraldi epela eta berotuz joan ahala badirudi belarrak ere gora egiten duela. Belarra gehiago hazi baino lehen mozten jardun dute brigadako langileek.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Enrike Aranburu**
IKASLEA

Gaur banatuko dituzte Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan IMH sariak. Aurtengo ikaslerik onenaren saria Enrike Aranburu bergararrari emango diote. Fabrikazio arloko ikasketak egin ditu eta 1.500 euroko ikasketa poltsa jasoko du sari gisa.



**Jose Felix Diaz de Tuesta**
EUSKARA TEKNIKARIA

Laster ikusiko du argia *Euskal Herria atzerritarren ahotan* Jose Felix Diaz de Tuestaren liburuak. Lan hori prestatzeak lau urteko lana eman dio. Izan ere, Euskal Herritik kanporako autoreek eta pertsona ospetsuek gure lurraldeaz esandakoak jaso nahi izan ditu.



**Aittor Arantzabal**
BATASUNEKO MAHAI NAZIONALEKO KIDEA

Asteburuan aurkeztu zuen Batasunak Mahai Nazional berria. Orain arte Debagoieneko Batasuneko koordinatzailea izan den Aittor Arantzabal bergararra Gipuzkoako arduraduna izango da. Mikel Zubimendi, berriz, batzordekidea.

Anai-arreben arteko jelosiei (zeloak) buruz eta heziketa estilo ezberdinei buruz hitz egitera etorri da Jose Amiama Villabonako psikopedagogoa Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxera. Jelosiak umeen arteko kontua direla esaten dugun arren, guztiok gara jeloskorrak, Amiamaren ustetan, baita ume txiki horien gurasoak ere, jelosia sentimendu bat delako.

**Jose Amiama** > Psikopedagogoa

# "Umeek jelosiak dituztela onartu behar dugu gurasook, baina portaerak ez"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**"Mikel Aitorrekin haserretu bada, zergatik esan behar diogu adiskidetzeko?, gu ere haserretzen gara harekin edo honekin. Haserrea sentimendu bat da, eta jelosiak ere bai", dio Jose Amiama pisokopedagogoak, umeen arteko jelosien aurrean gurasoek hartzen duten portaeraz galdetuta.**

**Zer dira jelosiak (zeloak)? Zein da definizioa?**

Jelosiak sentimendu mota bat dira, pertsona guztiok dauzkagu eta ziklikoak dira. Sentimendu hori sortzen da guk gura duguna beste norbaitek hartzen badu. Gurasoek beste ume bat izaten badute, adibidez, zaharrenak ama galtzen duela ikusten du, desplazatuta sentitzen da eta jeloskor sentitzen da. Baina esan bezala, guztiok ditugu, ez umeek bakarrik.

Jelosiak sentitzeko hiru elementu behar dira: ni, nik gura dudana eta gura dudan hori kendu didan pertsona.

**Beti ama da nik gura dudana?**

Normalean, bai; hala ere, familia kontzeptua dezente aldatu da azkenaldian. Umea oso ahula da jaiotzean eta beharra dauka beste pertsona bati lotzeko.

**Eta aita da jeloskor dagoena?**

Bikotea oso indartsua da, baina hirugarrena datorrenean, semea edo alaba, ama eta umearen arteko lotura da, agian, sendoena. Eta aita askok ez onartu arren, jeloskor sentitzen dira, bai, desplazatuta.

**Zenbat eta senide gehiago, orduan eta jelosia txikiagoa?**

Jelosiak ezberdinak dira, familian zenbat eta elementu, senide, gehiago egon, helduleku gehiago daude; ezin bazara amari lotu, agian ahizpa edo anaia zaharrenari lotuko zara.

**Guztiok behar dugu norbait erreferentetzat?**

Bai. Momentu batean senideren bat izango da, etxekoren bat, eta gero izan daiteke bikotekidea, adibidez. Gerta daiteke, esaterako, Gabonetan bikote batek erabaki behar duela zeinen sendiaren etxera joan bazkaltzera edo afaltzera. Hasierako loturak garbi ikusten dira hor eta prozesu horretan sentimendu eta jelosia handiak egoten dira sarri. Eta iritsiko da egun bat, agian, familia erreferentea geurea izango dena.



IRATI AGIRREAZALDEGI

JELOSIAK SAIHESTEKO

**"Familiako parte dela, onartua dagoela eta gaitasuna duela ikusi behar du umeak"**

ERREFERENTEA

**"Pertsona guztiok behar dugu beste norbait erreferente moduan hartzeko"**

HEZIKETA ESTILOAK

**"Familia bakoitzak bere funtzionamendua du, eta errespetatu egin behar da"**

**Noiz arte irauten dute jelosiek? Noiz desagertzen dira?**

Bizitza osorako dira. Izaten dugun bizimoduaren arabera, jelosiak sortuko zaizkigu edo ez. Teknikoki, jelosia patologikoak ere egoten dira. Gauzak muturrera eramanda, adibidez, bikote bat hausten denean eta batek ikusten duenean bikotekide ohia beste batekin, "edo niretako edo inorendako" esaten du.

**Nola saihets ditzake guraso batek umeen arteko jelosiak?**

Jelosiak sentimendu mota bat dira eta onartu egin behar da. Beraz, batzuetan onartu egin behar dugu gure alaba edo semea haserretu egin dela bere lagunarekin, aitonarekin edo irakaslearekin. Gu ere haserretzen gara. Gainera, jelosiak momentuko gauza bat dira, ez gaude beti jeloskor.

Sentimenduak onartu egin behar ditugu, baina portaerak ez, eta hor dago gakoa. Onartu behar dugu ume batek bestea gorrotatzea momentu batean, baina ez diogu utzi behar leihotik behera botatzen. Alferra da esatea "maite behar duzu zure anaia"; guri ere ez digu inork behartzen gure bikotekidea maitatzera, denborarekin eta harremanarekin lortu dugu elkar maitatzea. Maitasuna sentimendu bat da eta ezin duzu sentimendu bat jarri eta kendu.

**Zer egin behar du guraso batek umeen jelosien aurrean?**

Lehenengo, onartu behar du bere umea hor dagoela eta umeak sentitu behar du onartua dagoela familia horretan. Bestetik, umeari autonomia lantzen lagundu behar diogu gai sentitu dadin. Eta hirugarrenik, umeak ikusi behar du familiako partaide dela.

**Zer ikasi behar dute gurasoek?**

Zaharrenari gutxiago eskatzen eta txikienari gehiago. Bestalde, guraso askok, batez ere amek, dena ematen dute ama onak izateko. Baina gurasoak pertsonak ere badira, ez guraso bakarrik. Eta hori ez dute ahaztu behar. Adibidez, nekatuta heltzen dira etxera eta patata-tortilla prestatu beharrean kontserba-latak zabaltzen badituzte afaltzeko, hori oso ona da. Ez egunero egiteko, baina bai noizean behin. Umeek ere ikusten dute noizean behin egunerokotasuna hausten dugula eta ez dela ezer gertatzen.

**Familia bakoitzak bere heziketa estiloa du?**

Etxe batean normala izango da oinutsik ibiltzea eta beste baten ez, adibidez. Bakoitzak funtzionatzeko bere modua du eta errespetatu egin behar da. Uste dut gurasook ez dugula beti adostuta egon behar erabaki guztiak hartzeko, pertsonak garelako. Eta umeek hori ulertzen dute, normala dela ikusten dute.

**Zein da heziketaren oinarria?**

Edozein liburutan agertzen da pazientzia behar dela, baina non saltzen dute pazientzia? Uste dut horri ez diogula garrantzi handiegirik eman behar, pazientzia dugulako daukaguna, ez gehiago. Uste dut autokontrola landu behar dugula. Bakoitzak bere estrategiak ditu estresatuta dagoenean: mendira joan, gela batean sartu, lagun batekin hitz egin... Gurasoak ez gara, pertsonak ere bagara eta ezin gara gurasoen rolarekin bakarrik gelditu. Bestela, akabo.



zabalik

Gorka Etxabe

# Etenaldi iraunkorra; itxaropen garaia

Itziar Lamarain, Bego Usandizaga eta Juanita Galarraga; Luisi Dominguez, Aitor Etxabe eta Miguel Lazpiur. Guztiak ere euskal herritarrak eta gure herriak urte luzeotan bizi duen gatazka politiko eta borroka armatuaren ondorio zuzenak jasandakoak. Txanponaren aurpegi ezberdinak edo ortzadarraren koloreak, konfliktoaren soka luzearen muturretan daudenak batzuk eta gertuago besteak, zeharka edo zuzenean protagonista izan direnak; batzuk konpromiso politikoaren bidea aukeratzeagatik eta beste batzuk aukeratu gabe ondorio latzak jasan dituztelako.

Aukera izan dut oraingo astean sei protagonista horiekin egoteko edo haien elkarrizketak entzuteko; izan ere, Goiena Telebistan testigantzak jaso dizkiegu. Aukera izan dut gertutik ezagutzeko euren esperientzia, eta erakutsi didate ateak irekita dituztela. Sufrimenduak eta amorruak ez dituzte itzali eta prest daudela guztien artean bakearen aldeko pausoak emateko. Itziar Lamarain PPko zinegotzia da Arrasaten, Juanita Galarraga eta Bego Usandizaga dira Sabin Usandizagaren ama eta arreba, Luisi Dominguezi aita hil zion ETAk, Aitor Etxaberi aita hil zion Guardia Zibilak eta Miguel Lazpiur enpresaburuak erakunde armatuaren mehatxua jasan behar izan du. Guztiak dira gure herriak bizi duen konfliktoaren protagonista zuzenak eta errespetu guztia merezi dute. Haien testigantza jasota ikasi dudana da bakea eta normalizazio politikoa gero eta gertuago ditugula Euskal Herrian.

**"Sufrimenduak eta amorruak ez dituzte itzali eta prest daude bakearen alde pausuak emateko"**

**"Baikorragoa naiz guztiek itxaropena dutelako"**

Su-etena pauso garrantzitsua izan da, sukalde lanaren ondorio sendoa. Orain, euskal gizartearen eta politikarien esku dago, baina gizarteak ez du onartuko atzerapausorik. Soka luzearen muturrak gero eta gertuago daude, eta oraingo asteko protagonistek baikorrago izaten erakutsi didate; izan ere, guztiek dute itxaropena.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martinez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

KILOMETROAK 07

**Bergarako Aranzadi Ikastola dabil Kilometroak 07 antolatzen. Dagoeneko zehaztu dute ibilbidea nondik nora joango den?**

Aranzadi Ikastolako Komunikazio arduradun Ane Barrusok erantzun dio galderari. Jakinarazi digunez, jai osoaren gaineko proiektua bidali zuten orain dela bi urte Ikastolen Federaziora. Izan ere, beharrezkoa da Federazioak onespena ematea ikastolak antolatu nahi duenari. Esan digunez, Federazioak onartu egin du proiektua. Haren zati bat da ibilbidearen zirriborroa, eta hori ere eginda dutela argitu digu Ane Barrusok, "baina behin-behinekoa da, orain hasiko gara behin betiko proiektua egiten, eta baliteke hasierako proiektuarekiko aldaketak egitea. Oraingoz aurrera dezakegun gauza bakarra da Kilometroak jaia Bergaran ospatu genueneko aurreko aldian baino ibilbide lauagoa antolatuko dugula". Gaineratu digunez, Gipuzkoako Federazioko langile bat liberatu egin dute Kilometroak 07 antolatzen laguntzeko, eta Aranzadi Ikastolaren nahia da lehenbailehen harekin harremanetan jartzea, "guztia abiarazteko eta lanerako batzordeak eratzeko. Batzorde horietako bat izango da ibilbidea prestatuko duena".

SUTEEN ASEGURUAK

**Basoko suteetatik babesteko aseguruetan batzuk diruz laguntzen dituzte. Noiz eska daitezke ?**

Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederazioan jaso dugu erantzuna. "Aseguru mota hori iaz abiarazi zuten. Oraingoz, hor sartzen dira 1995etik aurrera Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako diputazioetatik dirulaguntza jaso duten basoak. Martxoaren 1ean zabaldu zuten halako aseguru bat kontratatzeko epea eta maiatzaren 31ra arte izango da zabalik. %37rainoko laguntzak eskura daitezke. Besteak beste, basogintza elkarteak Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian dituen elkarteen bitartez bidera daitezke eskaerak.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

BABES OFIZIALEKO ETXEAK

**Etxebiden izena eman ostean, zela dakit zein den nire eskaeraren egoera eta zein zozketatan parte hartzen dudan?**

Errazena da *www.etxedebide.info* webgunean sartzea eta han dagoen *Zure Espedientea Jarraitu* atalean sartzea. Edozelan ere, Etxebideko Eskatzaileen Erregistroan izena eman eta gero, etxebizitzak esleitzeko zozketa guztietan parte hartzeko aukera dago, betiere kasu bakoitzean ezarritako baldintzak betetzen badira. Bestalde, komeni da lau urtean behin berritzea eskaera.

marrazkiz

Unai Busturia



blog

## Ametsgaiztoa

**Txetxu Urbieta**
www.uztarria.com/blogak/txetxu

Sinestea kosta egiten da baina egitik gezurretik baino gertuago dago. Hiru okerragoak aurkituko genituela uste baina okerrenak gu geu. Ez da posible, baina gertatzear dago. Hondamendia da baina amildegian behera goaz. Benetekoa egia horixe.

Halere, gizakiak izan behar duena baldin badute, orgullua alegia, oraindik ere posible da. Eta beraiek posible dela badiote bidelagun izango gaituzte. Ea bihotzak buruari irabazten dion.

## Eloy de la Iglesia gogoan

**Jabi Zabala**
www.sarean.com/sarean

Gaur jakin dut Eloy de la Iglesia zarauztar zuzendaria hil dela. Nigan eta nire belaunaldiko gaztetxo askorengan eragin handia izan zuten filmak egin zituen berak. Nik ondo gogoratzen ditut *Navajeros* (1980), *Colegas* (1980), *El pico* (1983), *El pico II* (1984) eta *La estanquera de Vallecas* (1987). Bere filmetako aktore gehienen moduan, bera ere jausi zen *El Pico* haietan ageri zen mendekotasunean, orduan hain modan zegoen *zaldi* madarikatuan.

Transgresorea, homosexuala, komunista, drogazalea… Tipo berezia zen erabat. Eta bere zine eredua berria eta berezia izan zen. Gogoratzen dut José Luis Manzano kirruduna, eta *Pirri* argala bere berbakera pasota sudurkari horrekin. Biak aktore barik kalekumeak, beste gehienak bezala, eta biak heroinak hilak.

plazara

Udaberriaz, euriaz, eguzkiaz, hego haizeaz..., jardunean ari zaizkigu geureko eguraldi iragarle ezagunak. Baina, klimaz eta urtaro berriaz ez ezik, egoera berriak ekarri digunaz ere badihardute. Etorkizunaz, Euskal Herriaz, bakeaz... Eta, 55 eragile sozial, sindikal eta politikok hitzartu duten Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoaz ere bai. Bilbon zapatuan egingo den manifestaziorako dei egin dute.

**Pello Zabala, Txema Egiguren eta Jon Albisu ***

# Sinetsi nahi dugun norabidea: konponbidea!

Zoin nolako astea iraganiko hau! Batetik, nahiz eta meteorologi eta klimatologi alorrean ibiltzen garenok egunerokoan gora eta behera ibili egin dezakeen aroen inguruan, ezin genezakeen guzia axertatu.

Jakin bagenekien, zuek bezain, udaberria zetorrela, eta honekin hotzak toki eginen ziola beroari eta iluntasunak argiari. Jakin bagenekien, frango bezala, uraren nazioarteko eguna genuela, eta horren inguruko kontzientziatzean aritzeaz gain, zoin nolako kudeaketaz mintzatuko zirela bata eta bestea. Jakin bagenekien, batzuk bezala, meteorologiaren nazioarteko eguna izanik, egunez egun interes gehiago pizten duen sail honekiko aipamenak izan zirela, egunak aitzina doazen heinean, herriak gertuko nahiz epe luzeago batera begirako iragarpenak nahi baititu eta ulertu nahi ere zoinbait gertakizun edo/eta fenomeno.

Bestetik ere, jakin bagenekien garaiz edo berandu Euskal Herri zabalak distentsioak behar zituela aitzina begirako eraikitze bidean, eta distentsio horietarik alde batekoa etorri zaigu... orain beste aldekoa etorriko delakoan lan egin behar, hainbatetan aipaturiko hitzak ez daitezen hegohaizearekin joan eta gal.

Betidanik edo/eta aspaldidanik garbi izan dugunok Euskal Herria bat dela, zailtasunak non eta nolakoak diren ikasi dugu, baina freno izan arren oztopo horiek guziak ez dira muga izan eta izango, zernahi egiterakoan ezinbesteko iruditzen baitzaigu errealitateak errealitate Euskal




IBE

Herri zabalerako aritzea bakoitzak ahal duen heinean, gure herria behar tresneriaz eta egituraz hornitu behar baitugu eguneroko urratsekin, herri, nazio garen errekonozimendua gugandik hasten baita.

Baina zailtasunak, oztopoak... sarritan errazak ez izan arren irensten, debekuak dira jasanezinak eta onartezinak, eta ezinbesteko urrats kualitatiboa egin beharra dugu noizbait eta iraunkorki nahi badugu funtsezko bakea eta askatasuna denentzat. Bide horretan, zernahi izanik bakoitzak lantzen duen saila, zernahi izanik bakoitzak dituen irizpideak, orain dela denbora bat Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa (OHD) hitzartu genuen 55 eragile sozial, sindikal eta politikok, elkarrekin denon herri hau konponbidearen norabidean ezartzeko. Jakin dezatela, oraino tren honetara igo ez direnak geltoki faltan ez direla izanen abian dagoen tren hau hartzeko.

> **"Jakin, oraino tren honetara igo ez direnak geltoki faltan ez direla izanen abian dagoen tren hau hartzeko"**

Eguraldia, era zientifikoan edo herri jakinduria erabiliz, hala nola iragar dezakegu, eta ezer gutxi egin dezakegu etortzen denarekin... datorrenarekin konformatu behar!

Aldiz, aroak zentzu asko dituenez, unean gaude aro berria eta denon aroa askatasun eta bake aroa izan dadin datorkiguna, baldin eta horren loratzeko behar heldutasuna erakusten badugu denok. Agian, kasik ziur, zilborheste berdinetik elikatzeko usadio hartuko bagenuke, bakoitzaren horretan plantatu gabe, hainbatetan aipatzen dugun Euskal Herria, erabakia eta adostasuna izanen genituzke iturri, norabide eta konponbide.

Hazia landatua dago, eta hainbat kostatako lurra zentzugabekeriaz irauli beharrean, denoi dagokigu honen behar bezala lantzea eta babestea, ematen ahal dituen fruituak horren araberakoak izanen baitira epe ertain eta luzean. Ez gara txantxetan ari, nahiz eta larunbatean, Ipar Euskal Herri eta Frantziar Estatuan "apirileko arrain eguna" izan (hego Euskal Herri eta Espainiako Estatuan abenduaren 28ko inuzente egunaren parekoa).

Euskal Herritar orok jakinen dutelakoan bihotzarekin jokatzen... Euskal Herritar orok jakinen dutelakoan buruarekin jokatzen... Euskal Herritar orok jakinen dutelakoan arduratsu jokatzen, askatasuna, bakea eta herri izatea eguneroko lana delako...

Euskal Herria, erabakia eta adostasuna norabide izanik, denok Bilbora, konponbideak denon koloreak behar baititu.

* Euskal Herriko Klima eta Meteorologia Koordinakundearen izenean

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Arizmendiarrieta santu egiteari ondo deritzozu?

| | |
|---|---|
| BAI | %50 |
| EZ | %50 |

**> MIRAKULUA**
Urarekin ardoa ez zuen egin, baina gaur egun MCC dena mirakulu samarra bada gero. Kooperatiba talde bat izatea Euskadiko industria talde indartsuena ez da gauerdiko eztula, gero.
**Bernar**

**> BALOREAK BERRESKURATU**
Arizmendiarrieta omentzeko modurik hoberena, santu egiteaz aparte, MCCk aldaketa sakon bat egitean datza, batez ere Fagorren: baloreak berreskuratu, ebentualen portzentaia gutxitu, jerarkia eta soldata ezberdintasunak ezabatu, lana ondo banatu, etab.
**Batenbat**

**> OPUSEKOAK BAINO HOBE**
Santu egite kontu hori txorrada bat iruditzen zait, errespetu osoz. Kristauentzat izango da inportantea; ez niretzat. Hala ere, Escriva de Balaguer eta horrelako Opusekoen ordez Arizmendiarrieta edo beste batzuk egingo balituzkete hobeto.
**Pisto**

**DATORREN ASTEKO GALDERA:**
**PP barik posible da normalizazio politikoa?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Krisi garaiak ziren, industriak eta hirietaranzko migrazioak sortutako gizarte desorekatuaren alderdi itsusia, iluna, ezkutatua agerian jartzen zuen berak.

Eta De la Iglesiak desoreka horiek sortutako lumpen-ean bilatu zuen baztertuen epika berri bat, askorentzat erakargarria bilakatu zena. Plentziako zinema zahar hartan *Navajeros, Colegas* eta ondorengo *Cine quinqui* azpigeneroko guztiak proiektatu ziren, eta guk, umemokook, begiak zabalzabalik ikusten genuen Seat 131ak, *toreteak* eta *vaquillak*, *kanutoak* eta *jakoa* ere bizimodu basati eta aske moduan aurkezten ziguten film haiek, Los Chichos edo Los Chunguitosen musikaz hornitutako *pikoloen* eta *maderoen* jazarpenak, *trapitxeoak, paloak* eta *mobida* guztiak. Hiztegia ere bereganatu genuen: *talego, jaco, pillar, chute*… Eta gure inguruko batzuek, fantasiosoenetako batzuk tartean, haien urratsak jarraitu nahi izan zituzten…

Baina istorioa Bilbon izanik, *El Pico* biak gogoratzen ditut bereziki. Paco eta Urko lagunak, bata *txakurkumea* eta bestea familia abertzaleko semea. Biak lagunak dira eta batera sartzen dira *mobidan*. Bilboko bazterrak txikitatik gogoratzen ditudan moduan ageri dira: grisak eta zikinak. Ez da nire irudipena, beraz, Bilbo horrelakoa baizen lehen. Asko aldatu da gizartea, Bilbo aldatu den moduan… *Jonki* gutxiago daude eta ez dute palorik ematen ia. Hainbatek bere zorigaitzen errua Eloyri botako dio, epika hori sortzen laguntzeagatik, baina nik eskertzen diot berari (ia dokumentalista moduan esango nuke) utzi digun ondare hori, garai eta gizarte baten B alderdiaren erretratu horiek ondaretzat utzi izana.

koplak

**Egoitz Aizpurua (Oñatiko bertso eskola)**

## Su-etenaren ostean, politikariei

Tiro hotsen atsedena
lasaitasun hasperena,
nora iritsi liteke ETAk
hasi duen su-etena?

Politikari arraio
aurretik zenbat entsaio?
aukera galdu nahi duenari
azkar igerriko zaio.

Honek hartu dezan martxa
hasi bedi mingain-dantza
orain zuen eskuetan dago
jende askon esperantza.

Mahai berdinean eseri
ez al da izango gehiegi?
herritar bati beste inporta
ote zaizue zueri?

Ez hainbeste errezela
mintza behar den bezela,
ziur orduan fedegabeok
sinesten hasten garela.

Eta guk ere akaso
hitza behar dugu jaso,
saiatu ez izanak ez gaitzan
kontzientzian eraso.

## Kilometroak

**Iñaki Larrañaga**
Arrasate

Pena ematen dit hildako gudarien omenezko eskelak *El Correo Español* eta *El Diario Vasco*-n ikusteak. Pena ematen dit ikastolen jaien alde kilometroak egiten dituztenak goizero *El Correo Español* eta *El Diario Vasco* erosten ikusteak (printzipeen argazki eta guzti). Pena ematen dit otsoa artaldean edukita ez dakigulako bere mozorroaren azpian zer dagoen ikusten.

Nafarroan oinez egin duen gudari baten ibilaldia beharbada? Herri urratsen artean Araba euskaraz egin dadin baztertu ditzagun bada ardiz mozorrotutako otsoak.

## Hizkuntza eskubideen defentsa guztion esku dago!

**Olatz Arana** (Debagoieneko EHEren izenean) > Debagoiena

Hizkuntza eskubideen aitortza eta bermea lortzeko, ofizialtasuna Euskal Herri osoan gauzatzeko, euskararen aldeko defentsa eta lana biderkatzea funtsezkoa da. Guztion konpromisoa izan behar da eginkizun hori modu iraunkor eta eraginkorrean egitea.

Herri bezala, egungo hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoari aurre egin eta salaketa lana areagotzearekin batera, hizkuntza eskubideen bermea lortzeko behar dugun aldaketa bultzatzen bildu behar ditugu indarrak. Herritarrok, eragile sozial, politiko zein sindikalek, guztiok jokatzen dugu ezinbesteko papera. Euskal jendarte osoaren konpromisoa eta borroka hizkuntza eskubideak bermatzeko egoera lortzeko norabidean jarri behar dugu. Erronkari, beraz, herri bezala heldu behar diogu, guztioi dagokigulako euskaraz biziko den herria gaurdanik eraikitzea, herriz herri eta esparruz esparru.

Beraz, apirilaren 2an Santurtzin ospatuko den III. Hizkuntza Eskubideen egunera joateko deia luzatzen dizuegu.

## Mikel Larreak esandakoaren inguruan

**Patxi Olabarria, Andoni Azkargorta eta Juan Antonio Iturbe** (Gertu Gae)
Antzuola

Joan zen asteko GOIENKARIAn PNVko alkate ohi eta gaur egun Antzuolako Udal plenoetako idazkari Mikel Larreak esan zituenaren inguruan gure iritzia azaldu nahi diegu herritarrei:

1. Ez da egia aurrekontuak irekiak diren batzordeetan landu direla. Alde batetik, batzordeak ez dira Mikelek esaten duen bezain irekiak eta beste aldetik, egin nahi dituzten makroproiektu guztiak batzordeetatik kanpo tratatzen dira. Herriko proiektu garrantzitsuenak aurrera ateratzeko Antzuolako Udal Etxegintza deitutako *txiringitoa* muntatu dute Hirigintza batzordetik kanpo.

2. Antzuolako Udal Etxegintzan Gertu Gaeren parte-hartzea eskatu genuen eta boto eskubiderik ez genuela baina batzarrera entzutera joan gintezkeela esan ziguten duela ia urte erdi. Hala ere, ordutik batzarrak egin dituzten arren ez gaituzte batzar bakar batera ere konbokatu.

3. Gezur borobila esaten du Mikelek “ateak guztiz irekiak ditugula” esaten duenean. Gure botoak ez dituzte kontatu ere egiten. Gertu Gaetik egin diren ekarpenak ez dira kontuan hartzen. Eta gure lan eta dedikazioagatik lan-orduak galtzeaz gain zentimorik ere jaso ez dugun bitartean, antzuolar guztien diruak beraien artean banatzen dituzte.

4. Hala eta guztiz ere, Mikelek esandako gauza batekin behintzat ados gaude, “ez nuen espero Udal aretoa betetzea” esaten duenarekin, hain zuzen ere. Izan ere, plenoak ostiraletan goizeko 8etan izaten dira eta ordu horretan herritar gehienok beste zeregin batzuk ere izaten ditugu.

5. Bukatzeko, Euskal Herriak bizi duen egoera berria kontuan hartuz, Mikeli eta bere alderdikideei dei bat egiten dizuegu: utz itzazue gezurrak eta aitzakia merkeak alde batera, eta behingoz errespetatu ezazue herriaren hitza eta erabakia.

## Kalitatea Fundazioa, labela, hiltegiak eta nekazaritza politika

**Pedro Lasagabaster Armendariz**
(Eta Gipuzkoako beste 3 baserritar)
Eskoriatza

Azkenaldian asko hitz egin da ganaduaren munduari buruz. Hiltegien itxierak direla, sindikatuek eta Kalitatea Fundazioak egindako adierazpenek, eta abarrek eman dute zer esana.

Idatzi hau sinatzen dugunok baserritarrak gara eta Labela sortu zenetik, Labeleko ganadua gizentzen dugu. Gure kezka eta haserrea azaldu nahi dugu labelak hartu duen bidearekin erabat etsita gaudelako.

Nekazarien ahotsak "garrantzi handia" duela diote Labeleko arduradunek komunikabideetan, baina errealitatea, berriz, bestelakoa da oso: inork ez du gurekin ezertarako kontatu, ezta guk lagun eta lankide ditugun beste baserritarrekin ere. Zer eta nola egin behar ditugun esateko bai, baina zer iruditzen zaigun ez digute sekula galdetu.

Gure ustetan Labelak bertako haragia kalitatezko produktu bezala bereiztuz, kanpoko merkatutik desberdintzea izan behar du helburua. Gaur egun, ordea, badirudi Kalitatea Fundazioak produktibitatea primatzen duela, guretzat oinarrizkoak diren baldintzen gainetik. Haragiaren komertzializazioa hobetzeko beharraren aitzakiaz, gutxi batzuen interes partikularrak bultzatu dira lotsagabeki.

Bestalde, Labeleko ganadua gizentzeak esfortzu handiago bat suposatzen digu baserritarrei. Betebeharrak asko dira, gutxitan kalitatearekin zerikusia dutenak eta gehienetan irizpide komertzialetan oinarritutakoak, horrek ekoizpen kosteen igoera suposatzen digularik, baina salmenta prezio altuagorik ez, berriz.

Zergatik jarraitzen dugu Labelean, beraz? Baserritarrik gabe, dudarik gabe, ez litzateke Labelik egongo (nahiz eta bulego dotorean egoten diren zenbaitzuk ez diren ohartu horrekin). Erantzuna Labelaren filosofian sinesten dugula da, eta euskal baserrietako ekoizpena babesteko derrigorrezko tresna deritzogula. Baina edozein ezinbesteko tresna, esku okerretan erori ezkero, harekin lortutako emaitzak ere okerrak izaten dira.

Labeleko ekoizle bezala, ez dugu ezagutzen Kalitatea Fundazioko barne-funtzionamendua. Ez dakigu nork markatzen dituen kalitateko irizpideak, ezta gure produktuak komertzializatzeko bideak nortzuek erabakitzen dituzten, baina badakigu behintzat ez garela baserritarrok. Hala izan balitz, oso egoera ezberdinean egongo baikinen momentu honetan.

Merkatu masifikatu batean "diferentziatzea" eta "kontsumitzaileei bertako kalitatezko nekazaritza produktuak eskaintzea" dutela helburutzat diote. Guk ere bat egiten dugu honekin. Arazoa da etiketan oinarritu dutela bereizte hori, eta horren ondorioz, gaur egun Labela, baserritarrentzat bezala, kontsumitzailearentzat ez da erreferentzia. Haragiaren kasuan, adibidez, erreferentzia harakina da, baina ez Labela bera.

Helburua gure produktua diferentziatzea bada, ahalegin guztiak jarri beharko ditugu horretan, eta Kalitatea Fundazioa momentu honetan guztiz kontrako norabidean ari da, hau da, kanpokoa imitatzen, haiekin lehiatu ahal izateko.

Giltzurrunaren kasua da adibiderik garbiena. Labeleko komertzial nagusienak giltzurruna kentzen hasi zirenean (buruko batez beste 60 euro gutxiago ordainduz baserritarrari), baserritar, albaitari, harakin eta haragi sektoreko beste hainbat jende erabaki horren kontra azaldu ginen, giltzurruna kentzeak kalitate galera bat suposatzeaz gain, bereiztearen kontrako neurri zuzena zela salatuz. Giokela markak egin duen bezala, giltzurruna kentzea galaraztea eskatu genion Kalitatea Fundazioari, baina badirudi marka txiki eta "pribatu" batek baserritarra babesteko egin duena, Labelak ezin duela egin. Noski, kanpoko haragiarekin lehiatu ahal izateko komertzial batzuek hartutako erabakia baitzen.

Hiltegiak ixtea ez dagokiela diote, bestalde. Oraingoan ere, ohi duzuen bezala, zuek harria bota eta segidan eskua ezkutatu duzue. Hiltegiak ixtearen estrategia Gurokela enpresa bultzatzea dela argi geratu denean, eta Kalitatea Fundazioko hainbat arduradun Gurokela bultzatzen publikoki azaldu direnean, nor nahi dute engainatu?

German Muruamendiarazek, Kalitatea Fundazioko gerente eta Bergarako Udaleko alkateorde denak, Oñatiko hiltegia ixtearen aldeko bozka eman zuela ondo dakigu baserritarrek, eta Bergarako Udala izan dela Oñatiko hiltegia ixteko indarrik handiena egin duena ere bai, Bergarako biztanleak direnean erabiltzailerik nagusienak. Nork markatzen ditu Bergarako Udalean haragi sektoreari buruzko irizpideak? Alkateak?

Haragi ekoizle bezala, eta gipuzkoar bezala, haragiari buruz aritu gara. Arabar patatari buruzko edo Gernikako piperrari buruzko ezagutza handiegirik ez dugu, baina bertako baserritarren ahotik etsipen bera sumatzen da, eta Labeldun produktu ezberdin guztietan gauza bera pasatzen ari dela ikusteak akatsa goigoitik datorrela erakusten digu, nahiz eta lehen aitortu bezala, barreneko tripak ez ditugun ezagutzen.

Esan dugun bezala, Labelaren filosofia zuzena da, baina zuzendaritza esku okerretan erori denez, baserritarren eta kontsumitzaileen babeserako behar lukeen tresna, gutxi batzuen diru iturri bihurtu da, nekazaritzan behin eta berriz gertatzen den moduan.

Politika honen ondorioak nabarmenak dira. Baserritar kopurua beherantz, eta batez besteko adina, berriz, gorantz. Horiexek dira azken urteotan bultzatu den nekazaritza politikaren ondorioak; ukaezinak, eztabaidaezinak. Nekazariekin kontatu gabe egiten den nekazaritza politika baten ondorioak.

Honegatik guztiagatik Labeleko arduradunei eskatzen diegu lehenbailehen utz ditzatela euren karguak, beraiek baitira porrot honen erantzule nagusiak. Labelak zuzendaritza berria behar du, interes komertzial partikularrak alde batera utziko dituena eta baserritarren iritzia eta beharrak errespetatuko dituena.

## OHARRA

### Uko egin diote euskaraz bakarrik argitaratzeari

Arrasateko PSE-EEko exekutibak uko egin dio GOIENKARIAk egindako eskaintzari, alegia, iritzi artikulua argitaratzeari. Argudiatu du euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu nahi duela. GOIENKARIAk penaz jaso du Arrasateko sozialisten erabakia, azken batean gurekiko diskriminazioa dagoelako; izan ere, erdarazko hedabideetan ez dituzte euren artikuluak euskaraz eta erdaraz idazten. Erdarazko hedabideetan haien esanetara egokitzen dira, baina gurean ez dute bat egiten gure filosofiarekin. Hala ere, GOIENKARIAren irakurleendako eta astekaria egiten dugunondako jarrera hori kaltegarria izan arren, berdinberdin jarraituko dugu informatzen. Bestalde, PSE-EErekiko gure harremanak ez dira aldatuko, nahiz eta egindako kaltea handia izan; GOIENKARIA egiten dugunondako, irakurlea eta hark jaso behar duen informazioa delako garrantzitsuena.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:**
**943 25 05 01**
**Faxa:**
**943 25 05 13**
**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


BILBON • APIRILAK 1
17:30etan AITA DONOSTIA PLAZAtik
MANIFESTAZIO NAZIONALA
Konponbidegaraiada
EUSKAL HERRIA • ERABAKIA • ADOSTASUNA


Orain, eskuak
bere lekuan
Esku libreko kita
Motorola V360
Bluetooth-a, Bideo-kamera, GPRS
=0€*
* Euskaltel Hautaketa edo Euskaltel Leihoa bezeroentzako PSPa, betiere 31/5/06 baino lehen kontratatzen badute ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua, 6 €-ko hileko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromisoa hartzen badute. Muga: 100 unitate.
ROUTER COMUNICACIONES, S.L
Errebal, 15
Eibar
943 700 369
Maalako Errebala, 8
Arrasate
943 712 781
Euskaltel
-en Banatzaile Ofiziala

# "Frantziatik ekarritako teknika berria Lirainen"



M. Carmen Pardo Abad
Lirain Zentroko arduraduna

*Mari Carmen Pardo, Lirain estetika zentroko arduraduna, Frantzian izan da, beste lan filosofia bat ezagutzen: GERNETIC. Teknika berri hori emaitzak lortzeko arazoaren jatorria topatzean datza.*

**Zer berri Frantzia aldean, Mari Carmen?**
Egia esan, haiek jarri ziren gurekin harremanetan. Gure estetika zentroaren berri bazuten eta gurekin lan egin nahi zutela adierazi ziguten. Hasieran zalantzak nituen, baina proba txiki bat egin zidaten hankan nuen zain batekin, eta emaitzek konbentzitu egin ninduten.

**Zertan datza tratamendua?**
Diagnostiko zorrotz batean oinarritzen da. Gure organismoaren orekarik ezak gabezia batzuk sorrarazten ditu: bitaminak, mineralak, olio elementuak... Gabezia horiek antzematean, dagokion produktua eta tratamendua aplikatzen dira. Lirain Estetika Zentroaren filosofiarekin bat egiten duen teknika bat tratamendu pertsonalizatuak eskaintzea da.

**Adibideren bat jar dezakezu?**
Zelulitisa, gantzen pilatzea eta barizeak dituen pertsona bat, adibidez. Orain arte Lirain-en ageriko emaitzak lortzen genituen, azalaren kalitatean, formen moldaketa... Baina orain, GERNETICekin arazoaren jatorrira heltzen gara, eta emaitza hobeak eta iraunkorragoak lortu.

**Emaitza onak lortzen dira?**
Duda barik. Arazoaren jatorrira heltzean, idorreria, antsietatea, koipe metatuak, zirkulazio arazoak eta armiarma baskularren desdoikuntzak konpontzen eta desagertzen dira. Bolumenaren galera eta azalaren oxigenazioa da haren efektua, eta biguntasuna zuzentzen du.

**Zertan bereizten da Lirain beste zentroetatik?**
Zentro batzutan, bezero guztiei tresna edo aparailu berak eskaintzen zaizkie, pertsona baten beharrak diagnostikatu gabe. Hasiera baten zentro horiek ekonomikoagoak diruditen arren, ez dute arazoaren jatorria konpontzen eta berriz arazo bera erreproduzitzen da era sakonean. Lirainen, ordea, diagnostiko pertsonalizatua egiten dugu eta azken aparailu eta teknikekin emaitza oso onak lortzen ditugu.

**"Apirilaren 25ean, GERNETIC teknikaren arduraduna etorriko da eta doaneko diagnostikoak egingo ditu".**

**Tratamendu hori egiteko momentu ona da?**
Oso ona. Udari begira, arropa eranzteko orduan arazo asko konpon ditzakegu: biguntasuna, erretentzioak, koipe pilatzeak... Gainera, apirilaren 25ean, GERNETIC teknikaren arduraduna hona etorriko da. Egun horretan Lirainek ate irekien eguna egingo du eta teknikariak doaneko diagnostikoak egingo ditu.

**Zer gehiago eskaintzen diguzue sasoi honetarako?**
INDIBA 308ak barize eta orbainetan oso emaitza onak izan ditu. LPGa kirurgiarik gabeko liposukzioa ere ezin genezake ahaztu. Teknika horrekin, mesoterapia birtualarekin konbinazioa eginez, gluteoak, hankak eta abar moldeatzen dira.

*Udaberri honetan...mima zaitez!*



***LIRAINEN OSASUNA ETA ONGIZATEA AURKITUKO DITUZU.***

LIRAIN ESTETIKA-ZENTRUA

***Bixente Ferrer 1 ARRASATE***
***Tel.: 943 79 52 17***
***Faxa: 943 77 08 15***




**> ARRASATE** Gaztañaga presoak kartzelan segituko duela-eta, protesta ekitaldiak **> 18**



**> BERGARA** Automobil enpresa batek Metagra saritu du produkzio onagatik **> 25**



**> ARETXABALETA** Hutsik zeuden etxabeetan 17 bizitoki egin dituzte **> 30**



**> ELGETA** Etxebizitza, droga eta oinezkoen guneak, elgetarren kezka nagusi **> 37**

**UDALA** > EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO LEHEN UDAL PLANA

# "Jokabide berriak sortzeko eta beste batzuk ezabatzeko lan egin behar da"

**ARRASATE**
Emakumeen indarkeriaren kontrako plana onartu duen aurreneko herria da

**PARTE-HARTZEA**
Parte-hartze soziopolitiko zabalarekin landu dute Udalari aurkeztutako plana

**BEREHALA**
Aholkularitza juridikoa eta harrera etxea, esaterako, berehala abiaraziko dituzte

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Astelehenean eman zion onespena osokoak Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako I. Udal Planari. Plana dinamizatzen ibili den Agurtza Zuberok, besteak beste, zera nabarmendu digu: "Aurrerapauso garrantzitsua da udalbatzarrak aho batez onartu izana". Plana lantzeko parte-hartze zabala izan dutela ere azpimarratu du: "2004ko azaroan hasi ginen lantzen. Lan horretan Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Plataformak protagonismo garrantzitsua hartu du. Edozelan ere, sindikatu, alderdi, elkarte… Oro har, parte-hartze soziopolitikoa izan da dezenteko handia, eta esan beharra dago oso pozik gaudela alde horretatik".

**MANKOMUNITATEAREKIN**

Planaren nondik norakoen gainean, berriz, zera azaldu du. "Hasiera batean, udal plana da, eta gauzatuko da Arrasaten. Egia da Mankomunitatearekin harremanetan ibili garela, eta hala egiten jarraituko dugu. Izan ere, udal plana jasotzeaz gainera, badira bi puntu plan horretan, Mankomunitatearekin edo partidu judizialarekin batera landu beharrekoak: emakumeak berehala hartzeko zentro bat sortzea eta topagune bat eta familia bitartekaritzako zerbitzua sortzea. Planean jaso dugu horien beharra aztertu beharko litzatekeela, baina 2007an abiarazteko".

Edozelan ere, sortu behar diren zerbitzuen eta larrialdi motaren arabera, inguruko herrietako emakumeei ere harrera egin beharko zaie. Esaterako, kontziente gara aldi baterako harrera etxera, batez ere, ibarreko emakumeak etorriko direla. Hori bai, zenbait zerbitzutan lehentasuna arrasatearrendako izango da; esaterako, aholkularitza zerbitzua erabiltzeko, emakume horrek Arrasaten erroldatuta egon beharko du".

**ZERBITZU BATZUK ABIARAZTEAR**

Agurtza Zuberok esan digunez, asmoa da planean jasotako zenbait zerbitzu berehala abiaraztea: "Berehala abiarazi behar dugu emakume guztiendako doako aholkularitza zerbitzua. Abiarazi behar dugu, baita ere, tratu txarrak jasan dituzten emakumeendako laguntza-taldea eta aldi baterako harrera etxea, berez, Arrasatek dagoeneko baduena. Bestalde, dagoeneko abiarazita dago programa psikologikoaren barruko saio terapeutikoen kopuruaren handitzea (Diputazioak 18 saio ordaintzen ditu, baina gehiagoren beharra dagoela ikusiz gero, Udalak hartuko luke ardura). Sentsibilizazio kanpainak egiteko eta osasun, polizia, gizarte eta hezkuntza, komunikabide arloetakoen profesionalen formazioa eta sindikatuetan eta politikan dabiltzanen eta gaiarekin zerikusia duten gainerakoen formazioa lantzeko ere lehentasuna dugu".

Bukatzeko, nabarmendu du beharrezkoa dela erakundeek lehentasuna ematea gai horri. Indarkeriari aurre egiteko beharrezkoa dela berdintasuna lantzen duten politikak ezartzea erakundeetan. Eta, oro har, familien barruan harremanak beste modu batera egituratzea ere beharrezkoa ikusten du, maitasun harremanak ere landu behar direla.




**EMAKUME TXOKOA** Agurtza Zuberok Emakume Txokoan egiten du lan; bera ibili da plana dinamizatzen. IKER BARANDIARAN

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO I. UDAL PLANA

## Egingo dutena eta egiteko falta zaiena

Indarkeriaren kontrako plana egiteko, lehenengo egoeraren diagnostikoa egin dute, eta hori oinarri izan da Arrasaten dauden beharrak eta gabeziak zehazteko orduan. Hala, horiek kontuan hartuta, besteak beste, Arrasateko Udalak egingo dituen honako ekintzak onartu zituzten asteleheneko batzarrean: gai horretan inplikatuta dauden zerbitzuen artean datu base bat sortzea; tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera egiten dieten profesionalen hezkuntzaren hobekuntza; sentsibilizazio eta informazio bideak indartzea; tratu txarrak eta sexu erasoak prebenitzeko bideak indartzea; erakundeen arteko koordinazioa hobetzea; babeserako eta segurtasunerako neurriak ezartzea eta erasoa jasan dituzten emakumeak babesteko berehalako harrera zerbitzuak sortzea.

Edozelan ere, plan hori landu duten taldeak ikusten du oraindik geratzen direla gabezia batzuk eta beharrezkoa dela haiei ere aurre egitea. Esaterako: tratu txarrak hartutako emakumeak berehala hartzeko zentroa sortzea, Debagoieneko Mankomunitateak kudeatu beharko lukeena. Eta baita ere, topagune bat eta familia bitartekaritzako zerbitzuak sortzea.

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 1 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Domeka, 2 | Zabola | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Astelehena, 3 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Martitzena, 4 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Eguaztena, 5 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Eguena, 6 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Egubakoitza, 7 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 1 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 2 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 3 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 4 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 5 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 6 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 7 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 1 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 2 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 3 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 4 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 5 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 6 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 7 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 1 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 2 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 3 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 4 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 5 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 6 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 7 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA ( Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 78 90 27
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........945 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak........
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

## URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 1**
Laino batzuekin esnatuko zaigu eguna eta arratsaldean ere izango dira bakan batzuk. Baina, zeru garbiak ere ikusiko ditugu.



**Domeka, 2**
Lainoak izango ditugu domekan, goizean zein arratsaldean, baina bezperan moduan, zeru garbiak ere ikusi ahal izango ditugu.

## EUSKAL HERRIAN

Laino batzuk izango ditugu geurean bai zapatuan baita domekan ere, baina, oro har, eguraldi polita izango dugu asteburuan, tarteka zeruak garbitu egingo dira-eta. Ez da euririk aurreikusten eta tenperaturek gora egingo dute. Beraz, epel eta siku, aprobetxatzeko modukoa.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Martitzena, 28 — **20 ºC**

**MAXIMOA** Domeka, 26 — **24 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **12,5 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 22 | 16 ºC | 9 ºC | 4,8 l/m² |
| Eguena, 23 | 16 ºC | 8 ºC | 0,4 l/m² |
| Egubakoitza, 24 | 23 ºC | 14 ºC | 1,1 l/m² |
| Zapatua, 25 | 24 ºC | 11 ºC | - l/m² |
| Domeka, 26 | 24 ºC | 11 ºC | - l/m² |
| Astelehena, 27 | 20 ºC | 10 ºC | 6,2 l/m² |
| Martitzena, 28 | 20 ºC | 7 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA APIRILEAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 21 | 27 | 5 | 13 |

# oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Seme-alaben nutrizioaren gainean**
Nutrizioaren gaineko hitzaldia egingo du Mireia Alberdi adituak apirilaren 4an, martitzena, Mariaren Lagundian, 18:00etan. 12-16 urte bitartekoen gurasoendako da.

ARAMAIO
**> 'Kontsumitzailea sarean' mintegia**
Mintegi hori emango dute hilaren 3an, astelehena, KZgunean, 18:00-20:00 ordutegian.

ESKORIATZA
**> Arantzazura erromesaldia egingo dute**
Apirilaren 8an erromesaldia egingo dute. Autobusez joan gura duenak Viteri dendan eman behar du izena apirilaren 5a baino lehen. 10 euro da.

ARRASATE
**> Bularreko minbiziaren gaineko berbaldia**
Gai horren gainean berba egingo du M. Jesus Mitxelena Donostiako Onkologia Institutuko medikuak. Eguenean, hilak 6, izango da, Amaia antzokian, 17:30ean.

BERGARA
**> Aranzadi ikastolaren batxilergo eskaintza**
Aranzadi ikastolak batxilergo eskaintza azaltzeko batzar informatiboa deitu du hilaren 4rako, martitzena, plazako egoitzan, 19:00etan.

ARETXABALETA
**> Bezperak errezatuko dituzte domekan**
Bezperak errezatuko dituzte etzi, domeka, Agustindarren monasterioan 18:30ean.

ARRASATE
**> Arrasate iraunkorraren gaineko berbaldia**
*Arrasate iraunkorra, etorkizuna aurrez prestatu* hitzaldia egingo du Juanjo Gabiñak, Arrasate Iraunkorra prozesuko dinamizatzaileak, astelehenean, hilak 3, udaletxean, 19:00etan. Iraunkortasunaren garrantziaz, klima aldaketaz, petrolioaren garaiaren amaieraz, eta Arrasate Iraunkorrak egin dezakeenaz jardungo du.

LEINTZ BAILARA
**> Gurutze-bidea errezatzeko aukera**
Gurutze-bidea errezatuko dute gaur mezaren ordez Aretxabaletako eta Eskoriatzako parrokietan, 19:00etan.

ARRASATE
**> Zaintzaile ez profesionalaren osasuna**
Zaintzaile ez profesionalaren osasunaren gaineko bi hitzaldi antolatu ditu Eroskiko Kontsumitzaileen Eskolak hilaren 4rako eta 5erako, Monterronen, 16:30ean.

LEINTZ IBARRA
**> 'Orain herria, orain bakea' berbaldia**
Izen horretako proposamen politikoa agerraraziko die Batasunak herritarrei. Hilaren 4an, martitzena, Eskoriatzako kultura etxean egingo dute, 19:30ean; eta hilaren 6an, eguena, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan, 19:00etan.

ESKORIATZA
**> Espainiako gerrako errepresioaren gainean**
Bi hitzaldi egingo dituzte eguenean, hilak 6, Ibarraundi museoan, 19:00etan, gai horren inguruan. Juan Ramon Garai historialariak eta Paco Etxeberria Arantzadi zientzia elkarteko antropologoak egingo dute berba.

BERGARA
**> Berriketan programan parte hartzeko**
Berriketan programan berba lagun moduan, edo aste bukaeretako berba taldean parte hartzeko gertu dagoen jendea behar dute. Izenematea: 943 76 36 61.

OÑATI
**> EHNA egiteko aukera izango da**
EHNA tramitatzeko aukera dago bihar, zapatua, gazte bulegoan, 11:00-13:00.

OÑATI
**> Txandako erosleendako sariak**
Apirilaren 3tik 7ra, Txandako erosleek sari zuzeneko txartelak jasoko dituzte dendetan. Txandan gastatzeko 500 euroko sariak emango dituzte.

BERGARA
**> Odola emateko aukera egongo da**
Odol-ateratzeak egingo dituzte hilaren 5ean, seminarioko lokaletan, 18:30ean.

DEBAGOIENA
**> Cambridge-ko ingeleseko azterketak**
Cambridge-ko ingeleseko azterketak egiteko izena eman daiteke Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean.

ARRASATE
**> Mahai-jokoen eskualdeko finala jokatuko dute erretiratuen elkarteek**
Finala Abaroa egoitzan izango da hilaren 5ean, 16:00etan. Xake, billar, briska, domino, musa lau eta zortzi erregetara eta tute finalak jokatuko dituzte, eta Debagoien osoko erretiratuen elkarteek parte hartzen dute. Irabazleek garaikurra jasoko dute, eta eskualde arteko txapelketara pasatuko dira.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# Aste Santuko oporretan kanpora joateko asmorik baduzu?







**Edu Marco**
Langilea
Eskoriatza

Joatekotan Nafarroara, neure herrira, baina Aste Santuan lan egin izan dut gero beste sasoi baten hartzeko jai, inork ez daukanean oporrik. Gainera, ez dut aurrez ezer hartzen, furgonetan noalako.

**Mertxe Gorostiza**
Langilea
Eskoriatza

Bai. Almuñecarrera noa aurten. Denboraz hasten naiz gertatzen, xehetasun guztiak kontuan izateko. Batzuetan hemen bertan eguraldi hobea egiten du, baina giroz aldatzeko joan gura dut kanpora.

**Sonia Morales**
Langilea
Aretxabaleta

Bai. Eguzki bila goaz. Aste Santua baino hilabete lehenago hasi gara gertatzen eta leku arazoak izan ditugu. Uharteetara joan gura genuen eta azkenean Kanaria Handia aukeratu dugu.

**Lourdes Fernandez**
Langilea
Aretxabaleta

Bai. Arabako Eltziegora joango gara, aitaginarrebaren etxera. Denboraz ibili izan gara antolatzen, baina aurten berandutu egin zaigu eta ez dugu aurkitu gura genuen tokian, Landetan.

**Roberto Tapia**
Langilea
Aretxabaleta

Bai. Aste Santuan baino gehiago pazko astean joan izan naiz. Azken momentuan hartzen dut lekua eta oraindik erabaki barik daukat nora joan. Hala ere, ez dut leku arazorik izan sekula.

txaloak eta txistuak




ASIER ZABARTE

# Seinaleak leku egokian ipini dituzte

*Gesalibar auzoa* seinaleak leku okerrean ipini zutela abisatu zigun irakurle batek orain dela hilabete inguru; eta guk hala ipini genuen aldizkarian. Bada, orain, abisatu digute okerra zuzendu eta seinalea leku egokian ipini dutela.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

## "Goragura"

Handinahia, gora egiteko gogo gehiegizkoa.
- *Kontzejaletarako doiala? Orrek dauka gora guria, orrek.*




**Marrazkia** > Jon Iraegi

asteko datua

# 90

90 mila euro pasako aurrekontua aurreikusi dute Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako I. Udal Plana abiarazteko. Kontuan hartu dituzte, esaterako, aldi baterako harrera etxea egitea eta heziketa-plana.

usteak uste

Ubane Madera

# Indarkeriari aurre egiteko bidea

Atzerapauso garrantzitsua egin du oraingo astean emakumeen kontrako indarkeriak gure ibarrean. Izan ere, Arrasaten, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako I. Udal Plana abiaraztea onartu dute. Eta ez hori bakarrik. Alderdi politiko guzti-guztiek zorionak eman zizkieten plan hori lantzen ibili direnei eta plana gauzatzeko konpromiso serioa zutela adierazi zuten.

Berez, plan hori Arrasaterako onartu dute. Halako zerbait duen ibarreko lehenengo herria da, eta ondorioz, bakarra.

Baina, plana landu duen taldeak, besteak beste, ikusten du beharra badagoela tratu txarrak jasan dituzten emakumeak hartzeko berehalako zentro bat sortzeko; eta aurreikusten dute zentro hori Debagoieneko Mankomunitateak kudeatu beharko lukeela. Beraz, hori ibar osorako zerbitzua litzateke.

Halaber, Arrasaten bidearen zatirik zailena egin dute indarkeriaren kontrako plana lantzeko: beharrak aztertu eta irizpideak zehaztu. Eta hori egiteko, Ertzaintzarekin, Osakidetzarekin… harremanetan ibili dira. Hori egin ostean, ezin da izan horren zaila inguruko herriek ere gauza bera egitea. Eta egoera ikusita, egin egin beharko lukete.

5 galdera...

# Amaia Fernandez

Arrasateko gazte bulegoko ardurdaduna

**1. Gaur egun badago umerik udalekuetan parte hartzen ez duenik?**

Orokorrean haur askok hartzen du parte eta joera da partehartzea handitzen doala. Behin joan direnek errepikatu egin nahi izaten dute.

**2. Udalekuetara joateko orduan, zeinek du motibazio handien: umeek ala gurasoek?**

Txikitxoenak, lehen aldiz dozenak gurasoek animatuta joaten dira. Edozelan ere, lehen esan dudan moduan, uda batean joanez gero, errepikatzeko deseatzen egoten dira.

**3. Zazpi, hamar edo hamabost eguneko egonaldiak daude gaur egun. Noizko hilabete osokoak?**

Iaz 6.000 eskaera izan ziren eta 2.000 plazara ez da iristen eskaintza. Dagoen eskaera eta plaza kopurua kontuan hartuta, ezin dugu eskaintza luzatu. Dena dela, udaleku pribatuetan izaten dira eskaintza luzeagoak.

**4. Udaleku kontzeptua asko aldatu da urteotan...?**

Bai, gaur egun denbora "aprobetxatu" behar dela-eta, guraso askok nahiago izaten dute haurrek udan hizkuntzak edota informatikako ikastaroak dituzten udalekuetara bidali.

Bestalde, aisialdiko udalekuetako ekintzak ere asko aldatu dira, gero eta eskaintza handiagoa dago abentura kirola (eskalada, espeleologia, zaldi ibilaldiak) eta uretako kirolak (arraunketa, windsurfa, urpeko igeriketa) barneratzen dituzten oporraldienak.

**5. Ariketa fisikoa edo jolasa larregi gustatu ezean, zer egin dezake ume horrek?**

Ingelesaz eta informatikaz gain, badaude udaleku batzuk baserri-eskolak eskaintzen dituztenak. Halakoetan, ingurumenarekin lotutako jarduerak egiten dituzte, nekazaritzakoak (baratza...) eta abelazkuntzakoak (ardi, oilo...), esaterako.






**PROTESTA** Eguaztenean kale agerraldia egin zuten zenbait herritarrek *Gazta* presoaren egoera salatzeko. IKER BARANDIARAN

**PRESOAK** > KARTZELA ZIGORRAK

# Eguaztenean askatu behar zuten 'Gazta'-k kartzelan segituko du

Salatu zuten Unai Parot presoari ezarri nahi dioten ebazpen judizial bera ezarri nahi diotela Gaztañagari

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Askatasunak prentsaurrekoa egin zuen Jose Inazio Gaztañaga *Gazta* presoaren egoera dela-eta. Zera salatu zuten: "Martxoaren 29an utzi behar zuten aske, bere espetxe zigorra osorik bete ela gero (17 urte), baina egin berri duten trikimailu juridiko horrekin, beste 13 urtez eduki nahi dute espetxean (30 urte egin arte)".

Halaber, Askatasunak salatu zuen beste 180 preso egon daitezkeela egoera berean. Tartean,Unai Parot, hura izango da-eta, ezustekorik ezean, ebazpen judizial berria aplikatuko dioten lehena.

Hori dela eta, mobilizazioak deitu ditu Askatasunak: apirilaren 7an eta 8an, *Gazta* eta Unai Paroti elkartasuna erakusteko Granada eta Kordobako kartzeletara martxa egingo dute.

**BIZIARTEKO KARTZELA ZIGORRA**

Horrez gainera, lege berriaren kontra zera esan zuen Askatasunak: "Gogor salatzen dugu Espainiako eskuineko sektoreak pozik uzteko asmatu duten lege hau. Orain, legeak esaten ez duena epaile batek esaten du, hau da, epaileek jadanik ez dute legea interpretatzen, epaileek legeak sortu egiten dituzte". Lege horren bitartez, biziarteko kartzela zigorra ezarri nahi dutela ere salatu zuten. Eta lege hori orain ateratzearen arrazoia nabarmendu zuten: "Hau guztia momentu politiko honetan egitea ez da kasualitatea, gure ustez; legeok atzean asmo garbia gordetzen dutela deritzogu: balizko negoziazio prozesuan presoak bahitu politiko gisa erabiltzea, hain zuzen".

**KONSTITUZIONALERA JO DUTE**

Presoen senideek ere gauza bera uste dute. Hala esan digu Unai Paroten senitarteko Josune Arrazubik: "Niretako euskal preso politikoak dira gerra edo arazo honen guztiaren gatibu. Euretaz aprobetxatzen dira egoera gogortu nahi dutenean. Ehizarako presarik errazena dira. Estutzen dute ahulena edo euren eskuetan dagoena. Eta hori mendeku gisa erabiltzen dute: kartzelako neurri gogorrak, jipoiak, neurri juridikoak, familiakoengandik urruntzea..." Gaineratu digu, bere ustez, lege berria erabiliko dutela "beherantz negoziatzeko" eta uste du presoen eskubideak ez direla negoziagarri, berez dagozkielako.

Hori dela eta, presoei babesa ematen jarraituko dutela argi dute senideek. Horrez gain, jakinarazi digute zigorren luditzearen (erredentzio) gaineko legearen kontrako errekurtsoa ipini dutela Auzitegi Konstituzionalean eta erantzunaren zain daudela.

DOMEKAN, 16 URTE

### Josune Arrazubi: "Erabili dute mendeku moduan"

Unai Parot askatzekotan zirenean argitaratu zuen Auzitegi Nazionalak zigorren luditzearen gaineko legea. Paroten senide Josune Arrazubik esan digu hark sumatzen zuela zerbait: "Beti izan da Espainiako Estatuaren gatibu eta bazekien zerbait egingo zutela bere kontra; erabili dute bere izena eta irudia mendeku moduan, bere kontra eta euskal preso politikoen kontra". Gaineratu digu gaizki pasatu arren ondo dagoela Parot, "badakielako jende askoren babesa duela". Etzi, domekan, 16 urte beteko ditu preso.

**INGURUMENA** > GARAGARTZAKO ORTUAK

# Ortuetarako izena emateko zerrenda zabaldu dute

Udalak jakin gura du zeintzuk diren herritarren beharrak eta interesak

**U.M.** > ARRASATE

Garagartzan egokitu behar dituzten orturen bat eskuratzeko izenemate zerrenda zabaldu du Udalak. Interesa duenak Ingurumen Sailera jo behar du.

Zerrenda horretan izena ematen duten herritarren arabera, Udalak jakingo du zeintzuk diren beharrak eta interesak. Eta horren arabera antolatuko du ortuen banaketa. Izan ere, aurreikuspenen arabera, 61 ortu egokituko dituzte Garagartzan, 80 metrokoak; baina beharra uste baino handiagoa bada, akaso 40 metrora-edo jaitsiko dute ortu bakoitzaren espazioa.

**URRIAN GERTU**

Aurreikuspenen arabera urrirako gertu izango ditu ortuok. Erretiratuendako izan behar zuten hasieran; orain, berriz, beste aukera batzuk ere aztertzen dabil Udala.

**Miren Arizmendiarrieta** > On Jose Mariren iloba

# "Seguru nago osabak esango lukeela berarekin inork ez duela zorrik"

**A.A./U.M.** > ARRASATE

**On Jose Mariaren iloba Miren Arrasate Irratian egon da asteon. Besteak beste, kontatu du osaba gertukoa zutela:**



Maria Arizmendiarrieta. I.B.

**Zer sentitzen duzue familian?**

Momentu honetan gauza asko etortzen dira burura. Batez ere, haren irudia eta hura zelakoa zen... berriro burura ekartzeko aukera eman digu honek. Baina prozesu hau dela-eta, dugu poza, jakin-mina... ze ez baitzaigu inoiz egokitu halakorik.

**Apirilaren 25ean, Jose Mariren arreba Maria lekuko izango da kanonizazio prozesuan; zer esaten du Mariak?**

Oso pozik dago. Anaia uneoro dauka gogoan, arrebarendako zen osaba. Dena dela, prozesua luzea izango da; antza denez, lekukotasunak hiru urtez edo akaso gehiago luza daitezke. Eta komentario batzuk entzun ditugu eta batzuek esaten dute 10-15 eta baita 20 urtez ere luza daitekeela; lekukotasunetan jasotako guztia Erromara bidali behar dutelako...

**Anai-arrebek lotura handia zuten, ezta?**

Bai, lau anai-arreba ziren eta osaba zen zaharrena, eta gainera abadea zen. Eta sasoi hartan zaharrenari zor zitzaion errespetuak eta abadeei zor zitzaienak eragin handia izan zuen anai-arrebengan.

**Zuretako zein zen Jose Maria Arizmendiarrieta?**

Niretako eta etxekoendako uste dut zela osaba eta, gainera, abadea. Haren irudia gizon serioarena zen, baina asmatzen zuen guregana hurbiltzen eta konfiantza eskaintzen. Beti zegoen laguntzeko gertu... Bazuen sen berezi bat, lortu gura zuen horretara gu bideratzeko-edo. Asko zirikatzen gintuen, baina beti helburu garbiekin.

**1976an hil zen; zela oroitzen duzu hori eta azken egunak?**

Tristeak izan ziren; hala ere, indartsu ikusten zen osaba. Hil zenean, berriz, sortu zen mugimendua ez genuen espero.

**"Halako protagonismorik ez luke onartuko gure osabak"**

**"Berari erretratuak ateratzea ez zitzaion bat ere gustatzen"**



**OPOSIZIOA** Asteleheneko batzarrean, PSE-EE alderdiak oposizioa utzi eta udal gobernuaren alde bozkatu zuen; oposizioa PPren eta EBren esku geratu zen. U.M.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# PSE-EEren jarrerak EB eta PP asaldatu zituen osoko batzarrean

## Zerrajerako etxebizitzen proiektua lehiaketa publiko bidez esleituko du Udalak

## Hori lortzeko gehiengo osoa behar zuen udal gobernuak, eta PSE-EEren aldeko botoekin lortu du

**UBANE MADERA** > ARRASATE

ETAk iragarritako ekintza armatuen etenaldi iraunkorraren aurrean, "poza eta itxaropena" azaldu zuten udalbatzarreko indar politiko guztiek. "Lanerako konpromisoa" hartu zuten eta dei egin zioten "gizarte osoari ardura dadin Normalizazio Politikoaren akordioa bilatzen".

Halaxe hasi zuten asteleheneko batzarra. Hortik aurrera, eztabaida politikoa nagusitu zen alderdien artean, besteak beste, Zerrajeran etxebizitzak eraikitzeko egitasmoarekin lotutako lau puntu zituztelako zinegotziek. Horrekin lotuta, Ezker Batuak puntu horri osoko zuzenketa egitea proposatu zuen; horrez gainera, beste 22 zuzenketa aurkeztu zituen, partzialak. Bat izan ezik, gainerako zuzenketa guztiak baztertu egin zituen udalbatzarrak; eta GOIENKARIAn aurreratu genizuen moduan, PSE-EEk udal gobernuaren proposamenaren alde bozkatu zuen; hau da, Eusko Jaurlaritzaren proposamena onartu barik, Zerrajeran etxebizitzak eraikitzeko proiektua lehiaketa publikora ateratzea hobetsi zuten sozialistek, EA, Aralar eta EAJrekin batera.

Besteak beste, PSE-EEk eta Aralarrek argudiatu zuten Jaurlaritzaren proposamenak ez duela etxeak egiteko datarik zehazten; hala, gogorarazi zuten, besteak beste, Jaurlaritza Arrasaten egiten dabilen bestelako etxebizitzek bost urteko atzerapena dutela.

**HIRUKOA GOBERNUAREN KONTRA**

Gauzak horrela eta bozketako emaitzak ikusita, egoera bitxia sortu da Arrasaten; izan ere, udal gobernuak (EAJ, EA eta Aralar) Eusko Jaurlaritzaren proposamenaren kontra bozkatu du; eta oposizioko bi alderdietako batek, PP-k, berriz, alde.

Kontuak kontu, emaitza horri esker, Udalak lehiaketara aterako du Zerrajerako proiektua. Gogora dezagun hasiera batean Caixak gauzatu behar zuela proiektu hori, baina udalbatzarrean jasotako kontrako jarrera zela-eta, atzera bota zuela Caixarekin abenduan egindako hitzarmena. Orain, Caixa Udalak deituko duen lehiaketa publikora aurkeztuko da, bestelako eskatzaileekin batera.

**ALKATEA POZIK, EB HASERRE**

Eta emaitza horrekin guztiz pozik dago Inazio Lakuntza alkatea: "Guztiz pozgarria da, hemendik aurrera 364 etxebizitza eraiki ahal izango ditugulako, alokairuan emateko gazteendako eta pertsona nagusiendako".

Ezker Batuak, berriz, alderdi sozialistarekiko haserre handia azaldu digu. Ander Rodriguez bozeramailearen berbetan: "Hipokresia politikoa da gure zuzenketa kritikatzea eurek orain dela hilabete eskas gauza bera babestu zutenean. Egun batean A egiten dute eta bestean B. Argi dago adostasunen bat badutela".

PPk ere egin zituen zenbait salaketa, gehienak udal gobernuaren jarrerarekin lotutakoak. Besteak beste, salatu zuten oposizioari ez diotela behar besteko informaziorik ematen eta "alkateak, lege barruan, baina iluntasunez" jokatzen duela. Egiten dabiltzan zenbait lanen gaineko salaketak ere egin zituen, esaterako, kultura etxearen "larregiko" gastua eta Musakolako erretiratuen egoitzaren aurrekontuak %60ko igoera izan duela.

PSE-EEk udal gobernuaren alde bozkatzearen gainean ere badu zeresana Lamarain popularrak: "Uste dut alderdi sozialista dagoeneko ez dela oposizioa udal honetan. Gobernuko kide da nahiz eta formalki ez egon udal gobernuan. Alkateak ez du ilun jokatzen "batzuekin". eta "batzuek" ahaztu egin dute ia hiru urtean defendatzen ibili direna".

Bestalde, PSE-EEk esan zuen eurek ez dutela botoaren zentzurik aldatu, eurak Cerrajerako proiektua "zuzenean esleitzearen kontra zeudela", baina ez besterik. Horrez aparte, ez zuten bestelako adierazpenik egin gura izan.

BESTELAKO GAIAK

### Taxi-bus zerbitzua, Garagartza, Gesalibar, Bedoña eta Udala auzoetara joateko

Taxi-bus zerbitzuaren kontua ere landu zuten asteleheneko batzarrean. Hain zuzen ere, zerbitzu hori kontratatzeko plegua onartu zuen udalbatzarrak. Garagartza, Gesalibar, Bedoña eta Udala auzoetara joateko zerbitzua eskaini gura du Udalak, autobusik ezean, taxi bitartez egiteko. Orain arte, Garagartza eta Gesalibar artean egiten zuten; orain, berriz, handitu egin gura dute. Hala, Udalak 30.298 euroko aurrekontua zehaztu du, eta, bestelako baldintzen artean, Garagartza eta Gesalibarrera joateko zerbitzua lau urtez kontratatu gura du, beste hiru urteko luzapena aukeran utzita; guztira, zazpi urtera arte. Eta Udala-Bedoñarako zerbitzua, berriz, sei hilabetez, baina sei hileka luzatzeko aukerarekin, zazpi urtera arte.

**UDALA**

# Diruz laguntzeko irizpideak zehaztuta

## Lau zatitan banatu dituzte: kultura eta euskara, gizartea, garapena eta Aukea

**U.M.** > ARRASATE

Udalaren dirulaguntzen politikan "gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza, efikazia eta baliabide publikoen eraginkortasuna" indartu egin gura dituzte. Hori horrela, aurtengo dirulaguntzen oinarriak egokitu egin ditu Udalak.

**ARLOKA**

Lau zatitan banatu dituzte dirulaguntzak. Batetik, kultura eta euskara arloarekin lotutakoak. Horren barruan sartzen dira, esaterako, kultura elkarteendako laguntzak, euskararekin lotutakoak, euskara ikasteko bekak, saltokiek errotulazioak euskaraz ipintzeko laguntzak eta hezkuntzarekin eta eskola kirolarekin lotutako ekintzak bultzatzeko laguntzak.

Beste arlo batean sartu dituzte gizarte arloarekin lotutako laguntzak. Hor sartzen dira, besteak beste, erretiratuen elkarteendakoak; kartzeletan daudenen senideendako laguntzak; baliabide ekonomiko urriak dituztenendakoak, gobernuz kanpoko erakundeendakoak eta berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteendakoak.

Garapen Estrategikoa izeneko arloan, berriz, sartu dituzte, besteak beste, ingurumenarekin lotutako ekintzak egiten dituztenendako laguntzak eta lanpostuak sortzearren ematen dituztenak.

Bukatzeko, Aukea izeneko arloaren barruan sartu dituzte kirolarekin lotutakoak, kirol elkarteei eman beharreko dirulaguntzak, hain justu ere.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**Zigor Masip** > AED elkarteko lehendakaria

# "AED beti egon den elkartea da, eta merezi du indartzen laguntzea"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Zigor Masip Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteko presidente izendatu dute azkeneko batzar nagusian. Aspalditik dabil elkartean lanean, eta hari, elkarteari, bultzada emateko unea dela uste du. Euskalgintzan izan duen lidertza berreskuratu gura du euskararen erabilera bultzatzeko, eta bazkideak inplikatuta egin gura du hori.**

**Zuzendari kargua hartu berri duzu. Zelan aurkitu duzu AED?**

Aspaldi honetan elkartea geldiune antzeko baten egon da, eta motibazio faltan dagoen susmoa daukat. Agian azkenaldian lehendakaririk ez egoteak eragingo zuen horretan, baina elkarteak indarra galdu du. Horren harira, berrantolaketa egiten gabiltza eta barruko egitura aldatu gura dugu. Asmoa da zuzendaritzan dagoen kide bakoitzak elkarteko azpi-talderen baten ardura izatea, eta azpi-talde bakoitzak zelanbaiteko autonomia izatea. Orain arte erabaki guztiak zuzendaritza batzordeak hartu ditu, eta horrek funtzionamendua geldotu du.

**Zeintzuk izango dira elkartearen helburuak?**

Barne antolamendua berriro antolatzeaz gain, bazkideak erakarri eta inplikatu egin gura ditugu. AED hasi zenean jende asko zebilen lanean, elkartearekin identifikatzen zen... Une baten 1.000 bazkide inguru izan genituen eta orain 850 bat. Baina kopurua baino garrantzitsuagoa da bazkideak inplikatzea eta ardurak hartzea. AEDk 2008an 25 urte beteko ditu eta herrian beti egon den elkarte bat da. Merezi du horren alde lan egitea.

**Bestalde, zuk AED aspalditik ezagutzen duzu, ez zara-eta berria elkartean...**

Bai, aspalditik ezagutzen dut, *Arrasate Press*-ko banatzailea nintzenetik. Gerora, 11 bat urte egingo nituen AEDko azpi-taldeetan lanean, batez ere kultura alorrean. Horren ostean, iaz, zuzendaritza batzordean sartu nintzen.

**"Herritarren %80ak euskara daki, baina erabilera %30ekoa da. Hori aldatu behar da"**

**"Bazkideak inplikatu gura ditugu, eta euskalgintzan erreferente bilakatu"**

**AED aitzindari izan da Euskal Herriko euskalgintzan eta elkarte handia izatetik hainbat erakunde sortu ditu.**

Bai, hainbat erakunde sortu ditu: Txatxilipurdi, ARKO, Ekin, Euskalan... Espezializaziorako joera izan da, lana hobeto egiteko. AEDk horien guztien gaineko tutoretza dauka. Alde onak eta txarrak dauzka, horren ondorioz AEDk egiten duen lana ez delako horren agerian gelditzen.

**Eta zeintzuk dira AEDk gaur egun dituen zereginak?**

Jendaurrera begira, batez ere kultura arloko lanak: kontzertu eta antzezlanak, Mugarriz Mugarri irteera, Arrasate Lehiaketak, Jokin Zaitegi lehiaketa, Hiru Haundixak, film emanaldiak, berbaldiak, jaietako ekintzak...

Horiez gain, Arrasateko Euskalgintzaren Plan Estrategikoan eta Jaurlaritzak eta Udalak bultzatutako EBPN planetan murgilduta gaude.

**Eta zer-nolakoa da euskararen erabilera Arrasaten?**

%80k dakite, baina erabilera %30 da. Hori da egin behar dugun lana, erabilera bultzatzea; gutxienez %50ek egin dezatela. Eta etorkinen alorrean ere hasi gara zer egin aztertzen.




Azkeneko batzar orokorrean izendatu dute AEDko lehendakari. GOIENKARIA




GOIATZ ARANA

## Santa Marinako liburutegia berritu egin dute

Santa Marina auzoko liburutegia berritu egin dute eta jendaurrean erakusteko ekitaldia egin zuten. Udaleko Kultura Saileko arduradunek eta Udal Liburutegiko arduradunek esku hartu zuten. Horrez gain, Goikobalu eta Arrasateko Musikaleko lagunek ekitaldia egin zuten.

Udalaren asmoa da herritarrak gonbidatzea Santa Marinako auzo liburutegia ezagutzera joan daitezen. Ezagutzeaz gain, zerbitzu hori erabiltzera ere bai, jakina.

**HEZKUNTZA** > ESKOLA-ANTZERKIAREN 16. JARDUNALDIAK

# Gazteak antzerkira hurbilduko dituzte

Amaia Udal Antzokian eurek sortutako ikuskizunak antzeztu, eta talde profesionalen lanak ikusiko dituzte gazteek

**I.B.** > ARRASATE

Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailek Eskola-Antzerkiaren 16. jardunaldiak antolatu dituzte. Jardunaldi horiek urteroko hitzordua dira eta horien helburua da gazteak antzerkira hurbiltzea.

Horretarako, hainbat ekimen egingo dituzte maiatz erdialdera arte Amaia Udal Antzokian. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek hainbat antzezlan prestatu dituzte eta astelehenean eta martitzenean, apirilaren 3an eta 4an, antzokiko taula gainean antzeztuko dituzte. Taula gaineko beldurra kentzen lagunduko die horrek.

**TALDE PROFESIONALAK**

Gaztetxo horiek beste ikasle askoren aurrean antzeztu beharko dituzte euren lanak. Baina beste talde batzuen ikuskizunak ikusteko aukera ere izango dute

Hortaz, apirilaren 25ean eta maiatzaren 3an, 10ean eta 17an hainbat talde profesionalek lau antzezlan egingo dituzte antzoki berean. Hain zuzen ere, Dar Dar taldeak *Pinotxo*; Porpol taldeak *Ama bat niretzat*; Paraisok *Kafe haurra*; eta Markeliñek *Mambru*.




## Zabaldu berria!

- Kafe dastatzea
- Pintxoak
- Ogia eta pastelak

goiene

Uriburu kalea 14 Erguin auzoa
ARRASATE - 943 79 56 83



# MARGA JANTZIAK

Eguneroko arropa • Ezkontzetarako arropa • Jaunartzetarako arropa





ARRASATE
Iturriotz 21.
Tel.: 943 79 17 40.



**SASKIBALOIA** > IGOERA FASEA

# Mugarri Alkesak igotzeko ametsarekin jarraitzen du Urdanetari irabazi ostean

Zurututzaren mutilek Viajes Marfilen aurka neurtuko dituzte indarrak, zapatuan, sailkapeneko bigarren postua lortu nahian

**JOKIN ETXEBARRIA**> ARRASATE

Askartzaren aurka galdu eta gero zail ikusten zena gertuago ikusten da, aurreko astean Urdanetari irabazita. Sufrituta irabazi zuten mondragoetarrek, baina partidu zailetan taldeak indarra duela erakutsi zuen, eta hemendik aurrera ere sufritzeko gaitasun hori beharrezkoa izango dute Mugarri Alkesakoek.

Momentu honetan arrasatearrak hirugarren postuan daude sailkatuta, bigarrenarekin garaipenetan berdinduta. Lehenengo biak sailkatzen dira hurrengo faserako, eta Zurutuzaren mutilek Askartzak baino partidu bat gehiago irabazi behar dute derrigorrez. Hala ere, egutegi erraza dute mondragoetarrek bizkaitarrek baino, eta horrek ametsetan jarraitzeko aukera ematen die Mugarri Alkesakoei. Askartzak gaizki jokatu du azkenaldian etxetik kanpo, eta gelditzen diren lau partiduetatik bateren bat galtzea da Arrasatekoen esperantza.

**KONTRARIO ERRAZA**

Sailkapenari begiratuta Viajes Marfil taldeak ez luke Arrasatekoendako kontrario zaila izan behar, azken postuetan galduta daude-eta Iruñekoak.Gorka Zurututzak, hasiera baten, jokalari guztiak gertu ditu zapatuan 18:00etan Iturripen jokatuko duten partidurako. Hala ere, Kintana, Gamarra eta konpainia ez dira askorik fidatu behar, sorpresaren bat egotea nahi ez baldin badute, behintzat.



BESAIDE MTB

## Besaide MTB taldekoak giro paregabean Izkin

Urteko lehen irteera egin zuten asteburuan Besaide MTB taldekoek. Lehena izaki ibilbide lasaia aukeratu zuten, 25 kilometro ingurukoa, Arabako lurretan. Giro paregabean ibili ziren, eguraldia lagun izan zuten eta Izkiko parke naturaleko paraje ederrez gozatu ahal izan zuen Arrasatetik joandako taldetxo horrek. Uztailera bitartean hainbat irteera egiteko asmoa dute. Hurrengoa Gorbeia aldean egiteko prestatzen dabiltza. Irteera hori egiteko, baina, apirilaren 29a arte itxaron beharko dute.

**ESKUBALOIA**

# Ford Mugarrik El Pilar izango du aurkari

**J.E.** > ARRASATE

Bihar arratsaldean Gasteizera joko dute Ford Mugarrikoek garaipenaren bila. Joan den astean irabazita, oraindik ere lehen bi postuetan sailkatzeko aukerak dituzte. El Pilar talde gasteiztarrak sorpresa eman zuen joan den astean Donibaneri irabazita, baina Arandoren mutilek ez lukete arazo handirik izan beharko partidua irabazteko. Hori bai, horretarako erasoko jokoa hobetu beharra daukate arrasatearrek.

Igoera fasea inoiz baino berdinduago dago. Arrasatekoek bigarrenak adina puntu dituzte, eta, hain zuzen ere, oraindik ere sailkatzeko aukerak dituzte.

> PILOTA

## Gaur, Udaberri torneoko finalean arrasatearrak

Gaur, egubakoitza, 20:00etan hasita, Arrasateko Pilota Taldeko gazteek hitzordu garrantzitsua dute Zegaman: Udaberri torneoko finala. Astigarragako Mundarro taldea izango dute aurkari Ibai Bolinaga eta Gorka Jimenezek. Joan den astean Zegamako bikotea 10ean utzi zituzten arrasatearrek eta eskuetako minak hobetu ostean, gaur finala jokatzeko prest daude.

Bestalde, hastear dago Debarro pilota txapelketa. Arrasatekoei lehen aurkari gisa Bergara kadete eta senioretan eta Elgoibar gazte mailan egokitu zaizkie.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer - Dribling | 2-3 |
| Arrano Taberna - Irish Pub | 6-7 |
| Iriztu - HLB 108 | 3-1 |
| Tomahawk - Aurrera Bolie | 10-4 |
| Fuxion - AC Surcos | 4-5 |
| Berdes Bremen - Abokajarro | 2-7 |
| Billy & The Cowboys- Txoponbeixek | 1-0 |
| THC - AC Surcos | 4-9 |
| Saukelu Scream - Fuxion | 9-2 |
| Pippol - Lasagabaster | 2-7 |

**PARTIDUAK**

**Martxoak 25, zapatua**

| | | |
|---|---|---|
| **09:50** | Tomahawk - Fuxion | **Arrano Tab.** |
| **11:00** | Arrano Tab. - HLB 108 | **Tomahawk** |
| **12:00** | Saukelu - Lasagabaster | **HLB 108** |
| **13:00** | Iriztu - Abokajarro | **Saukelu Scream** |
| **16:00** | Berdes Bremen - AC Surcos | **Pippol** |
| **17:00** | Pippol - Iluntz | **AC Surcos** |
| **18:00** | THC- Dublin Irish Pub. | **Iluntz** |

**Martxoak 26, domeka**

| | | |
|---|---|---|
| **10:50** | Billy & The- Aurrera Bolie | **AT. Celaya** |
| **12:00** | Iriztu - AT. Celaya | **Billy & The** |
| **13:00** | Betrayer-Abokajarro | **Iriztu** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Dribling | 37 | 14 |
| **2.** | Betrayer | 34 | 14 |
| **3.** | Lasagabaster | 31 | 13 |
| **4.** | Saukelu Scream | 28 | 14 |
| **5.** | Iriztu Taberna | 25 | 12 |
| **6.** | Pippol | 25 | 14 |
| **7.** | Abokajarro | 23 | 13 |
| **8.** | Fuxion | 22 | 14 |
| **9.** | Iluntz | 21 | 13 |
| **10.** | AC Surcos | 21 | 12 |
| **11.** | AT. Celaya | 21 | 12 |
| **12.** | Tomahawk | 18 | 11 |
| **13.** | Arrano Taberna | 18 | 13 |
| **14.** | Billy & The Cowboys | 18 | 13 |
| **15.** | Irish Pub Dublin | 18 | 12 |
| **16.** | HLB 108 | 15 | 13 |
| **17.** | Aurrera Bolie TMT | 12 | 12 |
| **18.** | Berdes Bremen | 9 | 13 |
| **19.** | Txoponbeixek | 6 | 13 |
| **20.** | THC | 0 | 12 |

### Txoponbeixek txapelketatik at

Asteburuan jokatzera agertu ez zirenez, Txoponbeixek taldea txapelketatik kanpo uztea erabaki dute antolatzaileek. *Karkas*-ek min hartu zuenetik taldeak ez du fundamentu handirik erakutsi, eta hori izan da arrazoia. Haien kontra jokatu behar zutenek hiru puntuak lortu dituzte jada.

gazte ikastaroak



Sukaldaritza – hasiberrientzat
Igor Otaduiren eskutik
Maiatzaren 3tik 31ra
Asteazkenetan, 18:00-20:30
Lanbide hastapeneko ikastetxean
Plaza mugatuak

Matrikula: 20 euro / Ikasle eta langabeek 12 euro
Izenemateak: Gazte Bulegoan 943 77 00 65
www.gaztebulegoa.com gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón
Gazteria saila

arrasatearrak kanpoan

**Aner Elortza** > Ikaslea Londresen

# "Uste nuen BBC telebista kate serioagoa izango zela, baina..."

XABIER URTZELAI > HERRIA

**Duela urtebete joan zen Aner Londresera, "esperientzia berria bizi eta ingelesa ikastera". Gabonetan izan zen azkenekoz Arrasaten, baina ezin da kexatu, kanpoan egin dituen hamaika hilabeteetan hamalau bisita izan ditu-eta. Hala, lagunak dira ezin direnak kexatu?**

Aner Elortzak Londresko taberna batean egiten du lan, zerbitzari: "Taberna gainean bizi naiz, beste zerbitzari batzuekin batera. Gainerako guztiak Australiakoak dira; alde horretatik, zortea izan dut, ingelesa praktika dezakedalako. Izan ere, ezagutzen dut jendea Londresen egun osoa espainolez berba egiten duena".

Lan egitearekin batera, baina, ingeleseko eskolak hartzen ditu, egunean bi ordu: "Gobernuak ordaintzen ditu eskola horiek, eta hori demasa da". Horrekin batera, Londresko eskaintza kultural ikaragarria azpimarratu digu Anerrek: museoak (asko debalde), antzerkiak, kontzertuak... Hori bai, dena ez da ona: "Hiri garestia da. Adibide bat ematearren, zinemak 12 euro balio du, eta metroko astebeteko bonuak 35 euro. Horrekin batera, poluzioa, zarata... Presaka bizi den gizartea da". Ingelesen gainean ere egin digu berba: "Jende jator asko ezagutu dut, baina orokorrean oso indibidualistak eta berekoiak dira. Horrekin batera, ikustekoa da zenbat alkohol edaten duten".

**"Uste nuen ingelesak kritikoagoak izango zirela, eta BBC telebista kate serioa; horiek ere telezaborra egiten dute"**



Aner Elortza.

Telebistaren gainean ere egin digu berba Anerrek: "Uste nuen ingelesak direna baino kritikoagoak izango zirela, batez ere, uztailaren 7ko atentatuaren eta bi aste geroago poliziek hil zuten gazte brasildarraren kasuan. Komunikabideek bost minutu eskaini zioten berri hari, eta Tamesis ibaian balea bat azaldu zenean egun osoa ibili ziren harekin bueltaka. Uste nuen BBC kate ezaguna serioagoa izango zela, baina ikusi dut horiek ere telezaborra egiten dutela".

bere ustez



**Nerea Makatzaga**

## Ilusio kubikoen paradigma

Bloc kuadrikulatuak, esaldiei ere forma karratua ezartzeko, badaezpada. Karratu txikiak karratu handienaren menpe, eta karratuz karratu azalerak lotu, ertzen zorroztasunak elkarri laztanduz izkutatuko ditugulako ilusio faltsua erakutsi nahian.

Bat batean, inork ez zuen jakiterik zein puntuan ekin genion eraikuntza paradigmatiko kutre eta mugagaitzaren ihesari. Jada ez zekien haietako inork karratu bakoitza zein norabidetan sortu genuen, baina guk, guk bai, bagenekien argumentuek non ekin zioten bere izateari. Lehenengo eta azkeneko ertzak bat zirelako ustea, uste ez hain ustela sarri, konfusio katastrofikoaren usaia irudi eskematiko perfektu eta mugigaitzari itsatsia.

**"Izkutuko mezua ez da inoiz mapa konbentzionaletan irakurtzen, ez zaigulako komeni"**

Irakurketa jeroglifikoa beti ere gurea.

Orain ohartzen zara gainpasaketaren zenbaketak markatzen zuela bidea, gainpasatze bakoitzak irudia desitxuratu eta bide berriak eskaini zizkigula, karratuak ez direla hain karratu, eta karratuak... inoiz ez dela karraturik izan gureetan. Izkutuko mezua, ez da inoiz mapa konbentzionaletan irakurtzen, ez zaigulako komeni, onartutzeko prest ez zaudelako oraindik.

argazki zaharra




## 'Union Cerrajeraren suntsipena'

1993ko urtarrilaren 3tik 13ra CCOO, LAB eta ESK sindikatuek erakusketa egin zuten Monterronen, eurek argitaratutako *Union Cerrajeraren suntsipena* txostena ardatz hartuta. Txosten hartan Union Cerrajeraren ibilbidearen berri eman zuten: egindako aurrerapauso eta atzerapausoak, langileen mugimenduak, sindikatuek izandako protagonismoa... Erretratuan Bergarako eta Arrasateko langileak batera, Zerrajerak Altos Hornos de Bergaratik bereiztea erabaki zuenean.

**Argazkia eta informazioa:** *Union Cerrajeraren suntsipena*
**Urtea:** 1988ko urtarrila


# Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**azabarte@goiena.com ·**
**943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

**www.goiena.net/blogak**

/4quattro4 /argi-plastik /arregi /atai /azkarate
/joseba /BZ-sistemas /dragon-oriental /ezkutuorly
/gallastegi /garaia /guztizeder /irudisport /korozabaleta
/merkeopari /multiopticas /ohiak /okipark /vitoria
/pando /udalatx /udalaitz /gorkataxi /elejalde
/maulanda /mayte /ganesha

**Eta baita ere:**
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.



**ERRETIRATUAK** > BATZORDEA ALDATU DUTE

# Alejandro Arroio da erretiratuen presidente berria

Momentu honetan 1.608 bazkide ditu San Joxepe erretiratuen elkarteak

**O.E.** > BERGARA
San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko bilera egin du eta zuzendaritza batzordea aldatu du: presidente berria Alejandro Arroio da eta idazkari berria, Luis Larrañaga. Hamar lagunek osatzen dute batzordea eta horietatik bostek utzi dute kargua, nahiz eta hiruk berriro aurkeztu duten euren burua batzordekide izateko. Hortaz, aurpegi berri bi egongo dira aurrerantzean batzordean: Karlos Arrondo eta Maria Eugenia Silanes. Batzordea utzi dutenak dira Maria Asun Plazaola eta Juan Iturralde.

**IRAILEAN, PORTUGALERA**
Joan den urteko kontuak aztertu dituzte eta 2006rako egitasmoei buruz ere hitz egin dute bileran. Irailerako, adibidez, bidaia antolatu dute Portugalera. Izena eman daiteke.



**BATZORDEA** Orain arteko zuzendaritza batzordea. O.E.



**PRENTSAURREKOA** Larraitz Trojaola, Mireia Larrañaga, Victoriano Gallastegi, Pello Garitano eta Maripi Laskurain. O.E.

**EUSKARA** > UMEEN ETA GAZTEEN TALDEEI ZUZENDUTAKO EGITASMOA

# Taldeek euskaraz egiteko plana abiarazi dute

Lau esparru nagusitan egingo dute lan talde horiek euskararekiko konpromisoa hartzeko: aisialdian, kulturan, erlijioan eta kirolean

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Ume eta gazteendako eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dituzten talde, elkarte eta entitateek euskararen erabilpena bultzatzeko egitasmoari ekin dio Udalak. Datuen arabera, 30 urtez azpiko bergararren %93k ondo dakite euskaraz eta lortu gura dute euskara bizitzako esparru guztietan erabil dezatela. Lau esparrutan egingo dute lan talde horiek euskararekiko konpromisoak har ditzaten: aisialdian, kulturan, kirolean eta erlijioan.

Herriko elkarteek euskaraz egitea eta euskaraz funtzionatzea da egitasmo horren helburua. "Bi galdera hauek egin ditzake talde bakoitzak ikusteko euskarekiko duen konpromisoa zenbaterainokoa den: ea taldeak kontuan hartzen duen euskara antolatzen dituen ekitaldietan eta ea talde barruko funtzionamendurako zein puntutaraino erabiltzen duen euskara", azaldu du prentsaurrekoan Mireia Larrañaga orkestrako kideak.

**EMUN-EN AHOLKUEKIN**
Egitasmoa egiteko EMUN enpresaren aholkularitza kontratatu du Udalak. Egitasmoa lortzeko plana diseinatzeko, datuak batuko ditu EMUNeko teknikari batek; aztertuko du euskararen egoera eta erabilpena aisialdia, kultura, kirola eta erlijioa lantzen duten taldeetan. Teknikariak talde horiek bisitatuko ditu datu horiek lortzeko. Behin hori eginda, hiru urterako plangintza diseinatuko du adostasuna lortuta: arlo guztiendako berak izango diren ekintzen artean, arlo bakoitzarendako izango direnen artean eta lagun bakoitzarendako izango direnen artean.

**UDALA ETA LOKATZA, ADIBIDEZ**
Victoriano Gallastegi alkateak onartu duen moduan, "duela 20 urte Udaleko lan jarduna erabat espainolez egiten zuten; gaur egun, ordea, euskaraz egiten ditugu idatzi gehienak". Lokatza txirrindularitza taldeak ere Euskararen Hitzarmena sinatu zuen 1991n. "Argi genuen gu euskaldunak garela eta euskaraz egin behar dugula", dio Pello Garitanok.

Udalak 2003an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Horren barruan, herrian euskararen erabileran eragin nabarmena duten 14 esparru hartu zituzten kontuan. Orain, ume eta gazteen taldeengana joan gura dute konpromisoak lortzeko, baina lan hori ez da hutsetik hasiko. 1991n, Euskararen Hitzarmena sinatu zuten herriko 49 entitatek eta akordio hori izango da egitasmo horren oinarria.

ORRASKI
solarium
San Pedro 6
Tel.: 943 76 47 01
BERGARA
*Eguzkia neurrian hartzen jakin behar da*
Aste Santurako eskaintza berezia
6 saio + 1 doan
42 € bakarrik
Zentro honek betetzen ditu 1002/2002 (BOE 243, 2002/10/10) Errege Dekretuan ezarritako araudia eta 265/2003 (EHAA 222, 2003/11/13) Dekretua.
*Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberakoak izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sentsibilitatearen araberakoa ere.*

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA
Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

Arcelorrek munduan dituen 700 enpresetan batera egin dituzte segurtasunari buruzko jardunaldiak

Udazkena arte ez dute jakingo Mittal Steel enpresaren eskaintzak langileei zer ondorio ekarriko dien

**ENPRESA** > OSASUN ETA SEGURTASUN JARDUNALDIAK

# Istripuen simulazioak egin ditu Arcelorrek segurtasunagatik

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Osasunari eta segurtasunari buruzko jardunaldiak antolatu zituen Arcelor enpresak martxoaren 29rako. Arcelorrek mundu guztian zehar dituen 700 enpresetarako antolatu zituzten jardunaldiak, eta guztietan egin zituzten batera, baita Bergaran ere.

Enpresa barruan osasunak eta segurtasunak duten garrantzia azpimarratu gura izan dute jardunaldi horietan, batetik. Bestetik, lan istripu batek duen erantzukizun zibilari eta ekonomikoari buruz ere jardun dute. Hainbat adituk hitz egin dute gai horien inguruan. Baita Bergarako Arcelor enpresako gerente Juan Carlos Berraondok eta langileen komiteko Iñaki Arregik, besteak beste.

**LAN ISTRIPUEN SIMULAZIOAK**

"Segurtasunak lehentasuna izan behar du eguneroko lanean", dio Iñaki Arregik, "horretan denok gaude ados, bai langileok baita enpresaburuak ere". Askotan enpresari botatzen diogu errua lan istripu bat gertatzen denean, baina langilearen arduragabekeriagatik ere gertatzen dira, eta hori ez gertatzeko, beharrezkoak dira bai babesak bai portaera egokiak ere", zehaztu du Arregik. Segurtasuna bermatu gura dute enpresa barruan, eta jardunaldi horiez gain, beste ekintza batzuk ere egin dituzte; lan istripuen simulazioak, adibidez. "Lantegi barruan gerta daitekeen istripu baten simulazioa egingo dugu eta baita sute batena ere; suhiltzaileekin hitz egin dugu, eta benetako simulazioa egin gura dugu", azaldu du Iñaki Arregik.

**MITTAL STEELEN OPA**

Iñaki Arregik kontatu digunez, Mittal Steelen eskaintza "proiektua da oraindik, baina laster izango da errealitatea. Momentuz gauzak lehen bezala daude eta udazkena arte ez dela berririk egongo uste dut". Etorkizunari buruz galdetuta, berriz, ezer gutxi dakitela erantzun digu. "Arcelor ezagutzen dugu eta agian ez zaigu askorik gustatzen, baina Mittal Steel oso arrotza da guretako, inoiz imajinatu ez dugun plangintza dute enpresa handi horiek".



GOIENKARIA

## Automobil enpresa batek Metagra saritu du

Peugeot eta Citroen etxeetako ibilgailuak egiten dituen SPA enpresak Bergarako Metagra saritu du bere produkzio onagatik. Autoendako finkagailuak egiten dituzte Metagran, eta horien kalitate ona saritu du SPA enpresak Poissyn egindako ekitaldian.

Metagra estanpazio hotzetan egindako piezetan dago espezializatua, eta produkzioaren %90 baino gehiago automobilen industriarako da. Atzerriko multinazionalen hainbat eskari ere jaso ditu konplexu handiko piezak egiteko. Barne antolaketa kudeatzeko inbertsio handia egiten dihardu orain, denbora gutxira enpresa handitu beharra egongo delako. Horretarako, biltegi automatizatua jartzen ari dira. Momentu honetan, 83 langilek dihardute Metagran.

> EPEAK ZABALIK

### Begirale izateko eta txosnetako leloa aurkezteko epealdia

Aurten ere udaleku irekiak antolatu dituzte eta umeekin batera ibiltzeko begiraleak behar dituzte. Begiralea izan gura duenak izena eman behar du apirilaren 3tik 13ra bitartean Xipizaron, 17:00etatik 19:30etara, edo hona deituta: 943 76 12 21.

Bestalde, txosna batzordeak jaietako lelo lehiaketa deitu du gaurtik apirilaren 8a bitartean. Arrano, Pol-Pol eta gaztetxean jarritako paneletan idatzi behar dira. Jai parte-hartzaile, herrikoi eta euskaldunak egin gura dituzte.

> TURISMOA

### Turismo bulegoa zabalik dago maiatzaren 1a arte

Gaur, egubakoitza, zabaldu ditu ateak herriko turismo bulegoak, datorren Aste Santuari begira. Maiatzaren 1a arte ibiliko da lanean. Tarte horretan, goizez eta arratsaldez egongo da zabalik astegunetan eta domeka eta jaiegunetan, gutxienez, hiru orduz. Eguen eta egubakoitz santu egunetan, ordea, egun guztian egongo da zabalik. Udako sasoia maiatzaren 30etik irailaren 30era bitartean izango da. North Incoming Service enpresa arduratuko da.

> OSOKO BILKURA

### Zabalotegi eta Bolu auzokoek euren iritzia erakutsi dute

Zabalotegiko eta Boluko auzotarrak errepide berriaren aurkako kartelak erakutsiz esan zuten osoko bilkuran proiektuaren aurka daudela. Aurretik, plazan egin zuten kale agerraldia. Urtarrilean eskatu zuten bilera alkatearekin eta oraindik ez dutela erantzunik jaso esan zuten. Juanjo Arrieta alkateordeak erantzuna jasoko dutela agindu zien. Bestalde, Boluko hirigintza azterlana egitea onartu zuen Udalak.

Arretari buruzko Gipuzkoako lehenengo jardunaldiak

"Adi egotea: ikasteko, lan egiteko eta hobeto bizi izateko estrategiak"

Apirilak 4 eta 5. Ordua: 19:30-21:00.
Kutxako areto nagusian. Arrasate kalea, DONOSTIA.

Hizlariak
**Andres Martin.** Biologoa. Estres arazoetan aditua
**V. R. Dhiravamsa.** Meditazio maisua
**Jaime Romano.** Mediku neurologoa
**Fernando Rodriguez.** Psikologian doktorea.

Antolatzailea: Baraka. Instituto de Psicología Integral.
Laguntzaileak: kutxa

Sarrera doan. Eserleku mugatuak. Ekitaldira datorrenaren konfirmazioa eskatzen da: 943 45 65 56.

Ana Gallastegi
Psikologoa eta psikoterapeuta integratzailea

Adimena, gorputza eta emozioa

Orain Bergaran ere bai
San Martin 3-4D
699 42 68 11

BARAKA
psikologia integraleko institutua
Larramendi 2 DONOSTIA
943 45 65 56

**MUSIKA** > 'APIRILEAN MUSIKA' ZIKLOA

# Musika Eskolako 550 ikasleen emanaldiak hilabetean zehar

Aurten, kalera eta hainbat aretotara eramango dituzte ikasleen musika emanaldiak

Kontzertuez gain, umeen musika hezkuntzaren eta umeen ahotsen gaineko berbaldiak




**KALERA** Musika Eskolak kalera aterako ditu instrumentuak apirilean. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA
Aurten, bigarren aldiz, *Apirilean Musika* zikloa antolatu du Bergarako Musika Eskolak. Bihartik, zapatua, hilaren 28ra arte hainbat musika emanaldi egingo dituzte herriko hainbat puntutan. Horrez gain, bi berbaldi ere antolatu dituzte.

Ziklo horren helburuak dira eskolan egiten duten lana Bergarako herriari erakustea, eta ikasleei jendaurrean aritzeko aukera ematea. Biak hala biak oso garrantzitsuak dira, Musika Eskolako arduradunen iritziz.

**HAINBAT KOKAGUNE**
Emanaldi horietan diziplina eta adin guztietako ikasleek esku hartuko dute. Hain zuzen ere, ikasle guztiek egin beharko dituzte jendaurreko emanaldiak. Horrez gain, Musika Eskolak aurten erabaki du kalera irtetea eta beste leku askotan kontzertuak egitea: ohikoez gain, Sierbetako elizan, Ospitaleko elizan eta Munibe plazan, besteak beste.

**BERBALDIAK, OSAGARRI**
Kontzertuez gain, musikarekin lotutako berbaldiak antolatzeko premiaz ohartu dira. Horregatik, batetik, musika hezkuntzaren garrantzia ume etapan izango dute berbagai; eta bestetik, Mirari Perez foniatra eta abeslariak umeen ahots-arazoen gainean berba egingo du.

**INSTRUMENTUAK NAHASTU**
Aurtengo beste berrikuntzetako bat da emanaldi batzuetan musika instrumentu desberdinak batzeko egingo duten ahalegina. Izan ere, Musika Eskolan denetariko instrumentuak jotzen ikasten dute, eta irakasleek horiek batzeko saiakera egin dute.

Nabarmentzeko beste kontu bat da ume eta gaztetxoez gain, gero eta ikasle nagusi gehiago dituztela. Hau da, adin nagusiagoko bergarar gehiago gerturatzen direla Musika Eskolara. Horiek ere ikasitakoa jendaurrean erakutsi beharko dute.

**MUSIKA**

## Metal talde handiak Jamen eguenean

Eguenean, hilaren 6an, Sepultura eta In Flames taldeen kontzertuak

**I.B.** > BERGARA
Orain dela gutxi Brasilgo Soulfly talde indartsua izan zen Jam aretoan. Max Cavalerak gidatzen du talde hori, eta aurretik Sepulturako kide zen hura. Datorren eguenean, berriz, Brasilgo Sepultura taldea izango da Bergarako aretoan, eta harekin batera Eskandinaviako In Flames taldea. Kontzertua 19:00etarako iragarri dute, eta sarrera 25 euro da.

**METALAREN AITZINDARI**
Sepultura metalaren talde aitzindaria izan zen, nahiz eta Max Cavalerak taldea utzi zuenetik gailurra ez ukitu. Maxen ordez AEBetako Derrick Greenek hartu zuen abesteko ardura.

Gaueko beste talde handia, gaur egun Sepulturaren parekoa ere badena, Eskandinaviako In Flames da. Death-metal melodikoaren talde adierazgarrienetako bat da eta arrakasta handia lortu dute aspaldian. Dagoeneko zortzi bat disko dituzte eta bira honetan *Re-route to remaing* aurkezten dabiltza.



Ile - apaindegia
Styloak
Osintxu 13 behea
Tel.: 943 77 70 57

Zure fideltasuna saritzen dugu
Bihartik aurrera zabalik Osintxun

Radio Bergara
- Argiztapenean azken modeloak
- Etxetresna elektrikoak
- Opariak

San pedro 25 BERGARA 943 76 19 89

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

FRONTOI

TABERNA
Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09



Udaberria - uda

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Neurriak
38tik 60ra

Etxerako ederrena,
*Zanguitun*

**deco-tex**
**ZANGUITU alfonbrak**
Herri lagunak 4 **BERGARA**
Tel.: 943 76 08 69

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurrira
- Funda nordikoak
- Edredoiak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

**ZANGUITU margoak**
Irala z/g **BERGARA**
Tel.: 943 76 19 54

**IRU margoak**
Araba etorbidea 3 **ARRASATE**
Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea*
- Sintasola*
- Moketak*
- Paper pintatuak

* Salmenta eta etxean ipintzea.



**FUTBOLA** > BAZKIDEEI BINA SARRERA OPARITUKO DIZKIETE ZAPATUKO PARTIDURAKO

# Bigarren postua jokoan bihar Agorrosinen

Bost jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko eta mahoneroek ez dute igotzeko itxaropenik galdu

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan, partidu erabakigarria izango du bihar, zapatua, erregional mailako Bergara futbol taldeak. Josu Zubikarairen mutilek Zumaiako hartuko dute Agorrosinen, 16:45ean. Urola liderrak (61 puntu) ihes egin die biei eta haien atzetik dira zumaiarrak (56 puntu) eta bergararrak (55). Hain zuzen , biharko partidua irabaztea ezinbestekoa da kostaldekoak bigarren postua eskuratzeko.

**SARRERAK DOAN BAZKIDEENDAKO**

Gauzak horrela, zuzendaritzak bina sarrera oparitu dizkio bazkide bakoitzari, Agorrosinen sarrera bikaina lortze aldera. Depor tabernan jaso ahal dira.

Zaila dirudien arren, mahoneroek ez dute lehen postua eskuratzeko itxaropenik galdu. Zumaiakoren aurka jokatu ondoren, hurrengo astean Urola liderrari bisita egingo diete. Zumaiakok eta Urolak elkarren aurka jokatu behar izateak ere amesten jarraitzeko aukera ematen die bergararrei.

**BESTE BOST PARTIDU**

Bestalde, beste hiru partidu jokatuko dira Ipintzan asteburuan: infantil mailan, Bergara-Sporting Herrera (10:00etan); bigarren kadete mailan, Bergara-Zestoa (11:30ean); ohorezko gazte mailan, Bergarak Zarautz hartuko du (18:45ean). Domekan, ohorezko kadete mailako taldeak Eibarren aurka jokatuko du, 11:30ean, eta nesken taldeak Urola izango du bisitari, 18:00etan.



GOIENKARIA

## Gipuzkoako txapelketarako proba domekan

Eskola arteko B mailan, Gipuzkoako gimnasia txapelketarako proba puntuagarria jokatuko da domekan Labegaraietako kiroldegian, 11:00etan. Arratsaldeko saioa, berriz, 17:00etan hasiko da. Ariznoa ordezkatuz, alebin mailan Antzuolako Ikastolako taldea lehiatuko da eta infantil mailan, Ipintzakoa. Banakako saioak ere egongo dira eta argazkian agertzen diren benjamin mailako Ariznoako gimnastek ere hartuko dute parte domekako proban.

> ESKIA

## Alpeetara irteera Aste Santuan, Pol-Polen eskutik

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Pol-Pol Mendizale Elkarteko eski sailak Alpeetara irteera iragarri du oraingo Aste Santurako. Hain zuzen ere, Tignesera joango dira eskiatzera, apirilaren 14tik 22ra. Ohikoa denez, aurtengo denboraldiko azken irteera izango da.

Pol-Pol elkartearekin Alpeetara joan nahi dutenek Komenioko bulegora jo dezakete argibide eske, aste barruan, 19:00etatik 20:30era. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian.

> TXIRRINDULARITZA

## Beñat Intxausti nagusitu zen Gorlako Igoeran

Seguros Bilbao taldeko Beñat Intxaustik irabazi zuen domekan jokatutako Gorlako Txirrindulari Igoera. Intxausti zen garaipena eskuratzeko faboritoetako bat eta denboraldiaren hasieran sasoi onean dagoela erakutsi zuen berriz ere. Bakarrik iritsi zen helmugara eta 17 segundora zazpi txirrindulariz osatutako taldetxoa sartu zen.

Unai Arantzabal bergararra (Azpiru Inmobiliaria) 29. tokian iritsi zen, irabazlearengandik lau minutu eta 20 segundora.

### labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Niu Tim-Komando | **3-0** |
| Txakurra-Makanaki | **0-7** |
| Egurre - Paco Cia | **0-3** |
| Pirulotarrak-Santana | **6-12** |
| Fit Automocion-Errotagain | **1-13** |
| Kalaveras-Pirulotarrak | **3-4** |
| Guri Guri-Makanaki | **5-2** |
| Irubide-Guri Guri | **1-8** |
| SDTNT-A Ze Flaxa | **0-3** |

**PARTIDUAK**

**Apirilak 1, zapatua (kanpoan)**

| | | |
|---|---|---|
| **16:00** | Errotagain-Santana | **Egurre** |
| **17:00** | Irubide--Egurre | **Belengua** |
| **18:00** | Belengua-Komando | **All Blacks** |
| **19:00** | Belengua-All Blacks | **Komando** |
| **20:00** | Makanaki-Paco Cia. | **Belengua** |

**Apirilak 2, domeka (kanpoan)**

| | | |
|---|---|---|
| **16:00** | Irubide-Txakurra | **Belengua** |
| **17:00** | Belengua-Agirrebeña | **Niu Tim** |
| **18:00** | All Blacks-Niu Tim | **Egurre** |
| **19:00** | Guri Guri-Egurre | **A Ze Flaxa** |
| **20:00** | Mongatxurra-A Ze Flaxa | **Guri Guri** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Alls Blacks | 54 | 19 |
| **2.** | Errotagain | 48 | 20 |
| **3.** | Kalaveras | 42 | 21 |
| **4.** | A Ze Flaxa | 42 | 20 |
| **5.** | Teatekh | 40 | 21 |
| **6.** | Makanaki | 39 | 20 |
| **7.** | Agirrebeña Jatetxea | 38 | 20 |
| **8.** | Mongatxurra | 34 | 20 |
| **9.** | Pub Irish | 31 | 21 |
| **10.** | Niu Tim | 230 | 20 |
| **11.** | Santana Rivers | 27 | 20 |
| **12.** | Pirulotarrak | 24 | 21 |
| **13.** | Paco Cia | 23 | 20 |
| **14.** | Komando Piperrak | 22 | 20 |
| **15.** | Egurre | 22 | 19 |
| **16.** | Belengua Taberna | 16 | 18 |
| **17.** | Guri Guri | 16 | 20 |
| **18.** | SDTNT | 12 | 21 |
| **19.** | Irubide Jatetxea | 11 | 19 |
| **20.** | Fit Automotion | 6 | 21 |
| **21.** | Txakurra | 3 | 20 |

## Martitzenean egingo dute kopako zozketa

Atzeratutako hainbat norgehiagoka jokatuko dira aste bukaeran, ligari amaiera emanez. Ligako jardunaldi guztiak jokatu ondoren, All Blacks taldea izan da indartsuena: partidu bakarra galdu dute arrasatearrek. Liga amaitzearekin batera Kopa Txapelketa hasiko da; martitzen arratsaldean, apirilaren 4an, egingo dute zozketa, kultura etxean. Hasieran, sailkapeneko azken hamar taldeak sartuko dira zozketan. Bestalde, Guri Guri taldea zigortu dute Mikel Leon jokalari federatua taldean jokatzeagatik.

NC NutriCare desde 1985 Dietetika eta nutrizioa
HITZALDIA
**Gaia:** Nutrizioa eta menopausia
Apirilak 4 martitzena 19:00etan,
Miguel Altuna Institutua, ibargarai 1, Bergara
**Hizlariak:** Pedro Ramos Doktore jauna.
Medikuntzan eta Kirurgian Doktorea.
Nutricare enpresaren Medikuntza Departamentuko kidea

SONIA TRIGUERO
Psikologoa / Psikoterapeuta
Edozein kontsulta egiteko:
Zuzendu Estetika eta Errehabilitazio Zentroa.
Tel.: 943 72 52 62
Poltsikoko tel.: 616 31 84 24

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA
Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Osteopatia
Errehabilitazioa
Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegaraieta ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es

GURIA Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

mingainari tiraka

Ana Gallastegi > Psikologoa

# "Psikologia integraleko zentroa da gurea"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Psikologo bergararrak Donostiako Baraka Institutuan dihardu eta Bergaran ere kontsulta du. Bederatzi urteko esperientzia du psikoterapeuta moduan eta emozioekin lotutako Gestalt terapian eta gorputz terapian jarduten du batez ere.**




**Zer da Baraka?**
Psikologia integraleko zentroa da. Psikoterapia edo *neurofeedback* (pazientearen eta ordenagailuaren arteko harremana) kontsultak eskaintzen ditugu. Norberaren ezagutzarako gela ere badugu.

**Gorputza eta burua bat al datoz beti?**
Integralak, osoak gara; beraz, buruak eta gorputzak bat egin behar dute.

**Ume txikiekin lan egitea zaila da?**
Arazo psikotikoak zituen lau urteko ume batekin lan egin dut gorputza erabiliz, eta oso emaitza onak lortu ditugu.

***Bullying* kasuak ere tratatzen dituzu.**
Beti egon dira *bullying* kasuak, baina orain gehiago tratatzen dira. Eskoletan irakasleek gurasoei esaten diete psikologoengana joateko arazo horri aurre egiteko.

**Zergatik izaten da beldurra psikologoarengana joateko?**
Ez dutelako jakiten terapietan zer egiten den. Bezero gehienek esan didate egiten dutena jakin izan balute lehenago etorriko zirela.

**Umeak gurasoen ispilu dira?**
Bai. Euren jarrerak errepikatzen dituzte edo baita aurka jokatu ere.

**Norberaren esperientziatik ere jasotzen da jakintza, ezta?**
Arazoak edo probak gainditzeko modu egokiena horiei aurre hartzea da. Beraz, egoera horretatik pasatu den norbaitek lagunduz gero beti da hobea.

**Zein dira umeak zuregana ekartzeko arrazoi nagusiak?**
Eskola porrota; arrazoi zehatzik gabe tripako edo buruko minak izatea; eta ikastetxean baztertzea.

hau be badogu!

## Bergarako hiru lagun ETB-1eko 'Mihiluze' saioan irtengo dira apirilaren 6an

**Igor Oruesagasti, Iñigo Almortza eta Aitor Muruamendiarazek *Mihiluze* telebista saioan hartu dute parte. Aurrez ere izana zen hirukote hori telebistan, *Txiskola* lehiaketan. Kike Amonarrizek gidatutako lehiaketa joan zen egubakoitzean grabatu zuten Miramongo estudioetan. Bergararrek Oarsoaldeko eta Iparraldeko taldeekin jardun behar izan zuten lehian. Herritik joandako lagunen animuak ez zituzten faltan izan. Saioa ikusi eta hurrengo fasera pasatuko diren jakiteko apirilaren 6ra arte itxoin beharko dugu. Izan ere, egun horretan 22:00etan emango dute saioa ETB-1en.**



MIHILUZE

bere ustez


Jose Angel Mikeo

## Rufinoren Angiozarko autobusa

Su-eten iraunkorraren berria entzun irratian eta golpetik buruak urteetako saltoa egin zidan atzera: bederatzi urterekin, Bergarara, eskolara, autobusean joaten hasi gineneko unera joan zitzaidan. Burgosko juizioa, manifestazioak, Cristo Reykoak... Mutiko eta neskatila besterik ez ginenean bizitako izua etorri zait burura. Negu hartan Beheko plazan argiak itzali eta grisak sartu zirenekoa, nonbait babestu eta autobusari itxoin genionekoa, autobusa eta babesa.

**"Mutiko eta neskatila besterik ez ginenean bizitako izua etorri zait burura"**

Francoren mediku taldearen parte guztiak ere autobusean entzun genituen urte batzuk geroago. Arias Navarroren "Franco ha muerto" eta hurrengo egunetan "En la memoria y el recuerdo a Franco, ¡Viva el Rey!" ere hantxe, gora eta behera genbiltzala. Handik aurrera erreferendum, hauteskunde, 23-F, atentatu, atxiloketa, juizio, eta abar guztiak, Angiozarko eskolaumeok autobusean egin ditugu historia pertsonalaren zati, goizeko notizietan entzunez.

Oraingoan etxean nengoen, baina berria autobusean entzun banu bezala gelditu naiz. Bidaiari guztiak jasotzeko beste geltoki izango al du bake prozesuaren autobus honek! Denok igo eta gero erabaki beharko da nora garamatzan.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



elkar
Orain, **elkar txartel berriarekin:**
- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua euskarazko musikan
- Erosketa bakoitzarekin puntuak zureganatzeko aukera
- Ikusentzunezko eta jokoetan promozioak
- eta askoz gehiago...

Zatoz eta **doan** atera.

**elkar megadenda** Bergaran
Ibargarai, 12 - Tel.: 943 764 050

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA
GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

**ETXEBIZITZAK** > GERO ETA ETXABE GEHIAGO BIZITOKI

# Hutsik zeuden etxabeetan 17 bizitoki egin dituzte azken hiru urteotan

Aurten lau etxebizitza egiten hasiko dira, horietatik hiru Belorrieta auzoan eta bat Loramendin

Ordenantza egin eta bi urtera berrikustea arautu zuten; laster aldaketak proposatuko ditu Hirigintza Sailak



**ETXABEAK** Lau etxebizitza egingo dituzte Loramendi kaleko 13. atarteko etxabean; 52 eta 62 metro koadro artean izango dituzte etxeok. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Aretxabaletan etxabe asko ditugu hutsik. Eta hala egon baino hobe zela bizitoki bihurtzea erabaki zuen orain dela hiru urte orduko udalbatzarrak. 2003an ordenantza egin zuen eta ordutik hona 17 etxebizitza egin dituzte hutsik zeuden etxabeetan.

**ETXABE EGOKIENAK**

LKS enpresak egin zituen bere garaian ikerketa lanak. Haren arabera 90 etxebizitza inguru egin daitezke Aretxabaletan, eta horretarako egokiak diren etxabeak zein kaletan zeuden zerrendatu zituen: Belorrieta auzoa, Murubide plaza, Lausitta kalea, Loramendi, Otalora, Santa Kurtz, Mitarte eta Araba ibilbidea. Hainbat baldintza bete behar dituzte etxabeok, baina lehenengoa da kale nagusira zuzenean ez ematea, komertzioek lekua izan dezaten. Horregatik egokienetakoa Belorrieta auzoa da eta bederatzi etxabe daude moldatzeko modukoak, Murubide plazan sei eta Loramendi kalean bost.

Ordenantza onartu zuten urtean bertan hasi ziren bizitokiak egiten. Hala, 2003an sei etxebizitza egin zituzten. 2004an, ostera, ez zuen inork eskaerarik egin, eta 2005ean zazpi egin zituzten, oraindik bukatzeko daudenak. Aurten, ostera, beste lau egiten hasiko dira, Belorrieta 14 atartean hiru eta Loramendi 10ean bat.

**PREZIOA ARAZO**

Norbaiti irudituko zaio etxabe asko moldatu dituztela, baina ez dio hori Hirigintza Saileko teknikari Jose Mari Segoviak: "Hiru urtean 17 etxebizitza oso gutxi da, eta hausnarketa egin beharko genuke". Hain zuzen, ordenantza egin eta bi urtera berrikustea arautu zuten, eta dagoeneko epea pasatuta dago. Hirigintza Saila hainbat aldaketa egitea aztertzen dabil eta lehenago ez bada geroxeago eztabaidatuko ditu udalbatzarrak aldaketok.

"Gehiago ez egin izanaren arrazoi bat prezioa da", dio Segoviak. Udalak arautzen du prezioa eta babes ofizialeko moduluak duen prezioa ezarri dio etxearen metro koadroari, hau da, 1.258,85 euro. "Jabetzako eskriturak egiterakoan horrexek zehazten du prezioa, baina sarri gertatzen da bizitokia egitea hori baino garestiagoa izatea, gastu asko pilatzen direlako: etxabea erosi, proiektua egin, bizitokia egin, notarioarengana joan eta beste hainbat", eta gaineratu du Segoviak: "Orduan eskatzailea konturatzen da ez dela halako ideia ona".

Beste aukera bat da enpresa eraikitzaileak egitea bizitokia, eta gero hari erostea; burukomin txikiagoa prezio txukunean. Belorrietako hainbat etxe, esaterako, Bamak egin ditu. Halakoetan iruzurrik egon ez dadin ordenantza zorrotza egin gura izan zuten bere garaian, eta lehenengo 10 urteetan Udalak duela erosteko lehentasuna ezarri. Hala ere, legea egiten duenak tranpa egiten ere badakiela dio esaerak, eta Udalak horren aurrean ezin duela ezer egin dio.

**BIZILAGUNEN BAIETZA**

Etxebizitza egin gura duenak hitzarmena sinatzen du Udalarekin, izan enpresa bat, izan herritar bat. Hala ere, lehenengo etxabe gaineko bizilagunen baietza behar du, bizilagun guztiguztien baietza, eta batzuetan ez da batere samurra lortzea. Ondoren, etxabearen izendapen aldaketa eskatuko dio etxea egin gura duenak Udalari bizitokia egiteko. Hori jasotakoan hitzarmena sinatuko du Udalarekin prezioa zehazteko, eta arkitektoak egindako proiektua aurkeztu. Onartutakoan Udalak obra-baimena emango dio, eta urtebeteko epea izango du eskatzaileak lanok hasi eta bukatzeko.

BALDINTZAK

## Bizitokiaren baldintzak zehazten ditu ordenantzak

Etxabeak moldatuta ere benetan etxebizitza duinak egin daitezkeela erakutsi dute Aretxabaletan. 2003an egindako ordenantzak zehazten ditu betebeharrak eta baldintzak. Berrikusten dabiltza azken asteotan ordenantza Hirigintza Sailean, eta aldaketak izango ditu laster. Hala ere, bizitokiak bete beharreko baldintzak ez dira aldatuko. Hona garrantzitsuenak: 40 metro koadro eta hiru gela izan behar ditu gutxienez; sukalde-jangela, bi oheko gela eta bainugela. Gela guztiek izango dute argiztapen naturala, baita aireztatze tarteak ere. Ahal den guztietan atartetik izango du sarrera, baina ezin bada eraikinaren kanpoaldetik egiteko aukera ere badago, betiere fatxada errespetatuta.

Ordenantzaren berri izan gura duenak *www.aretxabaleta.com* helbidean aurkituko du.

DATUA

**90**

**ETXEBIZITZA**

2003an egindako ikerketak dioenez, 90 bizitoki egin daitezke herrian 30en bat etxabetan. Hiru urtean 17 bakarrik egin dituzte, gehienak Belorrieta auzoan eta Loramendi kalean.

DATUA

**40**

**METRO KOADRO**

Gutxienez 40 metro koadro izan behar ditu etxeak, eta hiru gela: sukalde-jangela, logela eta bainugela. Orain artekoek 50 eta 70 metro koadro artean daukate, eta bikote gazteek egin dituzte.

Zenbaki
Aholkulariak
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
TÜV
• Kontabilitatea • Lana
• Fiskalitatea • Juridikoa
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 / Faxa: 943 71 22 68
www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es

**LORAMENDI** > UDABERRIKO EGITARAUA

# Euskal film laburren emanaldiak hasi eta bukatuko du udaberriko egitaraua

Apirilaren 7an euskal film laburrak emango dituzte udaletxe zaharrean, eta zuzendariren bat hurreratuko da filmaren gainean jarduteko

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarteak gertu dauzka datozen hiru hilabeteotarako hitzorduak, eta laster jasoko dute horien berri bazkideek etxean. Udaberriarekin batera jai giroa dakar egitarauak.

**APIRILEAN ELKARTRUKEA**

Apirilaren 7an, egubakoitza, *Inaxito* antzezlana izango dute Algara ludotekako umeek arratsaldean. Gau partean, ostera, euskal film laburren emanaldia eskainiko dute, eta film bateko zuzendariarekin solasaldia egongo da emanaldia bukatutakoan. Apirilaren 28an, 29an eta 30ean, Doneztebeko Burrunba taldeko kideak hurreratuko dira gurera. Elkartrukea girotzeko olinpiadak egin gura dituzte herritarren laguntzarekin, eta izenak jasotzen dabiltza Loramendin.

**MAIATZEAN EUSKARAREN ASTEA**

Maiatzaren 4an berbaldia egingo du EHNEk nekazaritza ekologikoaren eta produktu transgenikoen gainean; eta hilaren 11n, emakumeek Euskal Herrian izandako eraginaren gainean berba egitera etorriko da Alizia Sturtze. Maiatzaren 15etik 20ra bitartean, ostera, Euskararen Astea ospatuko dute egitarau bereziarekin. Hilabetea bukatzeko, 27an, ipuinak kontatzen erakutsiko diete AEK-ko kideek gurasoei.

Ekainaren 1ean bakarrizketa eskainiko du Patxi Santamariak, eta hilaren 10erako mendi buelta antolatu dute sendabelarrak ezagutzera joan eta batzeko. Ekainaren 16an, egubakoitza, *Aupa Etxebeste!* filma emango dute Herriko Plazan, eta 21ean Txan magoaren ikuskizuna egongo da Arlutz osteko kantxan.



***AUPA ETXEBESTE!*** Euskal film hori ekainaren 16an emango dute Herriko Plazan, 22:30ean. GOIENKARIA



PELLO OLABE

## Herriko 60 dantzari gaztetxoren saioa Gasteizen

Aitor Villarreal Leizarra musika eskolako maisuak dantzari taldea eraman zuen Gasteizera orain aste bi. 9 eta 15 urte bitarteko neska-mutikoek euskal dantzen ikuskizun bikaina eskaini zuten Lakua gizarte etxean. Tartean, Aitorrek berak asmatutako Leizarra dantza erakutsi zieten elkartutakoei, eta musika eskolako irakasleek borobildu egin zuten emanaldia. Senide eta lagun asko hurreratu ziren, eta Gasteizen bertan bizi diren aretxabaletarrek ere ez zuten hitzordua galdu gura izan.

Angelines
AUTOZERBITZUA
Frutan eta txarkuterian espezialitatea
Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Lie
LURRINDEGIA
OPARI DENDA
Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA



**KULTURA** > PINTURA ETA ESKULTURA ERAKUSKETA

# Xavier Espinet katalanaren erakusketa bihartik aurrera

'Memòria Matèrica' izeneko erakusketa inauguratuko du bihar artista katalanak Iralabarri plazan

Maiatzaren 6an Trikitixa Eguna ospatuko dute gurean, eta Kepa Junkera hurreratuko da

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Erakusketa antolatu du Kultura Sailak bihar hasi eta apirilaren 11 arte. Xavier Espinet katalanaren koadro eta eskulturak egongo dira ikusgai Iralabarri plazako kultura etxean egunero, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Bihar, zapatua, egingo dute inaugurazio ekitaldia, 19:00etan, eta Espinet bera hurreratuko da eskulturak aurkeztera.

**OROIMENAREN GAINEAN**

Egurrarekin egindako 20 eskultura jarriko ditu ikusgai Espinetek, eta horiekin batera 15 koadro ekarri ditu: "Ezohiko koadroak dira, hare, egur eta akrilikoekin egindakoak, hau da, bolumendunak", dio Espinetek. *Memòria Matèrica* izena jarri dio katalanak bere lanari eta haren zati bat izango da Aretxabaletara dakarrena. Materiaren gainean eskuak ezartzerakoan sortutako gozamenak eragindako lana dela dio, espazio berriak bilatzera bideratutako lana. Era berean, oroimenaren gainekoa ere bada, "hutsa osatzen duen materian sortzen delako gure oroimena".

Xavier Espinet Bartzelonakoa da, eta aretxabaletar batekin dago ezkonduta: Begoña Lizarralderekin, hain zuzen.

**TRIKITIXA EGUNA**

Erakusketarekin hasiko du udaberria Kultura Sailak, baina ez da egingo duen ekitaldi bakarra. Maiatzaren 6an, zapatua, Debagoieneko II. Trikitixa Eguna ospatuko dute gurean. Arrasatekoen eskutik hartu zuten lekukoa iaz musika eskolako trikitilariek eta Udalarekin batera antolatuko dute. Iaz zortzi trikiti eskolatako 130 trikitilari inguru elkartu ziren, eta aurten gehiago izango direlakoan daude antolatzaileak. Askorendako maisu den Kepa Junkera gonbidatu dute ekitaldira.

Maiatzaren 14an, ostera, Otala Zelai eguna ospatuko dute Aozaratza auzoko zelaian. Erromeria giroko jaia egingo dute urtero legez, eta Loramendi dantza taldeko txikienen aurkezpen ekitaldia izaten da Otala Zelaiko haritzpean.

Horiekin batera beste ekitaldi batzuk ere antolatuko ditu Kultura Sailak, dantza ikuskizuna tartean, baina oraindik zehaztu barik dauzka noiz.



M.A.

## Zazpi mailatan banatutako ikastaroa

Oraintsu jarri du abian Kirol Zerbitzuak umeendako igeriketa ikastaroa, eta apirilean izango du jarraipena. 2002an jaiotakoekin talde bakarra osatuko dute, eta gainerako umeek elkarrekin jardungo dute. Zazpi mailatan banatu dute ikastaroa, eta bakoitzari helburu batzuk eta itsas animalia bat dagozkio. Helburuak lortutakoan diploma jasoko dute umeek eta hurrengo mailara pasatuko dira. Ordutegiari dagokionez, hainbat aukera daude; hortaz, argibideak gura izanez gero kirol etxera deitu.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

> ERLIJIOA

### Arantzazurako erromesaldira autobusean joan gura duenak izena eman behar du hilaren 5erako

Donostiako elizbarrutiak antolatuta erromesaldia egingo dute Arantzazura apirilaren 8an. Oñatiraino autobusean joan gura duten herritarrek izena eman beharko dute parrokiako sakristian hilaren 5a, eguaztena, baino lehen. 10 euro ordaindu behar da autobusa, eta apirilaren 8an, zapatua, 08:30ean aterako da herritik.

Egun horretan bertan, familien ospakizuna egingo dute 19:30ean parrokian esango duten mezan. Katekesian dabiltzan umeak eta haien gurasoak gonbidatu dituzte parte hartzera.

> HIRIGINTZA

### Apirilaren 10ean egingo dute lehen azterketa Hirigintza teknikari postura aurkeztutakoek

Hirigintzako erdi mailako teknikaria kontratatzeko dei egin zuen Udalak urtarrilean hutsik geratutako lanpostua betetzeko, eta bederatzi lagunek eman zuten izena, tartean aretxabaletar batek. Apirilaren 10ean, astelehena, egingo dute lehen azterketa; hirigintza arlokoa izango da eta test erako 40 galdera erantzun beharko dituzte ordu eta erdian. Udal Liburutegian egingo dute.

Bigarren azterketa praktikoa izango da eta apirilaren 21ean, astelehena, egingo dute.

> POLITIKA

### EAJko presidente Josu Jon Imazek egoera politikoa izango du berbagai apirilaren 7an

Aretxabaletako batzokiak Josu Jon Imaz EAJko presidentea gonbidatu du bizi dugun egoera politiko berriaren gainean berba egiteko. Apirilaren 7an hurreratuko da, eta udaletxeko ganbaran elkartuko da EAJko kide eta interesa duten herritar guztiekin.

Joseba Egibarrek hasi zuen batzokiak antolatutako berbaldi sorta eta Xabier Artzalluz izango da hurreratuko den azkena. Tarte honetan Euskal Herriko egoera politikoa asko aldatu da, sueten iraunkorraren iragarpenarekin.

> KIROLAK

### 44 lagunek jardungo dute bihar Goiena Sporten olinpiadetan eta gero sagardotegira joango dira

Kirol etxeko jarduerak antolatzen dituen Goiena Sport enpresak olinpiadak antolatu ditu biharko. 44 lagunek eman dute izena, eta lau talde egin dituzte jolasean jarduteko; talde bat Goiena Sporteko irakasleek osatu dute. Badminton, hockey eta herri kirolak egin beharko dituzte, betiere ahaztu barik ondo pasatzea dela helburua eta ez lehiakortasuna bultzatzea. Hala ere, azken asteotan giroa berotzen ibili da bat baino gehiago, eta askok gurako dute irabazi. 13:00ak inguruan autobusa hartuko dute eta Hernaniko sagardotegira joango dira bazkaltzera.

KONTSUMITZAILEAREN ESKOLA

OSASUNA

Monterron Jauregia ARRASATE
Apirilak 4 eta 5
Ordua: 16.30

Apirilaren 4a - asteartea

**ZAINTZAILE EZ PROFESIONALAREN OSASUNA.**
**METODOLOGIA ETA PREBENTZIOA, I**
**• Hizlaria: Jose Luis Martin**

Erizaintzako Unibertsitate Diplomaduna eta Patologien Prebentzio Zentroko (CEPREPA) Zuz.

Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialeko irakasle-taldeko kidea.

Apirilaren 5a - asteazkena

**ZAINTZAILE EZ PROFESIONALAREN OSASUNA.**
**METODOLOGIA ETA PREBENTZIOA, II**
**• Hizlaria: José Luis Martín**

Erizaintzako Unibertsitate Diplomaduna eta Patologien Prebentzio Zentroko (CEPREPA) Zuz.

Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialeko irakasle-taldeko kidea.

IdeaSana. EROSKI

www.ideasana.com



MEMORIA HISTORIKOA Argazkian, 1937an Arrasateko Erdiko kaleari Generalisimo Franco izena jarri zioteneko ekitaldia. 'BELAUNALDI ETENA'

**HISTORIA ETA ALDARRIKAPENA** > ERREPUBLIKAREN ETA ESPAINIAKO GERRAREN GAINEKO JARDUNALDIAK

# Errepublika izan zena oroitzeko jardunaldiak Ibarraundin

Errepublikaren gaineko ospakizun eta aldarrikapenak urteroko hitzordu bilakatu dira

Eguenean interes handiko bi berbaldi egingo dituzte eta egubakoitzean, poesia errezitaldia

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Espainiako gerraren eta Errepublikaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte datorren astean. Udalak antolatu ditu jardunaldiok eta Ezker Batuak bultzatu du ekimena. Eguenean, hilaren 6an, bi berbaldi egingo dituzte: bata, Intxorta 1937ko kultura taldeko partaide Juan Ramon Garaik emango du *Guerra civil y represión en el valle de Leniz* lelopean. 19:00etan izango da, eta horren ostean Arantzadi zientzia elkarteko Antropologia Saileko presidente Pako Etxeberriak *Exhumando fosas y recuperando dignidades* berbaldia egingo du. Biak hala biak Ibarraundi museoan izango dira.

**TESTIGANTZAK BATU DITUZTE**
Juan Ramon Garaik Errepublikaren, Espainiako gerraren eta horren osteko errepresioaren gaineko ezagutza handia dauka. Izan ere, gai horien gaineko ikerketak egiten dihardu aspalditik eta beste hainbat lagunekin liburuak argitaratu izan ditu. Horren harira, horren guztiaren gaineko hainbat datu jarriko ditu mahai gainean. Hain zuzen ere, gertaera nagusi (Errepublika, Espainiako gerra eta horren osteko errepresioa) horien gaineko datu ugari dituzte Intxorta 1937ko kultura taldean, eta horietako hainbat aditzera emango ditu berbaldian.

Garaik azaldutakoaren arabera, besteak beste, gerra osteko errepresioaren gainean zabal berba egingo du, eta fusilatuen senideen testigantzak ere emango dituzte.

Horren ostean, beste aditu batek esku hartuko du berbaldia emateko. Aranzadi elkarteko Pako Etxeberriak Espainiako gerran fusilatutakoen hainbat hobiren azterketan esku hartu du. Gure ibarrean, esaterako, Elgetako Uxategi baserri inguruan aurkitutako lau gorpuzkinen kasuan, eta Arrasaten Kurtze Txiki inguruan aurkitutako beste bi hilotzen aurkikuntzan.

Pako Etxeberria Aranzadi elkarteko Antropologia Saileko presidente izateaz gain, EHUn auzitegiko medikuntzako irakasle ere bada. Biak hala biak gaiaren gaineko ezinbesteko adituak dira. Egubakoitzerako, hilaren 7rako, berriz, bestelako ekitaldia egingo dute jardunaldi horien barruan. Iraultzaren gaineko poesien errezitaldia egingo dute 19:30ean.

**'LOS POETAS ROJOS'**
*Los poetas rojos* Gasteizko ezkertiarrez osatutako taldea da. Orain dela 10 bat urte Alderdi Komunistako lagun batzuk hasi ziren lagunartean poesia errezitaldiak egiten. Errepublikaren eta Espainiako gerraren gaineko poesiak aukeratu zituzten dibertimendu horretarako. Horren ostean, jendaurrean ere hasi ziren horrelakoak egiten, eta, egia esanda, oso gutxitan elkartzen dira emankizunak egiteko.

Berez 12 bat lagunek osatzen dute taldea, baina horietako bederatzi bakarrik joango dira Ibarraundira emanaldia egitera. Neruda, Machado, Lorca eta bestelako poeta iraultzaileen testuak abestuko dituzte.

**ERREPUBLIKA EGUNA GOGORATU**
Herriko Ezker Batuak taldekoek urteak daramatzate Errepublikaren eguna gogoratzen. Aurten egun hori, apirilaren 14a, Aste Santuko oporren barruan dagoenez, ekitaldiak astebete aurreratu dituzte. "Gure eta Udalaren asmoa da egungo gazteek historian gertatutakoaren berri izatea, errepika ez dadin".

### Azkeneko hiru urteotan Udalak egitaraua antolatu du egun horren inguruan

Badira hainbat urte herriko Ezker Batua taldeak apirilaren 14an Errepublikako ikurrina altxatzen duela. Horren harira, 2004an Udalarekin berba egin zuten eta guztien artean Errepublikaren gaineko erakusketa zabala jarri zuten kultura etxean. Oso harrera ona izan zuen, eta jende asko joan zen hura ikustera. Eibarko artxiboko materialaz gain, eskoriatzarrek eramandako gauzak jarri zituzten erakusgai.

2005ean, berriz, Paco Ibañez bakarlaria eraman zuten Udal Kiroldegira. Oso kontzertu hunkigarria eman zuen eta 700 lagun batu zituen emanaldian. Ibañezek eta bere bikotekideak oso ondo hartu zuten Errepublikaren gaineko jardunaldietan esku hartzea, eta hala eskertu zioten Debagoieneko zein kanpoko hainbat lagunek.

**KULTURA**

## Liburuak katalogatzen dabiltza museoan

1.500 liburu inguru dituzte, kontsulta eta mailegurako baliatzeko

**I.B.** > ESKORIATZA
Lehengo Museo Eskolako liburu bilduma guztia Ibarraundi museora eraman zuten orain dela gutxi. Bilduma guztia kaxatan banatuta zegoen. Horri guztiari irtenbidea emateko, apaletan ganoraz banatzeko eta bide batez katalogatzeko Leire Parra arrasatearrari eman zioten lan hori.

Leire Parra aurretik ere ibili da Udalerako eta Ibarraundi museorako beste lan batzuk egiten. Adibidez, hark izan zuen Eskoriatzako argazki zaharren artxibo digitala egiteko ardura.

**1.500 BAT LIBURU**
Parrak hiru bat hilabete darama lan hori egiten, eta dagoeneko 1.250 liburu katalogatu ditu. Haren esanetan, guztira, 1.500 bat liburu izango dituzte Ibarraundin.

Liburu horiek guztiak gaika banatu ditu, eta Parrak nabarmendu du Euskal Herriko etnografiaren eta historiaurrearen gaineko liburu oso garrantzitsuak daudela. Horrez gain, Eskoriatzaren gainean argitaratutako liburu eta lanen gaineko bilduma handia ere badute.

**KONTSULTA ETA MAILEGUA**
Ibarraundiko arduradunen asmoa da liburu eta lan horiek guztiak museoko langile eta erabiltzaileek kontsultarako erabili ahal izatea. Horrekin batera, aztertzen dabiltza mailegutza zerbitzua ere abian jartzea.

Aste Santuko oporren aurretik bukatu gura dute katalogazio lana. Horren arabera, aurten abian egongo da zerbitzu hori 3. solairuan.

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure Zerbitzura

HEDADURA > UDALERRIAREN MUGARRIAK

# Arratzu-Ubarrundiarekiko muga aztergai

Arratzu-Ubarrundiako eta Eskoriatzako udalek ika-mika dute, mugarri batzuk lekuz aldatu behar direlako. Eskoriatzarren aldeko epaia eman zuen Geografia Institutuak

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Atzoko udaleko osoko bilkuran eztabaidatzeko asmoa zuten gaietako bat Eskoriatza eta Arratzu-Ubarrundia udalerriaren arteko mugak ziren. Kontua da aspalditik bi udalerriek ika-mika dutela mugarri batzuen kokapenaren gainean.

Berez Eskoriatzak lauzpabost bat kilometroko hedadura dauka Arratzu-Ubarrundiarekin mugan, baina eztabaidagunea hedadura askoz txikiagoan dute. Hain zuzen ere, Mugarriluze menditik Oñatiko muga alderantz gutxi gorabehera.

**1927AN ONARTUTAKO AKTAK**

Eskoriatzako Udaleko ordezkariek jakinarazi digutenez, mugarrien kokapena 1927an onartutako aktetan zehazten da. Hortaz, eztabaida aspalditik dator. Izan ere, orain dela urte asko Eskoriatzako hainbat lur-jaberi deitu zieten lur batzuk Arabakoak zirela jakinarazteko.

Horren harira, orain dela 10 bat urte, bi udaletako ordezkariak elkartu egin ziren, baina ez zuten adostasunik lortu.

**ESKORIATZAREN ALDE**

Horren ostean, Jaurlaritzak auzian esku hartzea erabaki zuen, eta Espainiako Geografia Institutuak eskoriatzarren aldeko txostena argitara eman zuen. Institutu horren esanetan, mugarri batzuk lekuz aldatu beharko lirateke.

Arabako Aldundiak administrazioarekiko auzi-helegitea jarri zuen, eta auzia epaitegietara ere eraman zuen, baina epaileak ez zuen helegitea onartu.

**ASTELEHENEAN BATZARRA**

Astelehenean, hilaren 3an, Udalak batzarrera deitu ditu Arratzu-Ubarrundiako ordezkariak. Hitzordura joango ez balira, 15 egunen epean beste data bat jarri beharko lukete batzarra egiteko eta mugarriak lekuz mugitzeko.

AZPIEGITURAK > AUTOBIDEA

# Nestor Arana kargutik kentzea eskatu dute

Autobideak kaltetutakoen elkarteak egin dio Bidegiri eskaera hori, prentsa ohar baten bidez

Aldundiaren jarrera salatzeko 'Gezurti' panfletoa kaleratu eta pilota partidua antolatu dute

I.B. > ESKORIATZA

Autobideak kaltetutakoen elkartea oso haserre dago autobidearen lanak zuzentzen dituen Aldundiko Bidegi erakundearekin eta haren arduradun Nestor Aranarekin. Horregatik, Arana kargutik kentzeko eskatu dute prentsa ohar baten bidez.

Kaltetuen esanetan, autobidearen proiektua aurkeztu zietenean, "Aldundiak ahalik eta lur gutxien hartzeko, segurtasuna bermatzeko eta ingurunea errespetatzeko hitza bete zuen. Lehenengo harremanak onak izan ziren, eta Aldundiak Bidegiko zuzendari Nestor Arana izendatu zuen hobekuntzak aztertu eta eztabaidatzeko" . Horren ostean, Udaleko ordezkariek eta kaltetuek Udal batzordea osatu eta Bidegirekin harremanetan jarraitu zuten, baina "2004aren bukaera ezkero Bidegiko arduradunek behin eta berriro utzi dituzte bete barik aurretik hartutako konpromisoak". Are gehiago, Bidegiko Nestor Aranak batzarrak "modu txarrean zapuztu" dituela azpimarratu dute.

**BESTELAKO EKIMENAK**

Bestalde, kaltetuen elkarteak *Gezurti* izeneko panfletoa etxez etxe banatu du, Juan Joxe Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak esandakoak laburbilduta. Eta egubakoitzean, hilaren 7an, eskuz binakako pilota partidua egingo dute: Goñi II.a eta Lazkano, Uberaren eta Medinaren kontra.



PROTESTAK Kaltetuen elkarteak hainbat protesta egin ditu. I.B.

HEZKUNTZA

# HUHEZIko ikasleek protesta astea egingo dute

I.B. > HERRIA

Ikasle Abertzaleak taldeak datorren asterako hainbat ekitaldi antolatu ditu Bolognako prozesuari kontra egiteko. Ikasleen sindikatuak uste du hezkuntzaren gaineko neurri berri horiek ezarri baino lehen, ezinbestekoa dela ikasleen artean eztabaida publikoa egitea. Bestalde, jakinarazi dute asteburuan prozesu horren gainean onartutako kontra-adierazpenarekin bat egiten duela.

Eguena, hilaren 6a, izango da mobilizazio egun nagusia, baina ikasleek erabaki dute astelehenetik egubakoitzera bitartean HUHEZIn itxialdia egitea.

Hainbat berbaldi antolatu dituzte. Paul Nicholsonek, Mikel Sotok, Iñaki Antiguedadek eta Martxelo Otamendik euskal curriculuma, azpiegitura erraldoiak, estatu bako nazioak eta beste izango dituzte berbagai. Horrez gain, bertso-afariak, antzezlanak, kontzertuak... egingo dituzte.

Eguenean, berriz, manifestazioa eta hainbat ekitaldi egingo dituzte Arrasaten.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

HERRIGINTZA > KULTURA ETA KIROL FOROA

# Aurten Herri Egunik ez egitea erabaki dute

## Kultura eta kirol arloetako 15 talde baino gehiagok osatu dute herritarren foroa

## Herritarren harremanak estutzea eta elkarlanean ekimenak antolatzea da foroaren helburua

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Urtarrilean jarri zuten abian kultura eta kirol foroa. Urtarrilean bertan bilera egin zuten kultura eta kirol elkarteekin; eta beste batzar bat otsailean.

Foro horren helburuak dira: kultura eta kirol taldeekin eta bertan jarduten duten antzuolarrekin harremanak estutzea eta elkarlanean ekimenak antolatzea eta bultzatzea.

Kirol arloan daude Lokatza eta Aiastui txirrindulari taldeak; Antzuola Kirol Elkartea; Arrola mendi elkartea; gimnasia erritmiko taldea; eta Olalde pilota elkartea. Kultura eta gizarte atalean, berriz: Anelkar; trikitilariak; musika eskola; txistulari taldea; abesbatza; Pausoka guraso elkartea; Idolaz euskara elkartea; Mairuaren Alardearen elkartea eta Oinarin dantza taldea.

Talde horietaz gain beste zenbaiti ere egin diete dei foroan parte hartzeko.

**HERRI EGUNIK EZ**
Lehen batzarrean Herri Eguna edo antzerako ekimenen bat antolatzea aurreikusi zuten.

Juan Luis Aranburu Udal Kultura teknikariak jakinarazi digunez, "taldeetako ordezkariek begi onez ikusi zuten Herri Eguna antolatzeko proposamena. Denek azpimarratu zuten herria dinamizatzeko beharra, eta denen artean zerbait antolatuz gero herriaren onerako izango litzatekeela esan zuten".

Bigarren batzarrean, ordea, hiru taldetako ordezkariak baino ez ziren izan. Eta erabaki zuten aurtengoz, behintzat, Herri Egunaren proiektua bertan behera lagatzea.

Horren arrazoia da maiatzean auzoetako jaiak hasten direla eta uztailean, berriz, herrikoak. Beraz, ez zuten aukera eta denbora nahikorik ikusi aurrez ezer antolatzeko.

**JAIAK BULTZATU**
Herri Eguna bertan behera laga arren, foroan erabaki zuten jaiek, bai auzoetakoek eta baita herrikojaiek ere, bultzada behar dutela eta herriko ekimenekin bete eta dinamismo handiagoa eman behar zaiela.

Hurrengo jaiak San Isidrotan izango dira, maiatzean, eta azoka gertatzeaz Udala arduratuko da. Horren ostean Ondarreko eta Kalebarrengo jaiak izango dira eta asmoa da foroa Aste Santu ostean elkartzea, ahal izanez gero jai horietarako kultura eta kirol ekintzak antolatzeko.

EUSKALTZAINDIA

# Toledoren sarrera hitzaldia udaletxean

## Batzar aretoa txiki geratu daitekeenez, arkupeetan pantaila ipintzeko asmoa dute

I.A. > ANTZUOLA
Iaz, urriaren 21ean, izendatu zuten euskaltzain oso Ana Toledo antzuolarra. Juan San Martin zenaren lekua hartu zuen. Proposamena egin zutenean, San Martinen eskualde eta euskalki berekoa, Euskaltzaindiko literatura batzordeko kidea eta unibertsitateko irakaslea izatea hartu zituzten kontuan, besteak beste.

Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia uztailaren 20an izango da udaletxean. Ekitaldira euskaltzainak, kultura eta unibertsitate arloetako jendea, politikariak... joango direnez, aretoa txiki geratuko den beldur dira; beraz, arkupeetan pantaila ipintzeko asmoa dute.

Hitzaldian euskal literatura izango du hizpide.



ANE ALBERDI

# Gazte txokoko neska-mutilak Ezkarain izan ziren eskiatzen

Joan zen asteburuan Errioxako Ezkarai herriko eski estazioan izan ziren gazte txokoko 25 neska-mutil hiru begiralerekin.

Eski estazioaren 25. urteurrena zela-eta, eskiatzeaz gain hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera izan zuten gaztetxoek. Gainera, eguraldi ona izan zuten lagun.

Gazte txokoan beste zenbait ekintza ere antolatu dituzte. Datorren hilaren amaieran txalaparta ikastaroa izango dute; eta oraindik zehazteke badago ere, uda bitarteko asteburu batean bi eguneko irteera egitekotan dira.

Bitartean, besteak beste, gazte txokoa margotzeko aprobetxatuko dituzte asteburuak.

> MANIFESTAZIOA

### Autobusa antolatu dute zapatuko manifestaziorako

Bihar, apirilak 1, manifestazioa izango da Bilbon, 17:30ean, Aita Donostia plazatik abiatuta. *Konponbide garaia da. Euskal Herria. Erabakia. Adostasuna* lelopean, manifestazioaren helburua konponbide demokratikoaren aldeko indarrak biltzea da. Antzuolako ELAk, LABek, Zutik-ek, EAk, Batasunak eta zenbait eragilek autobusa antolatu dute Bilbora joateko. Autobusa 15:30ean irtengo da Altzarte paretik.

> AISIALDIA

### Domekan 'Alex & Alexis' filma emango dute Olaran etxean

Ohiko zinema emanaldia izango da domekan, apirilaren 2an, Olaran etxean, 16:30ean. Haur eta gaztetxoendako *Alex & Alexis* filma emango dute oraingoan. Filma ikustera gerturatzen direnak Erdi Aroan murgilduko dira Alexen eta Alexisen eskutik. Hala, historiako garai hartako jendea, bizimodua, arazoak... ezagutzeko aukera izango dute. Hurrengo filma, apirilaren 9an emango dutena, *Rudi txerria* izango da.

> ELKARTASUNA

### Saharako umeak udan etxean hartzeko laguntzak

Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzak eta Sahara Herriko Lagunen Elkarteek Oporrak Bakean Programa antolatu dute. Honen bidez, Saharako umeak oporrak pasatzera ekartzen dituzte Euskal Herrira. Antzuolako Udalak Saharako bi haurren bidaia ordaintzeko konpromisoa hartu du. Saharako ume bat etxean hartu nahi dutenek Udaleko gizarte zerbitzuetara jo beharko dute lehenbailehen.

> INFORMATIKA

### Apirilaren 6an ikastaroa izango da KZgunean

Apirilean bi egunean bisitatuko du KZgunea tutoreak: apirilaren 6an eta 20an, hain zuzen ere. Arratsaldez egongo da bertan, 16:00etatik 20:00etara. Egun horietan mintegiak izango dira. *Aurkitu zure liburua* izenburupean egingo dute lehen mintegia egun horretan, 17:00etatik 18:00etara. Hurrengo mintegia apirilaren 20an izango da, 18:00etatik 20:00etara. Gaia *Etxetik eros ezazu* da.

**UDALTALDE 21** > IRAUNKORTASUNAREN GAINEKO GALDEKETAREN EMAITZAK

# Etxebizitza, drogak eta oinezkoen guneak, elgetarren kezka nagusi

Herritarrek Elgetarekiko duten asebetetze maila 4tik 3,16 puntukoa da

Galdetutakoen %67 ibilgailu pribatuan mugitzen dira; batez ere lanera joateko



**ETXEBIZITZA** Elgetarren kezka nagusiak dira etxebizitzarako sarrera, haren kalitatea eta prezioa. I.A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Elgetarrek iraunkortasunaren gainean duten iritzia jasotzeko telefono bidezko inkesta egin zuten Udaltalde 21 planaren barruan. Horrela, aztertu nahi izan dute eskualdearekiko eta herriarekiko duten asebetetze maila; bai bizi izateko eta baita lan egiteko gune moduan ere.

1etik 4ra bitarteko puntuazio eskalan batez beste 3,16 puntu eman dizkiote herriarekiko poztasun mailari; eskualdearekikoari, berriz, 3,2 puntu; oro har, beraz, pozik daude elgetarrak.

**KEZKAK**
Herritarrak gehien arduratzen dituzten gaiak honakoak dira, hurrenez hurren: etxebizitza; drogak; oinezkoendako guneak; gazteendako zerbitzuak; turismoa; eskola porrota; nekazaritza eta abeltzaintza sektoreen egoera; garraio publikoa; merkataritza; eta ezberdintasun sozialak eta pobrezia.

Aipatzekoa da gai horien inguruan euren ohiturak aldatzeko elgetarrek azaldutako prestutasuna eskualdekoena baino baxuagoa dela. Hala ere, bada salbuespenik: iraunkortasunaren gaineko bileretan parte hartzeko prestutasun mailan.

Mugikortasuna da galdeketa horretan aztertutako beste puntu bat: bada, galdetutakoen %67 ibilgailu pribatuan mugitzen dira; oinez %30; eta autobusez %3 baino ez. Desplazamendu gehienak lanarengatik dira (%47), baina erosketak dira mugitzeko beste arrazoi bat (%13).

> KIROLA

### Goñi, Medina, Ubera eta Zezeaga frontoia inauguratzeko

Apirilaren 8an inauguratuko dute frontoia, berrituta. Partidu nagusian Mikel Goñik eta Medina mexikarrak Ubera elgetarraren eta Zezeagaren aurka jokatuko dute. Partidua 18:45ean izango da. Aurrez pala motzeko eta joko garbi modalitateko partiduak ere jokatuko dituzte.

> GAZTEAK

### Sagardotegira irteera antolatu dute apirilaren 8rako

Gaztetxeak autobusa antolatu du apirilaren 8an sagardotegira bazkaltzera joateko. Txartelak Haizean eros daitezke, 35 eurotan. Bestalde, gaur Gaztetxeak Martxan jaia izango da. Kalejira, Jon Plazaolaren bakarrizketa, Dixei Josefinaren saioa eta sorpresa izango dira gauean.

**MUSIKA** > KONTZERTUA ESPALOIAN

# Keu eta Arima Beltza taldeek jardungo dute gaur gauean

Jon Gurrutxagak Arima Beltza taldearekin jardungo du lehenengo, abeslari, eta Keu taldearekin ondoren baterian

**I.A.** > ELGETA
Euskal Herrian kontuan hartzeko Keu rock talde sendoak kontzertua eskainiko du gaur, barikua, Espaloian. Aurrez Elgoibarko Arima Beltza taldeak blues elektriko eta rock doinuak eskainiko ditu. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrerak sei euro balio du; bazkideendako lau euro.

*Heltzear diren egunak* diskoa aurkeztuko du Keuk Espaloian. Keu Jesus Mari Agirretxea da: Ondarroako gitarra jotzailea, euskal rockaren barruan curriculum garrantzitsua duena. Etsaiak taldeko kidea eta gitarra jotzailea izan da, baita Fjord proiektuaren fundatzailea ere. Lan horretan, Keuk berak abestu eta gitarra jotzen du. Etsaiak eta Fjord taldeetako Mikel Arakistain baxu jotzailea eta Jon Gurrutxaga Arima Beltza taldeko abeslaria, kasu horretan baterian, izango ditu lagun. 70eko hamarkadako hardrocka, rock melodikoa eta erritmo biziak tartekatuko dituzte.

**ELGOIBARTIK BLUES ETA ROCKA**
Bira horretan Arima Beltza talde elgoibartarra hartu du lagun Keu taldeak. Seikotea osatuz Jon Gurrutxaga (ahotsa), Aitor Badiola (gitarra), Elur Arrieta (bateria), Patxi Zabaleta (gitarra), Iñigo Araujo (baxua) eta Joseba Alonso (aho soinua) izango dira taula gainean.

Elgoibartarrek *Mundurako Ateak* azken laneko kantuak joko dituzte batik bat, baita aurreko lanetako abestiak ere.

**ERAKUSKETA ETA ZINEMA**
Kontzertuez gain, Espaloian izango da bestelako kultura eskaintzarik ere. Gari Garaialde argazkilariak surfaren gaineko erakusketa ipini du ikusgai.

Bestalde, ohiko zinema emanaldiak ere izango dira. Apirilaren 5ean, Pink Floyd taldearen *The wall* film musikala emango dute 21:30ean. Aipatu behar da familiarendako film emanaldiek etena egingo dutela uda ostera arte; izan ere, eguraldi ona hastearekin batera ikusle kopuruak behera egin du.

bere ustez



Beatriz Zabalondo

## Udaberriak argitu du ortzia

Ainhoari egun batetik bestera amaitu zitzaion haurtzaroa, udalekuetatik itzuli zen egunean. Ez zen konturatu orduan. Ahizpa zaharrak emandako azalpenak ahanzturan gorde zituen, ulertu barik.

Asteak aurrera eta egunak moztera egin zuen udagoienak: ohartzen hasi zen jendea falta zuela familian. Lehen aldiz negarrez ikusi zituen guraso nagusiak. Zergatik, juxtu, ez jakin baina. Izu latz bat barneratu zitzaiola, horixe.

**"Zalapartatsuak diren haurrak mutu bihurtzen dira gainezka egiten dienean minak"**

Negu luze ia etengabean koskortu zen neskatila gero. Gaztaroan sartu arte ez zen gai izan, ez iluntasun hartaz inorekin hitz egiteko, ez bere buruari sosegu emateko. Azalpenak azalpen, ez zegoen etxekoen huts hura betetzerik: ez aipatuta hobe.

Hogeitaka urte igaro ondoren ohartu da ahizparen ahaleginaz, hitzei zerien maitasun minberatuaz. Esker oneko zaio hain gozo hartu zuenari.

Berez hain zalapartatsuak diren haurrak mutu bihurtzen dira gainezka egiten dienean minak. Nork azalduko die samur-samur martxoaren 22ak ekarritako udaberriak betiko argituko duela etxeko ortzia?

((112)) SOS DEIAK

**INGURUMENA** > BASO-ZIURTAGIRIA

# Baso-ziurtagiria eskuratzeko ahalegina

Udalak eskuratu nahi du baso-ziurtagiria, egurraren kalitatea ziurtatzeko

Hori lortzeko, besteak beste, udalerrian dituen zuhaitzen ezaugarriak aztertu beharko ditu

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Baso-ziurtagiria Estatuko Gobernuak ematen du. Izenak esaten duen moduan, ziurtagiri hori da label moduko bat, egurraren gainekoa; ziurtatzen du egur hori datorrela modu iraunkorrean kudeatutako baso batetik; hau da, ingurumena babestuta hazitako zuhaitzetik datorrela.

Baso-ziurtagiria eskuratzea boluntarioa da. Horren ondorioz, agiri hori eskuratzeko interesa norberak erakutsi behar du, eta gero, agiria lortzeko eskaera ere norberak egin beharko du.

**ORDENAZIOA BEHAR**

Eta kasu horretan, lehen esandako moduan, Aramaioko Udalak agiri hori eskuratu nahi du, alkateak esan digun moduan, "iraunkortasuna (jasangarritasuna) lantzeko; izan ere, agiria lortzeko, besteak beste, egin behar dugu udalerrian dugun zuhaitz-taldeen gaineko kudeaketa plana; eta Udalean ikusi dugu nolabaiteko programazio beharra badugula. Hala, kudeaketa planaren bitartez aztertuko dugu gure mendietan zein zuhaitz sartzea komeni den, zela zaindu behar diren zuhaitzok, eta gero, zela atera behar ditugun, hori guztia ingurumena zaintzeko neurriak kontuan hartuta". Errentagarritasunaren aldetik ere komenigarria dela esan digu alkateak. "Garantia moduko bat da, ingurumenaren aldetik ez ezik, baita errentagarritasunaren aldetik ere; izan ere, modu horretan, merkatuari begira, material hobea eskuratuko dugu".

**PROZEDURA**

Hala, orain, kudeaketa plana enkargatuko du Udalak. Hain zuzen ere, alkateak jakinarazi digu oraingo astean bertan elkartu direla baso kudeaketa iraunkorraz arduratzen den Basalde erakundearekin plana lantzen hasteko. Behin hori egin ostean, ikusi behar dute ea planak UNE arauak betetzen dituen (ingurumenarekin lotutakoak), eta, hala bada, horren ostean Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio guztia, haren onespena jasotzeko.

**GEHIENA, PINUA**

Gaur egun, Aramaioko Udalak 565 hektarea baso ditu Aramaion. Denetariko zuhaitzak ditu landuta, baina gehienak pinuak dira, zuhaitzen %60. Erabilerari dagokionez, berriz, zuhaitzen egurra saldu egiten du, irabaziak eskuratzeko.

Bestalde, Udaletik jakinarazi digutenez, Udalaz gainera, Aramaioko bestelako jabe partikular batzuk ere badabiltza baso-ziurtagiria lortu nahian.



**ERAKUSKETA** Egurrezko objektuekin erakusketa ipini dute liburutegian . U.M.

**ESKOLA** > EGUR ASTEA LANDU DUTE

## Egurraren gainekoak ikasi dituzte eskolakoek

Besteak beste, erakusketa, Zuhaitz Eguna eta hitzaldiak izan dituzte aste osoan

**U.M.** > ARAMAIO

Martitzenean zabaldu zuten liburutegiko erakusketa San Martin Eskolakoek. Egurrez egindako tresnak etxetik ekarri eta azalpentxo batek lagunduta ipini dituzte: sukaldeko tresnak, jostailuak, atzerritik ekarritakoak, bastoiak... Hala, gelaka banatuta, eskolako ikasle guztiek ikusi dute asteon. Gurasoendako ere zabaldu dute erakusketa, pare bat egunez.

Erakusketaz gainera, eta kasu horretan ere taldeka banatuta, zuhaitzak landatu dituzte Andra Marin eta kanposantu zaharrean: haritzak, astigarrak eta pentsamenduak, besteak beste.

Eta borobiltzeko, hiru aditu joan zaizkie eskolara hitzaldiak egitera: Jesus Mari Elexalde eta Santi Elexalde aramaioarrak, batetik, eta Jabier Mugurutza idazlea, bestetik.



ROSA MONDRAGON

## 21en artean, sei lagun irabazle ipuin lehiaketan

Kultura etxean ekitaldia egin zuen Txirritola Euskara Elkarteak ipuin lehiaketako sariak banatzeko. Ekitaldiaren ostean, berriz, irabazleei argazkia atera zieten Txirritolako presidente Txema Abarrategirekin. Honako hauek dira irabazleak: DBH mailan, Bea Azurmendi garaile eta Aratz Amenabar bigarren; LHko hirugarren ziklokoen mailan, Maider Aldaik irabazi zuen eta Eider Vallina izan zen bigarren; eta gaztetxoenen artean, Jokin Larrañagak irabazi zuen eta Celia Ruiz izan zen bigarren.

> MENDI IRTEERA

### Aiako Harriak ikustera eta gero, sagardotegira

Orixol Mendi Elkarteak antolatuta, apirilaren 8an egingo dute txangoa Aiako Harriak bisitatzera. Asmoa da 08:00etan ateratzea Aramaiotik, Aiara joatea eta gero sagardotegira, bazkaltzera.

Interesa duenak apirilaren 4a baino lehen eman behar du izena. Bidaia 35 euro kostako da, bazkari eta guzti. Edozelan ere, badago aukera janaria etxetik eraman eta sagardotegira joan barik geratzeko. Kasu horretan, 12 euro ordaindu beharko dira.

> ZARATAK

### Motorrak kalean gora eta behera, zarata sortzen

Kexua iritsi zaigu oraingo astean, Aramaion izaten diren "zarata desatseginak direla-eta". Irakurle batek zera adierazi digu: "Aspaldi honetan, motor zaratatsu horiek (ihes-hodi libreekin ibiltzen direnak) kaleetan gora eta behera egun guztian ibiltzen dira (jolasten)". Hala, horren aurrean, zera eskatu nahi die motordunei: "Biziki eskertzekoa izango litzateke beste leku batzuetara joango balira zarata ateratzera, Aramaioko kaleak horretarako ez baitira". Bada, esanda geratzen da.

ARRIETA & SAN MIGUEL
INMOBILIARIA-AGENTZIA
API
Iturriotz 23 - Arrasate
Tel.: 943 71 17 81



**ARAMAIO**
**Uribarri-auzoa - Gureia.**
Etxebizitza salgai, etxe bikoitz baten alde bat. 260 m2 erabilgarri inguru. Hiru solairu ditu. Txokoa, garajea, teniserako pista. 3.000 m2-ko lursaila. Bista paregabea. Leku lasaia.

GARRAIOA > GAU-TXORIAREN ZAIN

# Hil honetan bertan zehaztuko du Aldundiak gau-txoria izango duten edo ez gazteek

Lehenengo pausoa herrian markesinak jartzea izango da, eta ondoren Pesarekin hitzartu beharko du zerbitzua Aldundiak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Garraio batzordeak otsailean helarazi zion idatziari erantzun dio Aldundiak. Hura eta komunikabideetan azaldutakoak hartu ditu kontuan, gogorarazteko herrian egin diren lan guztiak Aldundiaren laguntzarekin.

**MARKESINAK JARRI BEHAR**

Garraioak kezkatzen ditu, baina, gatzagarrak azken hilabeteotan, eta gau-txoriaren zerbitzua izan dezakete laster herrian. Urtebeterako egin zuen gau-txoriaren hitzarmena Aldundiak Pesarekin, eta oraintxe berritu egin behar du. Hori horrela, Gatzagaraino joateko eskatuko diotela esan zion Koldo Azkoitiak Joxerra Perez alkateari. Erantzuna, hala ere, entzuteko dago oraindik, eta asteon jasoko du alkateak.



TAXIA Oraingoz ez dago aldaketarik taxiaren zerbitzuan. M.A.

Arazoa konpontzen joango den itxaropena eman ziola Koldok adierazi du alkateak, baina lehenengo herriko lanak bukatu beharko dituztela: "Autobusa herrian geratzeko markesinak jarri beharko ditugu, bata Ostatu alboan, eta bestea frontoi azpian, eta gero Pesarekin egingo dugu berba".

Garraio batzordea astean bilduko da Aldunditik jasotako erantzuna baloratzeko, baina zehaztasun gutxi datozela uste du.

> HIRIGINTZA

## Soran jauregia saltzeko dei egin du Udalak eta 73.000 eurotan ezarri du gutxiengo prezioa

Santiago kaleko 3. zenbakian dagoen Soran jauregia saldu egin gura du Udalak, zaharberriteko. Lehiaketa bidez salduko du eta gutxiengo lizitazio prezioa 73.000 eurotan ezarri du. Martxoaren 14an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen saltzea eta agiriak gura dituenak Gatzagako udaletxean eskatu behar ditu. Bestalde, martxoaren 29ko GAOn argitaratu zuten iragarkia eta apirilaren bukaera arte izango dute interesatuek eskaerak aurkezteko epea.

> IRTEERA

## Goizeko 09etan atera eta egun-pasa bikaina egingo dute Gureleko kideek Urbasan

Urbasara irteera egingo dute Gurel guraso elkarteko kideek. Ez dute autobusik antolatu eta norberaren automobilean joango dira. Gainera, familia bakoitzak bere bazkaria eramango du gero Urbasako basoan jateko. Hala ere, kanpina dago joango diren lekutik gertu eta eguraldi eskasa eginez gero hara joango dira bazkaltzera edo kafea hartzera. "Izena emateko dei egin dugu, baina badakigu eguraldiaren arabera jende gehiago edo gutxiago etorriko dela", dio Itsaso Egino elkarteko presidenteak.

> INTERNET

## Posta elektronikoa zela eta zertarako erabili erakutsiko dute KZgunean apirilaren 24an

Datorren hilabeteko ikastaroa dagoeneko antolatuta dauka Gatzagako KZguneko arduradun Aitor Madrided. Posta elektroniko bidez zela jarri harremanetan beste batzuekin erakutsiko die apirilaren 24an, astelehena, 18:00etatik 20:00etara bitartean KZgunera doazenei. Euskaraz izango da aipatutako ikastaroa, eta hara joan gura duenak aurrez eman beharko dio izena Aitziber Gorosabeli KZgunean bertan.

Marrazki bizidunak

POPEYE, CARDCAPTOR ETA SNORKDANCE

Astelehenetik egubakoitzera
13:20ean eta 20:15ean

Zapatuan eta domekan
08:00etatik 11:00etara

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!





**TXAPELKETA** Euskadi osotik etorritako 120 neska-mutil inguruk hartuko dute parte Euskadiko Karate Txapelketan, zapatu arratsaldean Bergaran. ARTXIBOA

**KARATEA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Espainiako Txapelketara nor doan Bergaran erabakiko dute

## Euskadi osotik etorritako 120 neska-mutil inguruk parte hartuko dute txapelketan

## Kata eta kumite modalitateetan parte hartuko dute hiru mailatako karatekek

**JOKIN ETXEBARRIA** > BERGARA

Karatea ikusi ahal izateko, ez dugu zertan zinemara joan Jackie Chan edo Bruce Leeren filmen bat ikustera. Izan ere, zapatu arratsaldean karatekaz beteko da Bergarako Labegaraieta kiroldegia. Hala, alebin, infantil eta gazte mailetako Euskadiko Txapelketa jokatuko da 16:30ean hasita eta 120 neska-mutil inguru gerturatuko dira, debagoiendarrei Euskadin ere karatea praktikatzen dela erakusteko asmoz.Baina ez horretara bakarrik. Izan ere, ez da nolanahiko txapelketa jokoan dagoena: Bergaran irabazle gelditzen direnek Euskadiko selekzioarekin Madrilen jokatuko den Espainiako Txapelketan parte hartzera joateko txartela lortuko dute-eta. Beraz, karatekek dakiten guztia ematera irten beharko dute Labegaraietako parketera.

Bi modalitate ezberdin ikusteko aukera izango dute gerturatzen direnek: kata eta kumitea. Kataren bitartez, karateak erasoan eta defentsan erabiltzen dituen mugimenduak erakutsi beharko dituzte lehiakideek. Kumitearen bitartez, berriz, batak bestearen aurka borrokatu beharko du. Horrenbestez, karatean ikus daitezkeen bi modalitate ikusgarrienetan lehiatu beharko dute Labegaraietara gerturatzen diren neska-mutil guztiek.

**LEHENENGOZ BERGARAN**

Gure herrietan noizean behin ikusi ahal izan dira karate erakustaldiak, baina txapelketak ikustea zailagoa izaten da. Mota horretako txapelketak, normalean, hirietan jokatu ohi dira. Hala ere, Bergarako Shotokan karate taldekoek lan handia egin dute herri txikietan ere horrelako txapelketak ikusi ahal daitezen, eta azkenean, Euskadiko Txapelketa Bergarara lehenengoz ekartzea lortu dute.

**DEBAGOIENEKO KARATEKAK**

Debagoienean ere bada denbora bat karatea zabaltzen hasi zela. Horren adierazle da gure ibarrean dagoen karate talde kopuru handia.Eta noski, Euskadiko Txapelketa horretan ezin ziren falta gure ordezkariak. Gipuzkoako Txapelketan lan bikaina egin eta gero hamar bergararrek hartuko dute parte zapatuko txapelketan.Baina ez dira gure ibarreko bakarrak izango, Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako gaztetxoak ere bertan izango dira-eta, Euskadiko selekzioan leku bat topatzeko lehian.

**TXIRRINDULARITZA**

# Tropela ez da gure ibarretik pasako

## Euskal Herriko Itzulia aurten ez da Debagoienetik igaroko

**J.E** > BERGARA

Astelehenean hasiko da Euskal Herrian, Donostiako Klasikoarekin batera, antolatzen den UCI-Pro Tourreko lasterketa bakarra. Eta aspaldiko partez tropelak ez ditu Debagoieneko lurrak zapalduko. Euskal Herriko Itzuliaren 46. edizioak Irunen izango du hasiera, eta bost egun geroago, apirilaren 8an emango diote txirrindulariek amaiera Zallan.

Duela bi urte Bergaran hasi zen lehen etapa, eta iaz, Oñatik eman zion amaiera itzuliari. Aurten, berriz, ibarreko txirrindu-zaleek Legazpi edo Zumarragara jo beharko dute ziklistak animatzera. Izan ere, tropela Debagoienetik gertuen bi herri horietatik pasako da.

**ALDAKETA NABARIAK**

Bereziki bi aldaketa nabarmen daitezke ibilbidean: UCI-Pro Tourrak behartuta, bi sektoreko etapa kendu egin behar izan dute antolatzaileek. Hori dela eta, etapa bat gehiago izango du aurtengo edizioak; bostetik sei eguneko lasterketa izatera pasako da. Eta nolabait horrekin lotuta, bigarren aldaketa hauxe da: azken egunean aspaldiko erlojupekorik luzeena ikusi ahal izango da.

Sei egun horiek gogortasuna dute ezaugarri. Lehen etapan Iruneko helmugatik gertu Erlaitz eta Jaizkibel mendateak igo beharko dituzte txirrindulariek. Martitzenean 11 mendate pasa beharko dituzte Segurara heltzeko. Hirugarren etapa Lerinen, Nafarroan, amaituko da. Laugarrena Gasteizen eta azken biak Zallan.

Gure Ametsa Jatetxea







· Ezkontzatarako areto handi eta erosoak
· Aparkaleku pribatu handia
· Aperitiboendako terraza
· Sukaldaritza zaindu eta paregabea
· Aurrekontu guztietarako menuak

Leintz Gatzaga Tel.: 943 71 49 52



**AITOR ORTUETA** > 'FREESTYLE' ESKIATZAILEA

# “Eskiekin 'freestyle' egiten lehen generazioa gu gara”

Txapelketetan Aitor podiumean aurkitzea ohikoa den arren, ez du zaletasuna ofizio bihurtu nahi

**JOKIN ETXEBARRIA**> ARRASATE
*Freestyle* edo estilo librea entzuterakoan zorakeria hitza etortzen zaigu bati baino gehiagori burura. Aitor Ortueta (1982) arrasatearrak lau urte inguru daramatza eski mota hori praktikatzen, eta jendeak zorakeria dela pentsatzea normala dela dio: “Azkenean, zorakeriak egiten ausartzea da *freestyle*”. Motorrean modalitate hori ikustera ohituagoak gaude. Gasteizera eta Bilbora etorri izaten dira euren motorrekin saltoak egitera. Eskian, ordea, ez gaude horren ohituak. Snow munduan zerbait gehiago, Turineko Olinpiar Jokoetan ere ikusi ditugulako *half-pipe* deritzon hodi erdian saltoak egiten. Baina eskiekin horrelakoak egitea ez omen da horren normala: “Snowean estilo hori zaharragoa da, baina eskiekin *freestyle* egitea nahiko berria. Lehenengo generazioa gu garela esan daiteke”.

Gauza gehienak bezala, moda edo eskia praktikatzeko modu hau Ameriketako Estatu Batuetatik dator, “snow mundutik, hain zuzen”. Hala ere, eskiekin salto mota horiek berdin-berdin egin daitezkeela baieztatzen du Aitorrek. “Egia esan, nik snowa egiten duten pertsonekin ikasi nuen saltoak egiten, eta orain ere, normalean haiekin ibiltzen naiz”.

**TRADIZIONALETIK 'FREESTYLE'-RA**
Txikitatik praktikatu du eskia Aitor Ortuetak. Hasieran, baina, eslalon eta erraldoian lehiatzen ibiltzen zen. “Hala ere, betidanik gustatu zait lehiaketetatik paso egin eta pistetatik kanpo ibiltzea”. Arrasateko lagunekin askotan joaten zen eskiatzera, eta duela lau urte, lagunekin saltoak egiten zebilela, pertsona batek Andorran egiten zen txapelketa batera joateko gomendatu zion. “Bertara joatea erabaki nuen eta hirugarren gelditu nintzen”. Handik aurrera babesleak atzetik eduki ditu Aitorrek. Gaur egun, Grandvalira, Dynastar, Spyder, Eassun eta Protest markek babesten dute.

Txapelketetan oso ondo ibili da azken urteotan arrasatearra. Hasiera-hasieratik atentzioa eman izan du: “Nahiko erraza da ondo ibiltzea. Estatuan ez dago jende askorik kirol mota hori praktikatzen dugunak, eta apur bat nabarmentzen bazara podiumean bukatzen duzu”.

**ZALETASUN SOILA**
Txapelketetan horren ondo ibilita, normalena kirol hori ofizio moduan izatea litzateke. Hala ere, eta eskiarekin lanean ibili bada ere, Aitorrek ez ditu ateak itxi nahi; are eta gutxiago udan susto galanta eduki eta gero: “Ez dut ofizio bezala ikusi nahi. Ofizioa izanik azkenean aspertu egingo nintzateke eta mendira eskiatzera joatea betiko zaletasuna izatea gurako nuke”.

VANCOUVER 2010

## 'Freestyle' eskia hurrengo Neguko Olinpiar Jokoetan

Turinen jokatu diren azken Olinpiar Jokoetan ikusi ahal izan dugu snowean hodi erdian *freestyle* praktikatzen. Eskiekin, ordea, modalitate berria denez, ez da horrelakorik ikusi. Hala ere, gutxika-gutxika eskiaren munduan sartzen dabilen modalitatea da *freestyle*, eta litekeena da Vancouverren jokatuko diren Olinpiar Jokoetan eski klase hori ikusi ahal izatea. Nork daki, agian, 2010eko Olinpiar Jokoetan arrasatear bat ikusiko dugu domina bat eskuratzeko lehian.



**BIDAIAK** Ia astebururo joaten da Aitor eskiatzera. JOKIN ETXEBARRIA

# Eskola kirola ere irakasle ona da

Eskola kirolaren eredua bat dator ikastetxeen ildoarekin; balio berberak erakusten dituzte

Eskola Kirolak inon baino arrakasta handiagoa du EAEn eta bereziki Gipuzkoan. Horrela, eskola kirolaren Gipuzkoako ereduari buruzko hausnarketa prozesuak indarra hartu du azken urtean. Besteak beste: EAEn eskola kiroleko dekretu berria kaleratzear dago eta Gipuzkoako hainbat elkarte kirol hastapenaren inguruko proposamenak egiten dabiltza.

**IKASTETXEEKIN BAT**
Eskola kirolaren bilakaera urtez urtekoa izan da eta emaitza da ikastetxeen ildoarekin bat egiten duela.

Oinarrizko lau puntutan ikus daiteke hori garbi: eskola kirola hezigarria da. Ikaslearen arlo guztiak kontuan hartzen dira ikastetxeetako hezkuntza proiektuetan, eta onura fisikoak eragiteaz gain, onura psikologikoak, sozialak eta afektiboak ere eragin behar dizkio kirolak; bigarrenik, parte-hartzailea da. Ikasle guztiek dute ikastetxeetan ikasteko eskubidea eta eskola kiroleko ekintzetan ere ikasle guztiek izan behar dute parte hartzeko aukera, sexua, arraza, kultura, sinismena, gaitasuna, trebetasuna eta bestelako bereizketak aberasgarri izan daitezen; hirugarrenik, kirol-aniztasuna ere begi-bistakoa da. Ikaslearen ezagutza mailatik abiatzen da irakaskuntza, eta aniztasunarekin, esanguratsua egin nahi zaio ikasketa ikasleari. Eskola Kirola ere askotarikoa da zentzu guztietan; azkenik, kirol-kultura lortu gura dute bai ikastetxeek bai eskola kirolak, balioen lorpenerako oso tresna baliagarria da-eta kirola.

**GURE ESKOLA KIROL EGITURAK**
1990ean argitaratu zuten Eskola Kirola Dekretua Euskadin. 16 urte hauetan hiru eskola kirol batzorde sortu dira eskualdean: Oñatikoa, Bergarakoa eta Leinzkoa. Hirurek gura dute eskola kiroleko programa hezitzaile, parte-hartzaile, askotarikoa eta kulturala eskualderako. Ezinbestekoa dute ikastetxeen, kirol elkarteen eta udalen laguntza eta hezkuntza ikuspegia bermatu gura dute, eskubidea delako.



**KIROL PROGRAMAK** Eskualdean ere sortu dira eskola kiroleko egiturak.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Gazte mailako Euskadiko Liga**
S.D. Lengokoak- Aloña M.
Domeka. 11:30. Cesar Benito.

**Preferente maila**
Zestoa- Mondra
Zapatua. 16:30. Zubiaurre.
Aloña Mendi - Trintxerpe
Domeka. 16:30. Azkoagain.
UDA - Berio
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Bergara - Zumaiako
Zapatua. 16:45. Agorrosin.

**Bigarren erregionala, igoera fasea**
Ikasberri - Antzuola
Zapatua. 17:15. Garmendipe.

**Ohorezko mailako gazteak**
Eibartarrak - Mondra
Zapatua. 17:30. Unbe.
Aretxabaleta - Hondarribia
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Bergara - Zarautz
Zapatua. 18:45. Ipintza.

**Lehen mailako gazteak**
Oiartzun - Bergara
Zapatua. 17:45. Ugaldetxo.
Segura - Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Alustiza.
Antzuola - Eibartarrak
Zapatua. 15:45. Estala.

**Bigarren mailako gazteak**
Arrasate - Axular
Domeka. 12:00. Atxabalpe.

**Kadeteen ohorezko maila**
Bergara - Eibar
Domeka 11:30. Ipintza.
Kostkas Miren - Aloña Mendi
Domeka. 12:30. Matigoxotegi

**Kadeteen lehenenego maila**
Arizmendi Aretx. - Idiazabal
Zapatua. 11:30. Ibarra.
Arrasate - Euskladuna
Domeka. 10:00. Atxabalpe.

**Kadeteen bigarren maila**
Arizmendi Aretx. - Behobia
Zapatua. 15:30. Ibarra.
Bergara - Zestoa
Zapatua. 11:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako infantilak**
Aloña Mendi - Aurrera Ond.
Domeka. 11:30. Ibarra.
Beasain -Arizmendi Aretx.
Zapatua. 15:30. Igartza.

**Infantilen lehenengo maila (igoera fasea)**
Bergara - Herrerako Sport.
Zapatua. 10:00. Ipintza.
Arrasate - Sto. Tomas Lizeoa
Zapatua. 12:00. Atxabalpe

**Infantil txiki (txapeldunen fasea)**
Arizmendi Aretx. - R. Union
Domeka. 12:00. Ibarra.

**Emakumezkoen Liga, igoera fasea**
Arizmendi Aretx. - R. union
Zapatua. 15:30. Almen.
Intxaurdi - Bergara
Zapatua. 17:30. Cesar Benito
Mondra - Gasteiz Cup
Domeka. 16:30. Atxabalpe.

**Emakumezkoak, kadete maila F8**
Aloña M. - Arizmendi Aretx.
Domeka. 10:00. Ibarra.
Ordizia - Arizmendi Arrasate
Domeka. 09:45. Altamira.

### ARETO FUTBOLA

**Nazional B maila**
Eskoriatza - Altamira
Domeka. 17:00. Eskoriatza.

**Gazteen nazional maila**
Gaztelueta - Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Gaztelueta.

**Gipuzkoako liga**
Aloña Mendi - La Bellota
Egubakoitza. 22:30. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
UDA Mercedes - Zarautz
Zapatua. 16:00. Aretxabalet.

**Gazte maila**
Deustche Schule - Eskoriatza
Zapatua. 11:00. Deustche S.

### SASKIBALOIA

**Lehen maila**
Mugarri Alkesa -Viajes Marfil
Zapatua. 18:00. Iturripe

**Bigarren maila nazionala (emakumezkoak)**
Eskoriatza - Alde Zaharra
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Gipuzkoako ligako senior maila (gizonezkoak)**
Ametsa K.E. - Candy BKE
Zapatua. 18:30. Ipurua.
Plastic. Urteta - Aloña Mendi
Egubakoitza. 20:40. Zarautz.

**Gipuzkoako ligako junior maila (gizonezkoak)**
Aloña Mendi - Lasao Altzari.
Zapatua. 11:00. Zubikoa
Loyola B. - Mugarri Alkesa
Zapatua. 12:00. Loyola
STL. Azkune - Araneta
Zapatua. 12:45. S. Tomas L.

**Gipuzkoako ligako junior maila (emakumezkoak)**
Aloña Mendi - Aldapeta
Zapatua. 11:00. Zubikoa
Eskoriatza - Zarautz
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)**
Aloña Mendi - Mugarri Alk.
Zapatua. 11:00. Zubikoa.
Lacor - Ordizia
Domeka. 10:00. Bergara

**Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)**
Berritek-Eskoriatza
Domeka. 11:45. Azkoitia.
Salletarrak-Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia

### ESKUBALOIA

**Euskadiko senior maila (emakumezkoak)**
San Adrian-Verkol Aloña
Domeka, 12:15. Bilbo (Errekalde)

**Euskadiko kadete maila (emakumezkoak)**
Verkol Aloña-Aiala Zarautz.
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Euskadiko Txapelketa, igoera fasea**
El Pilar - Ford Mugarri
Zapatua. 17:00. Gasteiz.

**Lehenengo eta bigarren territorial maila, Kopa**
Urnietako - Arrasate
Domeka. 11:45. Urnieta.
Antt Sr - Arrikrutz Oñati
Domeka. 11:45. Olaizaga Kir.
Tolosa - Bergara
Domeka. 12:00. Usabal Kir.

**Gazte mailako Gipuzkoako Txapelketa**
Tolosa - Gatz Museoa
Domeka. 10:30. Usabal Kir.
Elgoibar- Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Olaizaga Kir.
Amenabar Zarautz - Bergara
Zapatua. 19:15. Zarautz.

**Gipuzkoako kadete mailako azken fasea**
Elgoibar - Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Olaizaga.

### ERRUGBIA

**Euskal Liga, igoera fasea**
Arrasate - Zarautz
Zapatua. 16:15. Garagartza.

### PILOTA

**Udaberriko Txapelketa**
Aretxabaleta-Bergara
Finalerdia.
Egubakoitza. 20:00.
Aretxabaleta

**Debagoieneko Txapelketa**
Alebin mailako partiduak
Zapatua, 15:30. Osintxu

**Udaberriko Txapelketa**
Infantil maila.
Bergara-Aloña Mendi
Eskoriatza-Aloña Mendi
Bergara-Arrasateko
Zapatua. 17:30. Osintxu

**Debarroko Txapelketa**
Bergara-Olalde
Gazte maila.
Martitzena. 21:00. Udal Pilotalekua



**Mondrako neskak lehen postuaren bila**
Gasteiz Cup taldeari domekan irabaziz gero, igoera faseko lehenengo postua eskuratu ahal izango dute Zabaloren neskek.



**SENDOTU** Lidertza sendotuko lukete oñatiarrek, Trintxerperi Azkoagainen irabaziz gero. GOIENKARIA

**FUTBOLA**> PREFERENTEA

# Bolada ona berreskuratzen saiatuko da Aloña Mendi

Aitor Oruetaren mutilek Trintxerperi irabazi beharko diote lidertza sendotu ahal izateko

**JOKIN ETXEBARRIA** > BERGARA

Sekulako denboraldia egiten dabil Aloña Mendi. Jokatu dituen 30 partiduetatik 20 irabazi ditu, eta bigarrenari, Real Unioni, sei puntuko aldea ateratzen dio. Joan den astean, hala ere, ezustekoa jaso zuten txantxikuek, Hondarribiaren aurka galdu ostean. Aste honetan aukera paregabea dute oñatiarrek irundarrekiko duten aldeari eusteko.

Trintxerpe etorriko da domekan bisitari Azkoagainera (16:30). Oruetaren mutilek etxean irabazteko ez lukete arazo handirik eduki behar, baina Trintxerpe aurkari gogorra da. Kontuz ibili beharko dute oñatiarrek, puntuek etxetik ihes egin ez dezaten.

**UDA ERE ETXEAN**

UDA ere lehen postuetan segitzeko lehian dabil; hirugarren daude aretxabaletarrak. Domekan Ibarran jokatuko dute UDAkoek Berioren aurka (16:30). Donostiarrak 13. daude sailkapenean eta hiru puntuak Ibarran gelditzeko aukera ona dirudi.

Mondra izango da gure ordezkarietan kanpoan jokatuko duen talde bakarra. Zestoara joan beharko dute Gordobilen mutilek zapatuan. Arrasatearrek dagoeneko gutxi dute jokoan, baina garaipena lortu beharra dute azken asteetako dinamika beltzari agur esateko. Zelaia, ordea, ez da horretarako aproposegia.

**ESKIA**

## Alpeetara irteera antolatu dute Aste Santurako

**J.E.** > OÑATI

Aste Santuan planak egitea oso ohikoa da. Eskiatzeko azken egunak izaten dira, gainera, Aste Santuetakoak, eta Aloña Mendi Kirol Elkarteak Alpeetan kirol hori praktikatu ahal izateko aukera zabaldu du. Tignes eta Val'Isere estazioetara izango da eski irteera hori, eta forfaitak bi estazioetarako balio izango du.

Lo egiteko lekua ere luxuzkoa izango da: La Ferme Du Val Claret izeneko lau izarreko apartamentuak hartu dituzte. Plaza mugatuak izango dira, 40 pertsonarentzako autobus bat bete arte, eta prezioa batzen den jendearen araberakoa. Informazio gehiago behar izatekotan 649 31 50 15 telefonora dei dezakezue.

> PILOTA

## Hainbat debagoiendarrek parte hartuko dute asteburu honetan ETB Kantxa txapelketan

ETB Kantxa txapelketa aurrera doa, eta asteburu honetan ere partiduak jokatuko dira txapelketa horren barruan Aramaioko pilotalekuan. Gainera, hainbat debagoiendarrek parte hartuko dute asteburu honetako partidetan. Gaur, egubakoitza, 20:00etatik aurrera Agirregabiria arrasatearra Martinezen aurka lehiatuko da kadete mailan. 23 urtez azpikoetan, berriz, Aspe aretxabaletarrak Arkotxa izango du aurkari eta Uribarren mondragoetarrak Zelaiaren aurka neurtuko ditu indarrak. Azkenik, Elgetako Elortzaren eta Arrasateko Agirreren arteko derbia izango da.

**0 km**
- Mondeo TDCi – 130 ZP
- Focus TDCi – 115 ZP
- Focus TDCi – 136 ZP
- C-Max TDCi – 115 ZP
- C-Max TDCi – 136 ZP

**Aukerako ibilgailuak**
- 4x4 Nissan Pafainder Dci –174 ZP
- 4x4 Toyota Land Cruiser D4D – 163 ZP
- 4x4 Toyota Land Cruiser HDJ-100 – 204 ZP
- 4x4 Toyota Rav 4, 3 ate SP D4D – 110 ZP

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak irauteko eginak



**> 'EL FLORIDO PENSIL'**
Eskola frankistaren oroitzapenak Arrasaten **> 45**




**> 'GOIENA.NET', GORAKO BIDEAN**
Egunero 2.000 bisita inguru izaten ditu **> 51**

**> MIKEL ARANBURU**
Umeen eta jaietako saioetan ikusi izan dugu askotan, GOITBn. Banku baten lanean dabil orain, baina ez ditu hedabideak albora laga **> 50**



# Gaztetxoak kantari Uarkapen

Debagoieneko eskola arteko abesbatzen topaketak zapatuan Arrasaten, Uarkapen

400 lagun inguru arituko dira; batutako dirua Saharara bideratuko dute

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Debagoieneko eskola arteko abesbatzen XIX. topaketa ospatuko da bihar, zapatua, Arrasateko Uarkape pilotalekuan.

Haur Hezkuntzatik hasi eta batxilergora bitarteko ikasleek hartuko dute parte. Arizmendi Ikastolak antolatu du biharko jaialdia. Hamaika abesbatzak hartuko dute parte, eta 400 ume inguru arituko dira kantuan. Jaialdia 17:00etan hasiko da.

Arizmendik bost abesbatza osatu ditu biharko eta hiekin batera honako hauek izango dira zapatuan Arrasaten: Aramaioko San Martin eskolakoak, Arrasateko Mesedeetako Andra Mari ikastetxekoak, Oñatiko Txantxiku ikastola eta Elkar Hezi ikastetxea eta, azkenik, gonbidatu gisa, Gasteizko Olabide ikastolakoak.

**KANTU-ZALETASUNARI EUTSI**

Abesteko zaletasuna piztea da biharko jaialdiaren helburuetako bat. Topaketaren 19. ekitaldia izateak erakusten du badirela zaletasun horri eusteko lan ederra egiten ari direnak. Hainbat gurasok gaztetxoekin abesten jardungo dute bihar.

Hasieran txapelketa jokatzen zen ikastetxe ezberdinen artean, baina lehiakortasuna albo batera laga eta kantu festa izateari eutsi zion topaketak. Jai giroan ospatzea da helburu nagusia.

**ERREPERTORIO ZABALA**

Esan bezala, hamaika abesbatza elkartuko dira Uarkape pilotalekuan, eta entzuleek, pare bat orduz, kantu errepertorio zabalarekin gozatzeko aukera izango dute. Besteak beste, honako kantuok eskainiko dituzte biharko jaialdian: *Udaberria heldu da* (herrikoia), *Xalbadorren heriotza* (Xabier Lete), *Lau teilatu* (Juan Carlos Perez), *Oh happy day* (Hawkins), *Denon beharra* (Iturria), *Txoriak txori* (Busto eta Artze), *Iluntzean* (Maixa eta Itziar), *Gure taldeak* (Txirri, Mirri eta Txiribiton), *Ikusten duzu goizean* (Elizaburu) eta *Ixil ixilik* (Escudero). Bestalde, Imanol Urbieta zarauztarrak kantagintzarako egindako ekarpen apartaren adierazle, haren lau kantu entzun ahal izango dira: *Behin betiko*, *Kuxkumixa*, *Xaka, xaka pon!* eta *Oui mesie!*.

**SAHARARAKO LAGUNTZA**

Biharko emanaldirako sarrerak 3 eurotan salduko dira eta batutako diruaren laurden bat gobernuz kanpoko erakunde bati emango zaio. Aurten, dirua Saharara bideratzea erabaki dute antolatzaileek.



AZALA: IÑAKI ITURBE

Imanol Agirre > Mundumira jaialdiko antolaketakoa

# "Aurten, Debagoieneko kultur dinamika plazaratu nahi izan dugu egitarauan"

EDU MENDIBIL > OÑATI

**Maiatzaren 26tik 28ra Oñatin ospatuko den Mundumira jaialdiaren aurkezpena egin zuten martitzenean. *Euskal Herria* aldizkariko Imanol Agirrek eman dizkigu jaialdiaren nondik norakoak.**

**Aurtengo ekitaldia iazkoa baino indartsuagoa izango dela esan duzue aurkezpenean...**

Jaialdi guztiek behar dute nolabaiteko *bidaia* bat. Iazkoa lehen ekitaldia izan zen eta ez genuen izan nahi beste denbora jaialdia antolatzeko, eta bagenituen gure zalantzak, hasiera guztietan bezala. Iaz egindako lanaren gaineko hausnarketa egin ondoren, jaialdia denboraz antolatzeko aukera izan dugu. Debagoieneko Mankomunitateak ere jaialdia indartzeko jarrera azaldu zuen, eta egitarauan ikusten denez, bigarren ekitaldia askoz ere ikusgarriagoa da, kaleko ikuskizunei arreta berezia eman diegu... Debagoieneko kultura taldeekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin lan egin dugu; Debagoienean dagoen kultur dinamika plazaratu nahi izan dugu egitarauan , eta lortu dugulakoan gaude. Iaz jasotako erantzuna hobetzea da helburua.

**Mundumira jaialdia Oñatira ekarri duzue aurten.**

Bai, iaz Arrasaten ospatu zen jaialdia eta aurten Oñatin egokitu da... Mankomunitateak eta gure aldizkariak lankidetzan jarraitzen dugu. Debagoieneko espazioak eta aukerak egokiak dira horrelako jaialdi bat antolatu ahal izateko, eta Oñatik ere aukera paregabeak eskaintzen ditu.

**Bi kokagune nagusi izango ditu jaialdiak, ala?**

Hala da. *Bost kontinenteak* izeneko karpa jarriko da Oñatiko Foruen plazan eta etengabe bost kontinenteetako musika eta dantzak erakutsiko dira hantxe. Elkar aretoan, berriz, bi kontzertu aipagarri izango dira: batetik, Mal de Ojok eta Amparanoiak joko dute egubakoitzean, maiatzaren 26an (jaialdian ordaindu beharreko ekitaldi bakarra izango da, 10 euro), eta bestetik, Nino Galissak eta Esloveniako Terrafolk taldeek zapatuan joko dute. Dena dela, lehen aipatu bezala, indar handia jarri dugu kaleko giroan. Kubako Mambo Taxi antzerki taldea, Portugaldik datorren Orquestrada Cabaret Punk, Euskal Herriko Deabru Beltzak, Dumbala Canalla katalanak edo The Mckensyes Clan Band eskoziarrak kalean arituko dira.

**Musikatik aparte, zeintzuk dira egitarauaren oinarriak?**

Jaialdiak lau ardatz nagusi izango ditu: musika, kaleko animazioa, natur eta turismo ibilbideak eta gizarte ekimena eta bidezko merkataritza. Iazko oinarri berberak dira, bost kontinenteetako kulturak Oñatiko kaletara eta plazetara ekartzeko asmoz. Hainbat lurraldetatik etorritakoen topalekua izatea eta, aldi berean, Debagoiena ezagutzera ematea da helburua. Eta horrekin guztiarekin lotuta, elkartasuna. Gobernuz kanpoko hogei bat erakundek hartuko dute parte.

**Zelan sortu zen jaialdiaren ideia?**

*Euskal Herria* aldizkarian sortu zen ideia, planteatu genuenean aldizkarian lantzen ditugun edukiak gorpuzteko topaleku baten beharra. Hain zuzen, *Viajes por el mundo* sailetik atera genuen ideia, Euskal Herritik mundura abiatzen den ideia. Horregatik da munduko kulturen festa. Jaialdia gauzatzeko bilaketa horretan, Debagoieneko Mankomunitatearekin egin genuen topo eta alde bien bidegurutze horretan sortu zen festa. Iaz hasitako bideari jarraipena ematea erabaki dugu. Aurrekontua handitu egin da, eta festa bikaina izango dugu aurten ere.



Imanol Agirre *Euskal Herria* aldizkarian ari da. Martitzenean Oñatin izan zen, Mundumira aurkezten. AMAGOIA LASAGABASTER

**"Mundumirak lau ardatz ditu: musika, kaleko animazioa, elkartasuna eta natur ibilbideak"**

**"Etorritakoen topaleku izatea eta, aldi berean, Debagoiena ezagutzera ematea da helburua"**

MUNDUMIRAREN II. EKITALDIA

## Bost kontinente plazan jarriko duten karpan

Oñatiko Foruen plazan jarriko duten karpa izango da Mundumira jaialdiaren isla. Zapatu arratsaldean (maiatzaren 27an) Madagaskarreko Justin Vali (Kepa Junkerarekin aritutakoa), Sakapatu (Txile eta Peru), Akliso (Boli Kosta), Tenzin Choegyal (Tibet) eta Paulinho Lemos (Brasil) arituko dira bertan. Domekan, basamortuko musika eta dantzak ekarriko ditu Mariem Hassan saharararrak eta festaren amaieran Hamabi Tribu taldea izango da.

Kanpinendako gunerik jarriko ez duten arren, furgonetak eta karabanak aparkatzeko gunea egokituko dute antolatzaileek.






**UMEEN PAPERA** Aktore helduek umeen papera beteko dute ikuskizunean. TANTTAKA

**ANTZERKIA** > 'EL FLORIDO PENSIL' ANTZEZLANA DOMEKAN ARRASATEN

# Francoren diktadurako hezkuntzari gainbegiratua

Tanttaka taldearen helburua da gaur egungo gizarteari erakustea Francoren diktadurako hezkuntza eta bizimodua zer-nolakoa zen

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Etzi, domeka, Tanttaka taldeak *El florido pensil* antzezlana egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Ikuskizun hori Andres Sopeña idazlearen izen bereko liburuan oinarrituta dago. Sopeñak 1994an argitaratu zuen liburua eta oso harrera ona izan zuen. Bi urte geroago, Tanttaka taldeak antzokietara eraman zuen kontakizun hori. Eta orain, 10 urte geroago, berriro estreinatu dute.

**DIKTADURAKO HEZKUNTZA**

Antzezlan horretan Espainiako diktaduran bizi izandakoa kontatzen dute, kritika eta umore beltzez baliatuta. Abiapuntua Francoren sasoiko hezkuntza da, baina horrez gain, beste hainbat arlo ere deskribatzen dituzte: Elizaren jarrera, komunikabideak, zentsura, errepresioa...

Ikuskizunean oso aktore ezagunek esku hartuko dute: Enrique Diaz de Rada, Ramon Ibarra, Patxi Gonzalez, Jose Ramon Soroiz, Julio Perugorria, Zorion Egileor eta beste batzuek.

Bestalde, ikuskizuna antzezlan horren sorreran esku hartu zuten bi laguni eskaintzen diete, dagoeneko gure artean ez daudeeta: Mikel Garmendia eta Enric Pousiri, hain zuzen ere.




**MUSIKA**

# Musika klasikoa Arrasaten, asteburuan

**I.B.** > ARRASATE

Arrasateko Udaberriko Musikaldiak aurrera jarraitzen du egitarauarekin. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, bi emankizun egingo dituzte herrian. Gaur, Haizea organo eta tronpeta jotzaile bikoteak ikuskizuna egingo du San Juan Bataiatzailearen elizan, 20:00etan. Aitor Olea arrasatearrak eta Josu Aiartzaguenagak Bach, Claussman, Charpentier eta Hovhanessen piezak eskainiko dituzte.

Bihar, zapatua, berriz, Conductus Ensemble taldeak abesbatza eta instrumentu taldea batuko ditu San Juan Bataiatzailearen elizan, 20:00etan. Andoni Sierra da taldearen zuzendaria eta maila handiko ahotsek esku hartuko dute ikuskizunean, tartean arrasatear batzuek.

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71
ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Zelulitisa ia oso-osorik desagerraraz dezakegu.

Galdera bat egin nahi dizut. 28 urte ditut eta zelulitisa daukat mokorrean, izterrean eta ipurdian; ez pentsa pisu handia daukadanik (altuera 1,65 eta 56 kilo). Dietaren bat egiten dudan bakoitzean aurpegia eta titiak argaltzen zaizkit, baina zelulitisak bertan jarraitzen du. Izter aurrealdean zulotxoak eta konkortxoak ditut. Aurreko urtean mesoterapiako hamar saio hartu nituen eta zertxobait hobera egin zuen, baina nik gehiago nahi dut (konkor gutxiago ikusi nahi ditut). Hau da nire galdera: zelulitisa kentzen lagunduko didan tratamendurik badago? Zenbat denbora beharko nuke eta zenbat diru? Eta nola segi nezake ondo egoten? Josune. Josune, ez da galdera bat, batzuk baizik, baina trankil, guztiak erantzungo dizkizut.

Zelulitisa ia oso-osorik desagerraraz dezakegu. Zelulitis nodularra eta multifaktoriala (hau da zuk daukazuna) osatzeko tratamendua badago. Tratamendua ondorengoa da: zelulitis nukleoak biguntzea (apurtuz gero 100 nodulu beharrean 1.000 nodulu txiki edukiko genituzke eta haiek gogortzeko arriskua edukiko lukete). Aurrez esan bezala, tratamendua ondorengoa da: lehenengo koipea eta hondakinak bigundu eta likidotu egingo ditugu eta zelula adipozitario guztiak kendu eta hondakinen hodi naturaletara bideratu. Gorputzak energia mota bat sortzeko erabiliko du eta horrela desagertu egingo da.

Zenbat diru kostako den ezin dizut esan; aurrez, tratatu beharreko zona ikusi behar dut. Saio kopurua zure arabera izango da. Hamargarren saiotik aurrera hobekuntza nabarmena da. Hasieran egokiena astero bi saio egitea da (hiru badira askoz ere hobeto), zuk daukazun denboraren eta gogoaren arabera. Hogei saiorekin, argazkiek eta neurriek aldaketaren berri eman behar digute. Horren ondoren erabakiko dugu atsedenaldirik hartu edo ez.

Jarraipena ondorengoa izan daiteke: hilean ordubeteko saioa diziplina askotariko tratamenduarekin. Saio berean, txikitzeko eta indartzeko hainbat teknika ematen dira tratatutako zona guztietan.

Elikadura egokiak (ez du esan nahi dieta egitea) asko lagunduko dizu nahi duzuna lortzen.

Leireri erantzuna.

Titiak altxatuko dituen tratamendu estetikorik ez dago (4-5 cm). Bulareko muskuluak zuntz dentsitate txikia dauka, eta zure kasuan (esaten didazunaren arabera) distentsio puntua oso handia da; beraz, aplikatu beharreko estimuluak ez luke behar besteko kontrakziorik egingo zuntz horiek mozteko.

Estetikako tratamendu batek neurtutako dosietan oso emaitza onak ematen ditu (titiak edo jauzitako bularrak).

Zure kasuan, mamoplastia egitea izango litzateke egokiena (soberan daukazun azalaren txikitzea eta bularra igotzea).

Nahi baduzu, eskatu txanda Maria Teresa Balda doktorearekin, hark azalduko dizu guztia: anestesia motak, ospitalean egon beharra edo ez, interbentzioaren denbora, errekuperazioa eta azken emaitza.



**Maria Isabel Hurtado**
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- Duplexa. Masterreka. 180 m$^2$.
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 66 m$^2$. Oso ondo.
- Ibargarai 106 m$^2$. Oso ondo.
- Espoloia 156 m$^2$. Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m$^2$. Ondo.
- K. Eleizalde 90 m$^2$ + teilatu azpia.
- S. Pedro 78 m$^2$. Ganbara. Berrituta.
- Zabalotegi 50 m$^2$. Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m$^2$. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m$^2$. Garajea.
- Bidekurutzeta 96 m$^2$. Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m$^2$. Oso ondo.
- Ortuibar 97 m$^2$. Oso ondo.
- Iparragirre 76 m$^2$. Ondo.
- Zubiaurre 80 m$^2$. Ondo.
- Artekale 74 m$^2$. Ondo.

**Antzuola:**
- Eguzki auzoa 84 m$^2$. Eguzkitsua.
- Duplexa. Erdialdea. Oso ondo.
- Sagasti 90 m$^2$. Eguzkitsua.

**Elgeta:**
- San Roke. Ondo.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
**Zarugalde 1 Arrasate**
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

**BERGARA:**
- Bidekurutzeta 55 m$^2$. Oso ondo.
- San Anton Abad, 75 m$^2$. Oso ondo.
- Erdialdea 110 m$^2$. Oso ondo.
- Aranerreka 75 m$^2$. Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m$^2$. Oso ondo.
- Matxiategi 80m$^2$. Ondo.
- Martoko 60 m$^2$. Berritzeko.
- Ibargarai 106 m$^2$. Berria.
- Iparragirre 165 m$^2$. Berritzeko.
- Artekale 74 m$^2$. Ondo.
- Bolu 84 m$^2$. Oso ondo.
- Masterreka 87 m$^2$. Oso ondo.
- Martoko 45 m$^2$. Ondo.
- Simon Arrieta 89 m$^2$. Berritzeko.
- Ozaeta 74 m$^2$. Ondo.

**ELGETA:**
- 70 m$^2$. Berritzeko.

**SORALUZE:**
- Gipuzkoa etorb. 80 m$^2$. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Duplex berria erdialdean.

ENTORNOS INMOBILIARIOS URBANISTICOS
INMOBILIARIA
T:943 698404

BERGARA:
- 109m2 , 3 logela.
- 97 m2 ,3 logela, 2002. urtekoa
- 65 m2, 3 logela, 217.675 euro
- Duplexa,105 m2, 3 logela, garajea
- 82 m2, 3 logela, berrituta. 210.995 €
- 104 m2, 4 logela, egongela haundia, 366.617 euro

ARETXABALETA
- 60 m2 , Berrituta, 2 logela,
- 85 m2, 3 logela, jantzita

ARASATE
- 109m2 , 4 logela, terraza,2 komun

ANTZUOLA
- 51 m2, 2 logela, berrituta, 167.000 euro
- 90 m2, 3 logela, terraza, 2002. urtekoa
- 77 m2, 4 logela, berrituta, 217.674 euro

ANGIOZAR
Baserria

GERTU Inmobiliaria
ERDIKO KALE 26 ARRASATE
T:943 79 12 79

BERGARA
- 75 m2. Hiru logela. Berrituta. 252.425 euro
- Bolu: 80 m2. Hiru logela. Berrituta. Dena kanpoaldera.
- Bolu: 106 m2. Hiru logela. Garaje itxia. Oso ondo dago.

ANTZUOLA
- Sagasti: 90 m2. Hiru logela. Eraikuntza berria.
- Antigua: 51 m2. Bi logela. Ondo dago. 167.081 euro
- Beheko auzoa: 54 m2. Bi logela. 153.859 euro

ARRASATE
- 65 m2. Hiru logela. Berritzeke. Kanpoaldera. 195.328 euro
- Erguin: 48 m2. Bi logela. Berrituta. Kanpoaldera.
- Erguin: 75 m2. Hiru logela. Berrituta eta altzariekin. Terrazakin. 278.869 euro
- Zigorrola: 140 m2. Bost logela. Oso eguzkitsua.
- Garaje itxia alokairuan Arimazuri plazan.Bi automobilentzat.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ANTZUOLA**
**Ile apaindegiko apa-ratuak salgai: lehor-gailuak, ispiluak, jar-lekuak, armairuak...**
**943 76 63 30**
**Mari ile apaindegia**

**BERGARA**
**Bergarako Batzokiko jatetxea alokatzen da. Deitu goizez. 10:00-12:00**
**943 76 47 00**

**ARETXABALETA**
**Zerbitzaria behar da jatetxe batean lan egiteko.**
**943 71 43 45**

**ARAMAIO**
**Zerbitzaria behar da aste-buruetan lan egiteko.**
**690 85 52 25**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Angiozar.** Baserria salgai. 626 35 60 89.

**Antzuola.** Duplexa salgai. Eraikin berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Etxebizitza ia berria. 90m2. Hiru gela, egongela-jangela, sukaldea, bi bainugela, hall-a, despentsa eta bi balkoi. Trastelekua. Erdi jantzita. Eguzkitsua. 665 70 97 14.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai. Ia berria (10 urte ditu). 85 metro koadro. Hiru logela, egongela-jangela, bi komun, bi autorendako garajea eta trastelekua. 635 75 13 66.

**Arrasate.** 60 metro koadro. Bi logela, egongela eta balkoia ditu. Eguzkitsua. 204.000 euro. 667 85 19 52.

**Arrasate.** Bizkaia etorbidean etxea salgai. Lau logela, 86 m$^2$. 943 79 95 49.

**Arrasate.** Erdiko kalean. Ekonomikoa. 659 59 71 21.

**Arrasate.** Etxea salgai. Prezio negoziagarria. 649 55 48 10.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. Bi garaje ditu. 660 70 13 80.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna, bi balkoi eta ganbara. Berritua. 639 84 71 73.

**Arrasate.** Uribarri etorbidea. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Berritua eta jantzia. 625 47 61 62.

**Bergara.** 75 metro koadro. Hiru logela, egongela terrazarekin, komuna eta sukaldea. Txokoa eta bi aparkaleku ere baditu. 600 46 58 02.

**Bergara.** Baserria salgai Angiozarren. 626 35 60 89.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Cruz Gallastegi kalean. Eraikin berria. 39 metro koadro. Trastelekua eta garajea ditu. 605 77 54 89.

**Bergara.** Koldo Eleizalden: hiru gela, bi komun, kalefakzioa, garajea eta trastelekua. Eguzkitsua. Bista ederrak ditu. Telefonoa: 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

**Bergara.** Matxiategin. 80 metro koadro eta ganbara. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoia. Bi igogailu eta berogailua. 666 42 78 57.

**Bergara.** Mugertza kalean. Hiru logela eta oso eguzkitsua. Berritzeke. 651 70 81 70.

**Bergara.** Zabalotegin 79 m$^2$-ko etxea salgai. Gela guztiek kanpora ematen dute. Oso eguzkitsua. Lau logela. Egongela handia. 675 70 79 54.

**Elgeta.** Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta ganbara. Igogailua ere badu. Prezio ona. 645 71 76 25.

**Eskoriatza.** 52 m$^2$ ditu eta 12 m$^2$-ko terraza dauka. Herri erdialdean dago. 626 96 03 97.

**Legazpi.** 105 m$^2$. Ganbara. Igogailua. Berogailua. Gela guztiek kanpora ematen dute. 680 44 91 60.

**Oñati.** Atzeko kalean. Sukaldea, lau logela, egongela, bi bainugela. Etxe agentziok ez deitu. 646 95 80 62 edo 943 78 06 72.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen dut errentan. Erdialdean. Terraza. 652 77 13 77.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik gertu. Guztiz jantzia. 630 41 84 65.

**Benidorm.** Bi logelako apartamentua. Igerileku eta garajearekin. Levanteko hondartzan. 666 67 06 94.

**Peñiscola.** Apartamentua errentan. Aste Santua eta uda. Sei lagunendako modukoa. 945 29 33 80.

**Peñiscola.** Pazko Astea eta uda. Urbanizazio pribatua. Igerilekua. Hondartzatik gertu. 610 87 83 57.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Brasilgo anai-arreba batzuek etxebizitza hartuko lukete errentan. 659 98 20 17.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 645 49 91 05.

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. 665 70 10 57.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Bi lagun behar dira etxea osatzeko. Jantzia. 685 73 67 54.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Oskar. 651 59 64 55.

### 106. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Pablo Uranga kalean logela bat ematen da errentan. Iñigo. 675 71 57 03.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Arimazubi plazan. Garaje bikoitza. Iñigo. 675 71 57 03.

**Bergara.** Ibargarai kalean garajea ematen dut errentan. Nerea. 678 36 23 57.

**ANGIOZAR**
**Ortzi erretegia alokatzen da.**
**943 78 22 80**
**665 72 24 46**

### 204. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Garajea hartuko nuke errentan. 699 92 18 60.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 629 43 62 46.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxe batean lan egiteko 07:00etatik 10:30era. Euskaraz jakitea baloratu egingo da. 943 03 89 23 edo 615 77 05 18.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna umeak edo adineko pertsonak zaintzeko gertu. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu. Asteburuetan edo aste barruan orduka. 665 71 06 13.

**Bergara.** Emakumea etxeetan garbiketa lanak egiteko prest. Juani. 635 70 69 97.

**Bergara.** Etxeko lanak edo pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Etxean bertan lo egiteko gertu. 645 49 91 05.

**Debagoiena.** Emakume bat taberna edo jatetxe baten lan egiteko gertu. Esperientzia. 676 87 99 48.

**Debagoiena.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko (baita gauez ere) edo garbiketa lanak egiteko. Estela. 650 00 58 88.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta haurrak edo nagusiak zaintzeko gertu. Daysi. 699 75 72 02.

**Debagoiena.** Gizonezko bat eraikuntzan edo ostalaritzan lan egiteko prest. 618 04 45 28.

**Debagoiena.** Haurrak edota pertsona nagusiak zainduko nituzke. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. 699 75 72 02.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dago emakume bat. 659 98 20 17.

**Emakumea** gertu etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, orduka. Badauka esperientzia. 650 62 12 94.

**Hiru emakume** gertu daude pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari jarduteko. 686 56 42 63 edo 690 84 72 92.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen dira. 943 79 03 83.

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Arrasate.** DBH eta OHOko eskolak ematen ditut. 619 88 07 79.

**Bergara.** DBHko eskola partikularrak ematen ditut. 675 70 17 63.

**Bergara.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko, astelehenetik eguenera, goizez edo arratsaldez. 647 09 26 16.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**A4 1.9 TDI** autoa salgai. SS-BJ matrikula. Klimatizagailu eta guzti. Beti garagean. Telefonoa: 609 01 70 81.

**BMW 530 D** Touring autoa salgai. Familiarra. IAT (ITV) 2008ra arte. 7 urte ditu eta ondo dago. Salneurri erakargarria. 607 15 30 70.

**Fiat Ducato autokarabana** salgai. 1999koa, 32.000 km. Sei plaza. 19.500 euro. 651 70 79 96.

**Gas Gas** motorra salgai. 250 cm$^3$. 2002koa. Matrikulatua. Egoera onean. 2.800 euro. 669 50 03 89.

**Opel Corsa DTI.** 30.000 km. Aire girotua, CDa... 665 74 91 28.

**Opel Vectra** autoa salgai. 2000 i. 130.000 km. Aire girotua. Itxiera bateratua. Kristal-jasogailu elektrikoa. Alarma. 1.000 euro. 943 76 48 47 edo 646 73 21 26.

**Opel** Astra 1.7 autoa salgai. Diesela. SS-AS. Prezio ona. 656 72 60 52.

**Renault** Scenic Fairway autoa salgai. 1.4. 95 ZP. 2002koa. Oso egoera onean. Familientzat egokia. 653 70 62 17.

**Suzuki Vitara 2.0 HDI** autoa salgai. Ia berria, egoera onean. 647 29 93 44.

**Suzuki** GSX 600. Kilometro gutxi. Merke. 627 63 25 72.

**Volkswagen Sharan** autoa salgai. 1.8 turbo. 1999koa. Akatsik gabea. 10.000 euro transferentziarekin. 645 73 97 69.

### 602. EROSI

**Ford** Focus (1. belaunaldia) beltza erosiko nuke. 645 72 25 24.

**Scooterra** edo kanbio bako motorra erosiko nuke. 647 01 97 27.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Atoia (erremolkea)** salgai, baserrirakoa, lotura eta guzti, ezin dudalako homologatu. Deitu eta utzi mezua. 943 76 22 81.

**Garbigailua salgai.** Goiko aldetik sartzen da arropa. Egoera onean. 635 75 35 29.

**Moto-kroserako** peto osoa salgai. Hebo marka. M neurria. 110 euro. 645 72 25 24.

**Relax** eserlekua salgai daukat. Oso prezio onean. 617 17 15 88.

**Sukalderako** mahaia salgai daukat. 617 17 15 88.

### 802. EROSI

**Bankuko billete eta txanpon** zaharrak erosten ditut. 945 44 50 44.

**Bizikleta.** Errepideko bizikleta erosiko nuke, oso zaharra ez dena eta egoera onean dagoena. 670 26 34 01.

**Apirilaren 3a: 082 zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
**txokoa**

# Sariak astero!

Astelehenean, apirilak 3, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

## 081 zozketako saridunak

**Bi gonbidapen ELGETAKO ESPALOIAN izango den ARIMA BELTZA eta KEU musika taldeen kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**
- Amaia Madinabeitia Miranda (Bergara)
- Jabier Fernandez Castelo (Antzuola)

**Sei gonbidapen EIBAR-NUMANTZIA futbol partidurako (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**
- Jonatan Garcia Serrano (Bergara)
- Kontxi Arregi Lafuente (Aretxabaleta)
- Jon Joseba Lete Delgado (Eskoriatza)
- Amaia Familiar Etxebarria (Bergara)
- Floren Arana (Arrasate)
- Gorka Arregi Arantzeta (Oñati)

## 082 zozketako sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).




- **DONOSTIAKO AQUARIUMa** bisitatzeko bi gonbidapen. (saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

## Baldintzak

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
**902 36 38 51**
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
**36 euro**
2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero 18.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 85 €.



## hildakoak

- **Francisco Carmona Luque.** Arrasaten, martxoaren 23an. 75 urte.
- **Francisco Arriola Zugasti.** Eskoriatzan, martxoaren 24an. 79 urte.
- **Yolanda Casado Bermejo.** Oñatin, martxoaren 25ean. 45 urte.
- **Manuel Izquierdo Lopez.** Arrasaten, martxoaren 26an. 69 urte.
- **Arantxa Gallastegi Azkoaga.** Arrasaten, martxoaren 26an. 54 urte.
- **Felix Lasheras Gallo.** Bergaran, martxoaren 26an. 59 urte.
- **Asensio Gabilondo Albisua.** Bergaran, martxoaren 27an. 96 urte.
- **Kontxi Barrutia Larrañaga.** Aretxabaletan, martxoaren 27an. 87 urte.
- **Lide Gallastegi Baltzategi.** Bergaran, martxoaren 28an. 73 urte.
- **Maria Victoria Aranguena Juaristi.** Oñatin, martxoaren 28an. 92 urte.
- **Rosario Guridi Aranburu.** Oñatin, martxoaren 28an. 80 urte.
- **Josefa Benitez Tena.** Arrasaten, martxoaren 28an. 84 urte.
- **Maria Pilar Altzola Larrañaga.** Arrasaten, martxoaren 29an. 59 urte.
- **Pia Garcia de Iturrospe Ruiz de Bergara.** Arrasaten, 29an. 96 urte.

ESKELA

## Arantxa Gallastegi Azkoaga

Arrasaten hil zen 2006ko martxoaren 26an, 54 urte zituela.

*Lankide bikaina, lagun aparta, kementsua eta alaia, solasaldietarako beti prest, bidaiatzeko beti prest, alaitasunerako beti prest, beti prest jarraituko dugu. Beti prest-eko lagunak bihotzean zaitugu.*



"Beti prest" Ana, Isa, Miren Jone eta Itziar.
Arrasaten, 2006ko maiatzaren 31n.

ESKELA

## Arantxa Gallastegi Azkoaga

Arrasaten hil zen 2006ko martxoaren 26an, 54 urte zituela.

*Beti egongo zara*
*gure bihotzean,*
*gero arte.*



Jessikaren koadrilakoak.
Arrasaten, 2006ko maiatzaren 31n.

ESKELA

## Arantxa Gallastegi Azkoaga

Arrasaten hil zen 2006ko martxoaren 26an, 54 urte zituela.

*Hogeita hamar urte luze ikastolari eskainiak.*
*Garai latzetan ere ikasleak euskalduntzen tinko.*
*Zenbat bizipen, ahalegin, lan, ilusio, atsekabe, poz...*
*Eskerrik asko andereño!*



Zurekin lanean egon garenok bihotz-bihotzez.
Arrasaten, 2006ko maiatzaren 31n.

ESKER ONA

## Arantxa Gallastegi Azkoaga

Arrasaten hil zen 2006ko martxoaren 26an, 54 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko martxoaren 31n.

ESKER ONA

## Francisco Arriola Zugasti

Mendiolan hil zen 2006ko martxoaren 24an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskoriatzan, 2006ko martxoaren 31n.

ESKELA

## Asentzio Gabilondo Albisua

Bergaran hil zen 2006ko martxoaren 27an, 96 urte zituela.

*Denborari beldurra?*
*Hostotik orbela?*
*Dena etorriko da*
*eta datorrela!*
*Zure irrifarrari*
*begira geundela*
*irakatsi zenigun,*
*maisu on bezela,*
*bizitza egunero*
*bizi behar dela.*



Zure senitartekoak.
Bergaran, 2006ko maiatzaren 31n.

URTEURRENA

## Jose Ramon San Miguel Egiluz

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 2an, 12:30ean, Arrasateko parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Rafael Pasamar Ruiz

Lehen urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 1ean, 19:30ean, Aretxabaletako parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Mari Lizarralde Larrañaga

Lehen urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 1ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | Nafarroako udalerria / Jaka antzeko jantzia | | Ordezkari, berri-emaile / Zentzu egoki | | Antxeta / Kiloa | |
| | | | | | | | | |
| | | | Noren atzizkia / Makulua | | | | Roentgen / Erorka | |
| Dirua xahutu / Nafarroako mendia | | Oihalaren ertz / Larruazaleko gaixotasun | | | | | | |
| | | | | | Garai, denbora / Ibaietako pasabide | | | |
| Euskara ikasteko / IRUDIKO HERRIA | | | | Txerritegi / Zezen zikiratu | | | | |
| | | | | | | | | Errepikatuz, txori mota |
| Mugitu gabe / Goru | | | | | | | | |
| | | | | | Beldur bizi | | | |

LUMA



## umore giroan

Kike Amonarriz

**Lech Walesa**

Ikusmena galtzen hasia dela eta, oftalmologoarengana joan da Lech Walesa, Poloniako buruzagi sindikal eta lehendakari ohia.

Kontsultara sartu eta medikuak aulkian esertzeko esan dio. Parean, hormatik zintzilik, letra lodiak dituen taula bat dago, okulista guztiek darabilten horietako bat.

Goiko lerroa honako hizkiek osatzen dute: BROZMENSWINSKI.

Okulistak letra lerro osoa seinalatu dio, ziri luze batekin lerro hasierako B hizkia ukituz:

- Irakur al dezakezu hori? —galdetu dio okulistak—.

– Bai, noski —erantzun dio — Ni poloniarra naiz!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | | 9 | | 2 | | | 5 |
| | | | | | | | | |
| 9 | | 1 | 4 | 7 | 6 | 8 | | 3 |
| | 1 | | | 4 | | | 3 | |
| 3 | | 9 | | | | 2 | | 6 |
| | 8 | | | 2 | | | 9 | |
| 5 | | 8 | 3 | 6 | 4 | 9 | | 2 |
| | | | | | | | | |
| 2 | | | 7 | | 5 | | | 8 |

## hieroglifoa

Printzipio filosofikoa

ZI
ZI

## hizki salda

Saski Baskoniako bost jokalari

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | I | N | O | I | G | I | R | P |
| O | V | A | E | D | I | L | O | R |
| O | L | A | V | I | D | A | L | I |
| N | U | S | T | R | U | S | A | S |
| S | E | R | D | O | G | A | N | U |
| I | U | S | G | O | C | L | A | C |
| F | I | E | N | O | L | A | M | A |
| D | E | T | E | A | L | O | C | S |
| S | P | I | T | I | H | E | K | A |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | | G | | M | | M |
| | | | K | A | S | A | K | A |
| | | | | R | E | N | | R |
| | E | | M | E | N | D | E | L |
| A | R | L | A | S | | A | R | O |
| | A | E | K | | I | T | O | I |
| E | L | G | O | I | B | A | R | |
| | G | E | L | D | I | R | I | K |
| L | I | N | A | I | | I | Z | U |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 6 | 7 | 9 | 3 | 2 | 1 | 4 | 5 |
| 4 | 2 | 3 | 5 | 8 | 1 | 6 | 7 | 9 |
| 9 | 5 | 1 | 4 | 7 | 6 | 8 | 2 | 3 |
| 6 | 1 | 2 | 8 | 4 | 9 | 5 | 3 | 7 |
| 3 | 4 | 9 | 1 | 5 | 7 | 2 | 8 | 6 |
| 7 | 8 | 5 | 6 | 2 | 3 | 4 | 9 | 1 |
| 5 | 7 | 8 | 3 | 6 | 4 | 9 | 1 | 2 |
| 1 | 3 | 6 | 2 | 9 | 8 | 7 | 5 | 4 |
| 2 | 9 | 4 | 7 | 1 | 5 | 3 | 6 | 8 |

**Jeroglifikoa:** Bizi.
bi zi

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | I | N | O | I | G | I | R | P |
| O | V | A | E | D | I | L | O | R |
| O | L | A | V | I | D | A | L | I |
| N | U | S | T | R | U | S | A | S |
| S | E | R | D | O | G | A | N | U |
| I | U | S | G | O | C | L | A | C |
| F | I | E | N | O | L | A | M | A |
| D | E | T | E | A | L | O | C | S |
| S | P | I | T | I | H | E | K | A |

## bono fotoa



**Uzarragako San Juan elizatea Bergarako hiriarekin batu zen 1391. urtean. Geroago Antzuolako Unibertsitatea deituko zena zein urtetan bereizi zen Bergaratik: 1429, 1529 ala 1629an?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..................................................
..................................................
IZEN-DEITURAK ..................................................
TELEFONOA..................................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Coipesol ekilore-olioa**
1 litro
**1,19 €** 198 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**Isabel Pagaldai**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Arrasateko Zaldibar auzoan.**

# Menchu Gal

## Margo erakusketa

Bergarako Aroztegi Aretoan / 2006ko martxoaren 17tik apirilaren 30era

**Kirmen Uriberen**
**“Poesia eta abar”**
Apirilaren 1ean,
larunbata, 19:00etan

Ordutegia
Asteartetik ostiralera: 18:30-21:00
Larunbatak: 12:00-14:00 / 18:30-21:00
Igandeak: 12:00-14:00

Aste Santuko Ordutegi berezia
Apirilaren 13 eta 14an: 12:00-14:00
18:30-21:00
Apirilaren 17an itxita



AROZTEGI JAUREGIA

BERGARAKO UDALA

# smsoinu

**Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak**

| | | |
|---|---|---|
| SOINUAK: | Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA | 5767 zenbakira |
| ABESTIAK: | Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA | |
| LOGOAK: | Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA | |
| JOKOAK: | Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA | |

Deiaren prezioa:
**1,2 € + BEZa**



# Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

## ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1)

Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

### Himnoak
Eibar I EIBAR
Athletic Club I BILBAO
Osasuna I OSASUNA
Reala I REAL
Real Union I UNION

### Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta)I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) IELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love(Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATXO1
Txus (La Polla) I TXUS

### Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) I HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) ITXANPON

### Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde)I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA
Galiziara noa (Oskorri) I GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) I HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) I IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I OIAMA
Tirauki (Oskorri) I TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) I TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika)I ZAINDU

### Herrikoia
BagareI BAGARE
Desde Santurce a Bilbao I DESDE
Ikusi Mendizaleak I MENDI
Pintxo-pintxo I PINTXO
San Simon eta San Judas I SAN

### Jaietakoak
Artillero dale fuego I ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) I JAIA
San Fermin I FERMIN
San Martzialetako alardea I SAN MARTZIAL

## SOINUAK (2 sms)
1,2,3,4…Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic Iuep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu…Aitaren ta semea.. I AITAREN
Hartu…Ansar I ANSAR
Hartu…Argentinarra I ARGEN
Hartu…Mexikarra I MEXIKO
Hartu…Miamol! I MIAMOL
Independentzia! I INDEPEN
Irrintzia I IRRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazu! (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbela I TXANBERA
Txoootx I TXOTX

## JOKUAK (sms1)
MAFIA
BARON ROJO
SUDOKU
PARCHIS

## LOGOAK (sms1)
LAU1
LAU3
NUKLEAR
ARRANO 1
REAL.IZENA.ZENBAKIA
SORGIN
BILBAO.IZENA.ZENBAKIA
ANOETA1
OSAUNA.IZENA.ZENBAKIA
ARCO

## OHARRAK

**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.

**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

**…ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com**

Mikel Aranburu > Irrati esataria

# "Jendeak uste du ezetz, baina lotsatia naiz, nahiz eta askotan paperean sartu"

Aspaldi honetan, Mikel Aranburu *ipurterreak* atsedenaldia hartu du Goiena Telebistan. Umeen eta jaietako saioetan ikusi izan dugu behin baino gehiagotan. Aspaldian banku baten lanean dabil, baina, hala ere, jaietan sarri irteten da, mikrofono barik ibiltzen bada ere. Telebistaren eskaintza onen bat jaso artean, marketin alorrean lan egiteko saiakera egingo du.

IKER BARANDIARAN > OÑATI

**Aranburu oñatiarra oso ezaguna da, Arrasate Irratian, Goiena Telebistan eta Oñati Irratian ibili delako. Aspaldian isil samar dabil, Aretxabaletako banku baten lanean.**

**Ume zinela, zer izan gura zenuen etorkizunean?**

Irakaslea, jendearekin lan egitearren; eta suhiltzailea, txikitan eskolatik Zubillagako parkera eraman gintuztelako. Azkenean Enpresa Zientziak aukeratu nituen.

**Hortaz, ikasketa guztiak Oñatin egin dituzu?**

Bai, eta pena daukat kanpoan bizi izan ez naizelako. Beti izan dut asmo hori, baina bankuan lan egiteko aukera izan nuen. Oraindik gaztea naiz, eta agian kanpora joko dut oraindik.

**Lotsarik baduzu?**

Askok uste dute ezetz, baina lotsatia naiz. Baina paperean sartzeko erraztasuna daukat. Askotan, gauzak esan baino lehenago birritan pentsatu behar izaten dut zelan esan eta zer erantzungo didaten.

**Noiz eta zelan hasi zinen irratian?**

13 urterekin-edo, *Jaiak* saioa ikusi eta gero, lagun batzuek erabaki genuen jaien gaineko saio bat egitea. Oñati Irratiko arduradunek ondo hartu zuten ideia, eta orain dela hiru urte arte ibili gara egiten. Estudioan elkarrizketa bat egin eta gero kalera irteten ginen grabagailuarekin.

**Eta gero Arrasatera jo zenuen?**

Bai. Aitziber Aranburuzabalak Arrasate Irratian esku hartzeko gonbidapena egin zidan. Horren aurretik, egunkarian ikusi nuen Teledonostin *casting* bat zegoela. Helbidearen bila gaztelekura jo nuen eta han esan zidaten curriculuma Goiena Telebistara bidaltzeko.

**Eta hainbat urte egin zenituen han, ezta?**

Bai. GOITBko Oihane Agirrek *Xeleberri* saioa aurkezteko esan zidan. Albiste xelebreekin kale inkestak egiten genituen. Horren ostean, *Jaiak*, *Txintxaun* eta *Baneki* saioetan ibili naiz, azken biak umeenak. Iaz geldiunea egin arte, urtero ibili naiz telebistan. Oso esperientzia ona izan da.

**Zer gurago duzu, jaien edo umeen programak egitea?**

Jaietan jende mordoa ezagutu dut. Hasieran zaila da, baina paperean sartu ahala askoz samurragoa da. Jaietan jendea esku hartzeko prest egoten da, eta emaitza polita irten daiteke. Umeena, berriz, beste kontu bat da. Eurak kontrolatzea gaitza da, oso urduri egoten dira-eta.

Bestalde, platoan askoz askatasun txikiagoa izaten da. Kalean, berriz, inprobisatzeko aukera izaten dugu.

**Irratia eta telebista aukeratzekotan, zer hartuko zenuke?**

Irratia. Entzuleek ez zaituzte ikusten, misterio edo magia dauka, eta errazagoa da, pertsona bakarrarekin saioa egin dezakezu-eta. Hala ere, telebista osatuagoa da, lan egiteko modu politagoa dauka eta emaitza onagoa izan daiteke.

***Casting* asko egin dituzu?**

Batzuk bai. ETBrako eta ekoizpen etxeetarako. ETBko casting pare baten finalera heldu naiz: *Betizu*-n, eta abar. Jarraituko dut halakoetara aurkezten.

**Enpresa Zientziak ikasi zenituen...**

Gustuko dut. Gainera, Marketin espezialitatea hartu nuen eta nire asmoa da alor horretan lana aurkitzea. Fidantzak baino interesgarriagoa eta sortzaileagoa da.

**Horren haritik, aspaldian bankuetan lanean zabiltza. Ez da lan serioegia zuretzat?**

(Barre) Lanak berez serioak dira, baina seriotasuna edo alaitasuna norberak jartzen die. Lehen, bankuetako lanaren gaineko irudi serioa neukan, baina hori bakoitzaren araberakoa da.

**Ez duzu erabateko atsedenik hartu, eta Oñati Irratian dihardızu magazina egiten...**

Lotura horri eutsi gura diot. *29. geltokia* izena duen magazina egiten dut martitzenero. Oñatiko pertsona ezagunak elkarrizketatzen ditut, hobeto ezagutzeko asmoz. Horrez gain, musika komertziala jartzen dut eta albiste xelebreak kontatzen ditut.

**Zenbat ordu ditu Mikelen egunak, 24?**

Bai, baina gustatzen zait guztia organizatzea. Ez dakit sofan botata egoten, zerbait egin behar izaten dut. Eta ikasi egin behar dut ezetz esaten. Egunak 30 ordu balitu, 30ak beteko nituzke.









JOSETXO ARANZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak:** Enpresa Zientziak. **Zaletatsunak:** Lagunekin egotea eta kirola egitea. **Barkatuko zenuke fideltasunik eza?** Ez. **Maniaren bat?** Ohera joaten naizenean iratzargailua birritan jarri eta kentzea. **Parrandarik onena, non?** Azpeitian, San Inaziotan. **Zure bokazio ezkutua?** Irakaslea. **Gizateriaren asmakizun onena?** Internet. **Inoiz ez duzu ahaztuko?** Aurreko urtean egindako oporraldia. **Zure bizitzako leloa da?** Pozik bizi izatea. **Eskolako ikasgairik gustukoena?** Marketina.

Debagoiendarren topalekua izatea da 'Goiena.net' atariaren helburuetako bat

Mugez bestalde ere irakurtzen da 'Goiena.net': AEBak, Mexiko, Argentina, Venezuela, Txile...

**INTERNET** > AZAROAN HIRU URTE BETEKO DITU 'GOIENA.NET'-EK ETA UDABERRI PARTEAN HAINBAT BERRITASUN IZANGO DIRA

# Egunero 2.000 bisita inguru izaten ditu 'Goiena.net' atariak




GERTUTASUNA Normalean, debagoiendarrei zuzenean eragiten dieten albisteak izaten dira irakurrienak.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Azaroan hiru urte beteko dira *Goiena.net* ataria martxan jarri zenetik. *Goiena.net*-eko Usoa Agirre, Maider Arregi eta Iban Arantzabalek emandako datuen arabera, gaur egun, batez beste, 2.000 bisitatik gora izaten ditu *Goiena.net*-ek egunean. Astean zehar izaten dira bisita gehienak. Eta erabiltzale finak dituela adierazi digute telematikariek.

Goienako kazetariek idazten dituzte notiziak. Telebista, prentsa, irrati eta telematikako 15 bat kazetarik sartzen dituzte albisteak *Goiena.net*-en.

**PARTE-HARTZEA BULTZATU**

Era berean, parte hartzeko beste zenbait aukera ere ematen du *Goiena.net*-ek. Albisteak edozeinek bidal ditzake *Goiena.net*-era; gero, *Goiena.net*-eko editoreak ikusi eta argitaratzen ditu. Albisteetan erantzuteko edo ekarpenik egiteko aukera ere badago, betiere lehenago *Goiena.net*-en izena emanez gero. Eztabaidak ere badaude, eta bertan parte hartzeko izena eman behar da aurrez. Blogak dira parte-hartzearen arrakastaren beste adierazle bat.

Maider Arregik azpimarratzen duenez, "nik esango nuke gertutasuna, parte-hartzea eta euskara direla *Goiena.net*-en indarguneak. Debagoiendarren topalekua da. Herri bakoitzeko albisteak jaso, blogak irakurri eta iritzia eman... Eta hori guztia euskaraz".

**IRAKURLE MOTA ETA MUGARIK EZ**

Irakurle mota zein den definitzea zaila da. Hala ere, pistaren bat ematen du Usoa Agirrek: "Ez dugu ikusten pantailaren beste aldean zein dagoen, baina hori bai, ordutegiak erakusten digu ikasleak eta ordenagailu aurreko langileak direla gehienak. Askoz gehiago ezin jakin".

Interneten abantailetako bat mugak gainditzea da: "Badakigu gure mugez bestalde daudenek ere irakurtzen dutela *Goiena.net*. Seguruenez kanpoan dauden debagoiendarrak izango dira, baina ezin jakin. AEBak, Mexiko, Argentina, Venezuela, Txile, Amsterdam eta Europako beste hainbat herrialdetatik sartzen dira egunero *Goiena.net*-en. Hori ziurtatu dezakegu", dio Iban Arantzabal editoreak.

Maiatz inguruan *Goiena.net*-en diseinua aldatuko dute. Horrekin batera, beste hainbat informazio eskainiko da, telebista ikusteko aukera tartean. GOITBko albiste aurrerapena ikusi ahal izango da laster *Goiena.net*-en. Blogei emango zaie aparteko garrantzia, bestalde.

**BLOG KOMUNITATEA**

Bestalde, urtebete pasatxo da Debagoieneko blog komunitatea abian jarri zenetik: dagoeneko 35 blog pertsonal eta beste hainbat komertzial dira blogen atarian. "Blogen *boom*-ari esker euskara inoiz baino gehiago ikusten da sarean. Denetariko blogak daude, aukera oso zabala dago. Hori, gaur egun, euskaraz ere egin daiteke. Dendariek, berriz, Interneten egoteko modu erraz eta merkea bilatzen dute eta blog komertzialek ematen diete aukera. Erraza da kudeatzea eta informatikaz ezer jakin gabe nork bere negozioaren berri eman dezake Interneten. Bezeroarekin komunikatzeko ere balio du. Garrantzi handiagoa eman nahi diegu blogei, eta euren esparru propioa izan dezatela".






MU

## MUren autobusa, Gipuzkoan barrena

Mondragon Unibertsitateak kanpaina informatiboa egingo du apirilaren 8ra arte, argazkian ikusten den autobus ibiltariarekin. Araban eta Nafarroan egon ondoren, egunotan Gipuzkoan zehar dabil autobusa, ikasleei, irakasleei eta tutoreei MUren eskaintza azaltzeko asmoz. Bihar, zapatua, Donostian izango da eta hurrengo astean Zarautzen (astelehenean), Azkoitian eta Azpeitian (martitzenean), Ordizian eta Beasainen (eguaztenean), Eibarren (egunean) eta Zumarragan (egubakoitzean). Bada, autobus ibiltariaren gaineko informazio zabalagoa *www.mondragon.edu* webgunean duzue.

berriak

> PROGRAMAZIOA

### Ezkontza azokan egingo den desfilea grabatuko du GOITBk

Domekan ezkontza azoka egingo da Eskoriatzako Mendigoia hotelean. Ibarreko dendari askok esku hartuko du azokan eta domeka eguerdian desfilea egingo dute. Besteak beste, Mujika jantzi dendakoek erakutsiko dituzte mutilen traje dotoreak.

Goiena Telebistak asmoa du desfilea grabatzeko eta datozen egunetan eskaintzeko. Guztira 20 dendari izango dira ezkontza azokan.

> PROGRAMAZIOA

### Saio berezien egutegia prestatzen ari da GOITB

Urte hasiera ezkero zenbait saio berezi egin ditu Goiena Telebistak; besteak beste, Aretxabaletako Aratusteen gainekoa. Datozen hilabeteotan ere beste zenbait saio egingo ditu Debagoieneko telebistak, eta horretarako egutegia zehazten ari da egunotan.

Kirol eta kultura arloetako saioak izango dira, baita herriko jaien gainekoak ere. Ekainean eta maiatzean grabatuko dituzte gehienak.

> ARRASATE IRRATIA

### Udaberriko disko berrien aurkezpena musikaren geltokian

Udaberria heldu ahala, disko uzta jasotzen dugu. Lan berriak entzun eta aztertu ondoren, aurkeztu egiten dizkigu Gaizka Vitoria teknikariak. Astean, jazz-blues doinuekin etorri zaigu, Four Friends eta 3000 Hombres taldeen azken lanak eskuetan hartuta. Asteburuan errepikatu egingo dugu.

Datorren astean, berriz, ibarreko hainbat talderen lan berriekin etorriko zaigu.

> SARIAK

### 'Afrika' ikuskizunerako sarrerak eskuragai

Udaberrriko II. Musikaldiaren egitarauaren barruan, apirilaren 8an, Lausardi Koru Sinfonikoak eta perkusio taldeak *Afrika* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian.

Ibarreko artisten eskutik, bada, kultura afroamerikarretik bidaiatzeko aukera paregabea izango dugu. Gustuko aukera baduzu eta gure kontura joan gura izanez gero, *Igo Autobusera!* eta eskuratu sarrerak.

**'16 MM'** > EGUAZTENA, 22:15

# Iñigo Iruretagoiena andoaindarraren 'Mezularia'

Oraingo asteburuan, Orion grabatutako 'Mezularia' film laburra ikusteko aukera izango da

**GOIENKARIA** > BERGARA

Iñigo Iruretagoiena zinemagile andoaindarraren *Mezularia* film laburra eskainiko du oraingo astean *16 mm* saioak. 28 urte ditu Iruretagoienak eta administrazioan egiten du lan. Amagoia Lasagabaster eta Josu Txintxurretak elkarrizketa egin diote zinema zuzendariari eta filmaren gaineko zenbait argibide eskainiko dizkie Goiena Telebistako ikus-entzuleei.

*Mezularia* amodiozko istorioa da, Orion grabatutakoa. Ezinezkoa den erlazio batean oinarritutako film laburra da Iruretagoienarena.



**'MEZULARIA'** Iruretagoienaren film laburra ikusgai. GOIENKARIA

**'SU-ETENA; ITXAROPEN GARAIA'** SAIO BEREZIA> ZAPATUA ETA DOMEKA, 15:45 ETA 17:15

## Gatazka politiko eta armatuaren ondorioak bizi izandakoen testigantzak

**GOIENKARIA** > BERGARA

Goiena Telebistako albistegietako taldeak eginiko saio berezia ikusteko aukera izango da oraingo asteburuan GOITBn. *Su-etena; itxaropen garaia* izenburupean sei debagoiendarren testigantzak entzuteko eta ikusteko aukera eskainiko digu GOITBk.

Protagonista guztiek gatazka politikoaren eta borroka armatuaren ondorioak bizi izan dituzte zuzenean. PPko Arrasateko zinegotzi Itziar Lamarain, Sabin Usandizaga preso oñatiarraren ama eta arreba, ETAk orain 26 urte hildako Bergarako ehorzlearen seme Luisi Dominguez Zurututza, Guardia Zibilak Kanpanzarren hildako Iñaki Etxaberen seme Aitor eta Confebask-eko buru Miguel Lazpiur enpresaburu bergararra. Haien testigantzak jaso dituzte Goiena Telebistako albistegietako taldekoek eta 35 minutuko saio berezian eskainiko dituzte oraingo asteburuan. Zapatuan 15:45ean eta 21:45ean eta domekan 17:15ean eta 22:00etan.

telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

## Non zinen?

Hemendik hogei urtera etorriko dira hedabideetakoak su-etena iragarritakoan non eta zertan ginen, zer pentsatu genuen galdezka. Buruko disko gogorrean gordea izango dut bazkalorduan jaso nuela berria. Gero, autoan, Euskadi Irratian entzun nituela zehaztasun guztiak. Harritu ninduela, Aznarrek esango lukeen bezala, "nazio askapenerako mugimenduaren" bozeramailea emakumezkoa izatea. Baina, bereziki, gogoan izango ditut irudiak, ETB-1en eskutik ikusitakoak. Mahaia, hiru ikurrinak, harmarria, hiru *kaputxa* zuridunak eta irratiz entzun nuen ahots berberak "iraunkorra" zelan esaten zuen Akorduan edukiko dut ere GoiTBk programazio arrunta leherrarazi eta beste askok baino malgutasun handiagoz programa berezia aireratu zuela.

Akaso, bestalde, ahaztuta edukiko dut zein eskas kudeatu zuen ETBk halako *primizia*, nola ibili ziren Antena 3 eta Telecinco Ibarretxeren prentsaurrekoaren gazteleraz-ko bertsioaren zain, betelanean, kazetari euskaldunik ez zutelako. Gaurkoak urruti ikusiko ditugu orduan.

arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Miren Arizmendiarrieta, On Jose Mariaren iloba; Gaizka Vitoria, udaberriko diskoen aurkezpena; *Mingaina dantzan* geltokian Unai Iparragirre; lorategiaren geltokian landare berezien azoka...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 31**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albisteak **17:00** Berbaire **17:30** Eltze beroa **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. **18:15** Teknopolis. **18:45** Albisteak. **19:00** Klipak. **19:15** Jazz mintegia. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Albisteak **21:15** Behazulo **21:45** Berriak **22:15** Ilunpean: Abraham Olano **22:45** Albisteak **23:15** 16 mm: Koldo Almandozen 'Amuak' **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.

**Zapatua, 1**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak bilduma **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa **12:15** 16 mm **12:45** Jaun ta jabe **13:45** Didjeridu. **14:15** Klip@. Musika taldeen bideoklipak **14:45** Jazz mintegia **15:15** MKT. **15:45** Saio berezia. Su-etena; Itxaropen garaia **16:30** Didjeridu **17:00** 16 mm: Koldo Almandozen 'Amuak' **17:30** Marrazki bizidunen bilduma **19:15** Eltze beroa. **19:30** 16 mm. **20:00** Behazulo **20:30** Zera dio eta Motzean **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Saio berezia: Su-etena; itxaropen garaia. **22:15** Elkartasun bideak. **22:45** 16 mm. **23:15** Erreportajea: Gaizka Sarasua eta Jon Irazoki **23:45** Emisio amaiera.

**Domeka, 2**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Klip bilduma. **11:30** Iparrorratza. Kanada. **12:00** Didjeridu. **12:30** Eltze beroa. **12:45** Erreportajea. **13:15** Munduari bueltaka: Salomonen frogak. **13:45** Klip@. **14:15** Marrazki bizidunak. **15:15** MKT. **15:45** Ilunpean **16:15** Behazulo. **16:45** 16mm. **17:15** Saio berezia. Su-etena; itxaropen garaia **18:00** Marrazki bizidunak **19:15** Iparrorratza **19:45** Behazulo. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean **21:00** Didjeridu. **21:30** 16 mm. **22:00** Saio berezia. Su-etena; itxaropen garaia. **22:30** Didjeridu. **22:30** Teknopolis: erreportaje saioa. **23:00** Emisio Amaiera.

**Astelehena, 3**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo. **14:15** Eltze beroa. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Munduari bueltaka:Salomon frogak. **15:30** M1. Eguraldia eta burtsa tartea. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ilunpean. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Didjeridu. **17:30** Motzean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire. **18:15** Sustraia. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** 16 mm. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Harmailatik **21:45** Berriak. **22:15** Harmailatik. **22:45** Albisteak. **23:15** Jazz zikloa. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 4**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz mintegia: **14:15** Zera dio. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Harmailatik. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albisteak. **17:00** Jazz. **17:30** Danbaka. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea: Antzuzelai harrobia. **18:15** Munduari bueltaka **18:45** Albisteak **19:00** Klipak. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Ilunpean. **21:45** Berriak. **22:15** Berbaire. **22:45** Albisteak. **23:15** Behazulo. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 5**
**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire **14:15** Musika saioa **14:30** M1 **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:30** M1 **15:35** Sendabelarrak **15:45** Gaurkoak **15:47** Behazulo **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire. **17:30** Zera dio eta Motzean: Abraham Olano eta Igor Elortza. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 16 mm **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Berriak. **22:15** 16 mm: Iñgio Iruretagoienaren 'mezularia' **22:45** Albisteak **23:15** Erreportajea **23:45** Berriak. **00:15** Amaiera.

**Eguena, 6**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea. **14:15** Motzean. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Jaun ta Jabe. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Jazz mintegia.Elgetako gauak **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** 16 mm. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:15** Iparrorratza: Kanada. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Erreportajea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** sustraia. **21:45** Berriak. **22:15** Didjeridu. **22:45** Albisteak. **23:00** Berbaire. **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-alde.com

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Eguzkitza

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

**Berezitasunak**
- Behi txuleta
- Bakailaua

**Martitzenetan itxita**






## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

**Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



## Tartufo

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

**Eskaintza**
- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

**Berezitasunak**
- Arrainetan aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

**Egunero zabalik 5:30etatik aurrera**



## Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak




## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**

# Martxoak 31-Apirilak 7

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Gary Lourisen kontzertua



 OÑATI

**> The Jayhawks taldeko Gary Louris eta Kraig Jarret Johnson, zuzenean**

The Jayhawks taldeko Gary Louris kantari, musikagile eta gitarra-joleak bere ibilbideko abesti onenak eskainiko ditu bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean. Kraig Jarret Johnson taldekide izandakoa edukiko du lagun.

## Yera Sanchezen film laburra



ARETXABALETA

**> Sexmetraia lehiaketako filmak, tartean Yera Sanchez gaztearena**

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak iaz antolatutako Sexmetraia lehiaketara aurkeztu ziren 12 filmak emango dituzte gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 21:30ean. Yera Sanchez aretxabaletarraren *Marra urdinen bitartez...* da tartean.

## Txistularien kontzertua



ARRASATE

**> Arrasate Musikaleko txistulariek Aste Santu aurreko kontzertua egingo dute**

Arrasate Musikaleko txistulariek kontzertu berezia egingo dute bihar, zapatua, musika eskolan, 12:00etan. Euskal musika joko dute, batik bat. Ikasleek eta eskolako txistulari bandak hartuko dute parte.

## Antzerkia

BERGARA

**> 'Todos nacemos vascos' antzezlana egingo dute**

*Todos nacemos vascos* delako antzezlana egingo du Glu Glu taldeak gaur, egubakoitza. Oraindik badaude sarrerak: prezio orokorra 15 euro da, eta 26 urtetik beherakoendako, 12 euro.

Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 22:00etan.

OÑATI

**> Oihulari Klown antzerki taldeak ipuinak kontatuko ditu**

Oihulari Klown taldeak umeendako ipuin kontaketa egingo du. Errekalde Herri Eskolak antolatu du herriko ume guztiendako, Agenda 21 egitasmoarekin lotuta.

Bihar, zapatua, Errekalde Herri Eskolan, 17:00etan.

ESKORIATZA

**> Cadizko idazle batek helduendako ipuinak kontatuko ditu**

Pepe Maestro idazle cadiztarrak helduendako ipuin kontaketa egingo du, gazteleniaz. Sarrera doan da.

Gaur, egubakoitza, unibertsitateko areto nagusian, 22:30ean.

OÑATI

**> Erretiratuek 'Estoy harta' antzezlana egingo dute**

Ikusi Makusi taldeak *Estoy harta* antzezlana egingo du Zumarragako erretiratuei eskainitako aste kulturalaren barnean.

Gaur, egubakoitza, Pake-Leku egoitzan.

ARRASATE

**> 'El florido pensil' antzezlana egingo dute Amaia antzokian**

*El florido pensil* antzezlana egingo du Ttanttaka Teatroa taldeak. Frankismo garaiko Espainiako ikasgela baten girotuta dago, eta, umore giroan, orduko irakaskuntza gogoratzen dute.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE

**> 'Asto bat hipodromoan' ipuina kontatuko du Gorringo taldeak**

Bernardo Atxaga idazlearen *Asto bat hipodromoan* ipuina kontatuko du Gorringo taldeak. Ipuin horren hirugarren antzezpena da. 6 urtetik gorakoendako da.

Hilaren 6an, eguena, Monterrongo haur liburutegian, 18:00etan.

## Erakusketak

ARETXABALETA

**> Euskal Herriko emakumeek egindako ekarpenaren gainean**

Euskal Herriko emakumeek gure gizartean historian zehar egindako ekarpenaren gaineko erakusketa antolatu du Euskal Herriak Bere Eskola erakundeak.

Apirilaren 3tik 7ra bitartean, udaletxe zaharrean.

ARRASATE

**> XXI. mendeko euskal idazle gazteen gaineko erakusketa**

XXI. mendeko euskal idazle gazteen inguruko erakusketa antolatu dute. Monterrongo liburutegian egongo da zabalik.

Apirilaren 3tik maiatzaren 5era bitartean.

ARRASATE

**> Gurutze-bidearen inguruko margolanen erakusketa**

Gurutze-bidearen inguruko margolanak erakutsiko dituzte apirilaren 1etik 12ra bitartean Harresi aretoan.

Ordutegia: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00.

## Musika

ARRASATE

**> Haizea organo eta tronpeta taldearen emanaldia**

Haizea taldeak organo eta tronpeta musika emanaldia egingo du. II. Udaberriko Musikaldiaren egitarauaren barnean dago emanaldia.

Gaur, egubakoitza, San Joan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan.

ELGETA

**> Arima Beltza eta Keu taldeek kontzertua egingo dute**

Arima Beltza eta Keu taldeen kontzertua izango da Espaloia antzokian.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

BERGARA

**> Apirilean Musika programaren barneko kontzertuak**

Bergarako Musika Eskolak kontzertuak antolatu ditu apirilerako eta maiatzerako. Lehenengo kontzertua kantuko ikasleek egingo dute. Euskal Herriko abestiak, klasiko batzuk eta beste kantu ezagun batzuk eskainiko dituzte.

Bihar, zapatua, Sierbetako elizan, 19:00etan.

BERGARA

**> Los Orishas taldearen omenezko kubatar jaia egingo dute**

Los Orishas taldearen omenez, kubatar jaialdia egongo da. Kubako musika eta dantzak izango dira, talde baten eskutik.

Bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 23:00etan.

ARRASATE

**> Debagoieneko eskola arteko abesbatzen 19. topaketak**

Honako abesbatzek parte hartuko dute: Arizmendi ikastola, Mesedeetako Andra Mari, Elkar Hezi, San Martin Herri Eskola, Txantxiku Ikastola eta Gasteizko Olabide Ikastolak. Batutako dirua Saharari laguntzeko izango da.

Bihar, zapatua, Uarkape pilotalekuan, 17:00etan.

OÑATI

**> Ganbarako kantu tailerraren lehenengo kontzertua**

Ganbarako kantu tailerrak estreinaldi kontzertua egingo du. 25 umek abestuko dute lehenengo aldiz. Kantu tailerrekoek, Ganbara Txikitxoak taldeak eta Ganbara Txikik banaka abestuko dute lehenengo; bukatzeko, hirurek batera kantatuko dute.

Bihar, zapatua, Santa Anan, 19:30ean. Sarrerak kultura etxean, 3 eurotan.

ARRASATE

**> Conductus Ensemble taldearen musika emanaldia**

Conductus Ensemble taldearen kontzertua antolatu dute II. Udaberriko Musikaldiaren barnean.

Bihar, zapatua, San Joan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan.

ARRASATE

**> Noizean Behin eta Ehiztari, gaztetxearen 15. urteurrenean**

Noizean Behin eta Ehiztari taldeek kontzertua egingo dute. Gaztetxeak 15 urte ditu aurten, eta hori ospatzeko ekintzetako bat da. Hil osoan, bideo emanaldiak, kontzertuak eta Gazte Martxa egongo dira.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

**> In Flames, Sepultura eta Dagoba taldeen kontzertua**

In Flames taldeak *Come clarity* diskoa aurkeztuko du; Sepulturak metal, hardcore, trash, punk eta tribal estiloen uztarketa egingo du. Dagoba taldeak ere joko du.

Eguenean, hilak 6, Jamen, 19:00etan.

PROPOSAMENA

ELGETA

### > Gari Garaialdek surfaren inguruko argazki erakusketa du

Gari Garaialde argazkilari hondarribiarrak *Ametsak besarkatuz* delako argazki bilduma ipini du Elgetako Espaloia antzokian. Izenburu horrekin, surfaren gaineko 16 argazki batu ditu. Irudian, argazki bateko xehetasun bat.

Surfaz ezohiko ikuspuntua proposatzen da; izan ere, argazkiak neguan ateratakoak dira, eta zuribeltzezkoak. Egilearen esanetan, horrela "beste era batera" nabaritzen da surfa.

Elgetako Espaloia antzokian dago erakusketa apirilaren 4ra arte.



## nire aukera



Araceli Telletxea
Musika eskolako zuzendaria
Eskoriatza

### "Idaztea gustuko dut, baina ez dut astirik"

Eguraldi ona hasi denez, seme-alabekin egun osoko irteerak egiten ditugu. Batik bat, umeek ondo pasa dezaten nahi izaten dugu. Zaila da denon gustua egitea, baina leku berriak ezagutzea asko gustatzen zaigu.

Euskal Herrian hainbat irteera egin ditugu, artea, animaliak, natura… ezagutzeko. Bi aipatuko nituzke: bat Omako Haranera, eta bestea Pozalaguara, biak Bizkaian.

Zapatuan berandu itzultzen gara, eta domekan Urkulun edo herrian, Arrasaten, paseatzen dugu.

**Arrasaten bizi zara. Herriko zein txoko gustatzen zaizu?**
Monterron asko gustatzen zait.

**Zein zaletasun egingo zenuke astia izanez gero?**
Idaztea. Asko gustatzen zait idaztea, eta denetarik idazten dut, batez ere eguneroko gauzen gainean, baina ez dut astirik. Irakurtzea ere gustuko dut.

**Zein musika entzuten duzu egunotan?**
*Operako mamua* entzuten nabil, muntaia bat prestatzen ari garelako. Baina denetariko musika gustatzen zait: Nafarroako jotetatik heavyra edo musika klasikora.

**Eta film musikal bat gomendatzekotan, zein?**
*Los chicos del coro* oso ona iruditu zitzaidan.

**Aste Santurako planik badaukazue?**
Bai. Zamoran etxea daukagu, eta hara joango gara. Baina handik bertatik irteera luzeagoak egingo ditugu.

# Zinema

**ANTZUOLA**
**OLARAN ETXEA**

**Alex & Alexis**
Domeka: 16:30.

**ARAMAIO**
**KULTURA ETXEA**

**La novia cadáver**
Egubakoitza: 22:00.

**ARRASATE**
**AMAIA ANTZOKIA**

**Memorias de una geisha**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Mixina**
Zapatua: 17:00.

**Sophie Scholl**
Eguena: 20:30.

**ELGETA**
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**The wall**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Memorias de una geisha**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Bibi, la pequeña bruja**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**Euskal film laburrak**
Eguena: 20:00.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**Ice age 2**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

**Instinto básico 2**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**La dama boba**
20:00, 22:30.

**Lifting de corazón**
17:30, 20:00, 22:30.

**La pantera rosa**
17:30.

**Date movie**
17:00.

**Ice age 2**
17:30, 20:00, 22:30.

**La última señal**
17:30, 20:00, 22:30.

**Instinto básico 2**
17:00, 19:45, 22:30.

**Crash**
Egubakoitza: 19:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

**Syriana**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Tsotsi**
17:00, 19:45, 22:30.

**El arco**
17:30, 20:00, 22:30.

**Volver**
17:30, 20:00, 22:30.

**Los aires difíciles**
17:30, 22:30.

**Azul oscuro, casi negro**
17:00, 19:45, 22:30.

**The hidden blade**
20:00.

**La verdad oculta**
17:30, 22:30.

**Los productores**
20:00.

**Agua**
17:00, 19:45, 22:30.

**ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

**Mrs. Henderson presenta**
20:00, 22:00, 00:30.

**Thai dragon**
16:00, 18:00, 20:00.

**Gisaku**
16:00, 18:00.

**Ice age 2**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**La última señal**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Hostel**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**La pantera rosa**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Apostando al límite**
22:00, 00:30.

**Melissa P.**
16:00, 18:00, 20:00.

**Memorias de una geisha**
16:00, 19:00, 23:00.

**Munich**
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 23:00.
Domeka: 18:45, 22:00.

**En la cuerda floja**
22:00, 00:30.

**Brokeback mountain**
16:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Date movie**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Firewall**
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**Hostel**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**La pantera rosa**
12:15, 16:05, 18:05.

**Ice age 2**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Brokeback mountain**
20:05, 22:25, 00:45.

**Instinto básico 2**
12:15, 15:40, 17:50, 20:00, 22.15, 00:30.

**Memorias de una geisha**
19:00, 21:45, 00:30.

**Crash**
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Volver**
12:15, 15:30, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

**Tristán e Isolda**
20:10, 22:25, 00:50.

**Zathura**
12:15, 16:30, 18:30.

**El nuevo mundo**
20:45, 23:45.

**Bambi 2**
12:15, 17:00.

**Sky high**
12:15, 16:10, 18:10.

**Destino final 3**
18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**Los aires difíciles**
Egubakoitza: 15:55, 18:00, 20:05, 22:10, 00:15.
Zapatua: 15:55, 22:10, 00:15.
Domeka: 12:15, 15:55, 22:10.

**Orgullo y prejuicio**
12:15, 16:40.

**Syriana**
19:55, 22:20, 00:45.

**El castillo ambulante**
12:15, 15:30, 17:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**La pantera rosa**
12:10, 16:15, 18:15, 20:15.

**Bambi 2**
12:15, 17:05.

**Buenas noches y buena suerte**
22:20, 00:30.

**Volver**
12:00, 17:00, 19:40, 22:10, 00:45.

**Syriana**
19:30, 22:05, 00:45.

**Ice age 2**
12:15, 16:20, 18:15, 20:10, 22:10, 00:30.

**Sky high**
12:15, 16:10, 18:10.

**Instinto básico 2**
12:15, 17:00, 19:45, 22:15, 00:45.

**Date movie**
12:10, 16:30, 18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

**Crash**
20:10, 22:25, 00:45.

**Firewall**
12:15, 16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Destino final 3**
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**Tristán e Isolda**
20:10, 22:30, 01:00.

**Lifting de corazón**
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**La verdad oculta**
12:10, 16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:45.

**Zathura**
12:00, 16:00, 18:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**La novia cadáver** ****
AEB-Erresuma Batua, 2005.
Zuzendariak: Mike Johnson, Tim Burton.
76 min. Animaziozkoa.
XIX. mendea da. *Victor* gaztea infernura eramaten dute, eta han, *Emaztegai Hilotza*-rekin ezkontzen da. Bitartean, bere benetako emaztegaia, *Victoria*, zain dauka bizidunen munduan.

**Memorias de una geisha** **
AEB, 2005. Zuzendaria: Rob Marshall. Aktoreak: Zhang Ziyi, Ken Watanabe, Michelle Yeoh.
145 min. Drama.
II. Mundu Gerraren atarian, neskatxa japoniar bat, urteekin, *Sayuri* geisha famatua izango da. Gizon guztiak konkistatzen ditu, berak maite duen bakarra izan ezik...

**Volver** ****
Espainia, 2006. Zuzendaria: Pedro Almodovar. Aktoreak: Penelope Cruz, Carmen Maura, Lola Dueñas.
110 min. Komedia dramatikoa.
*Raimunda* (Cruz) Madrilen bizi da, eta jaioterrira bueltatu beharko du izeba hil zaiola jakitean. Han, ezuste bat du zain: konturatuko da ama (Maura) heriotzatik itzuli zela izeba zaintzeko, eta haren mamua berarekin bueltan joango dela Madrilera.

**Sophie Scholl**
Alemania, 2005. Zuzendaria: Marc Rothemund. Aktoreak: Julia Jentsch, Fabian Hinrichs.
117 min. Drama.
Munich, 1943. Hitler Europa suntsitzen ari dela, unibertsitateko ikasle batzuek Arrosa Zuria erresistentzia mugimendua sortzen dute. *Sophie Scholl* da taldeko emakume bakarra. Halako baten, atxilotu egingo dute.

**Hostel**
AEB, 2005. Zuzendaria: Eli Roth. Aktoreak: Jay Hernandez, Derek Richardson, Eythor Gudjonsson.
95 min. Beldurrezkoa.
AEBetako bi mutil eta bidean topatzen duten lagun islandiar bat Europan zehar bidaiatzen ari dira. Eslovakiako herrixka batera joatea erabakitzen dute, hango neskak oso ederrak direla jakitean. Baina egoera beldurgarria aurkituko dute han.

**The wall**
Erresuma Batua, 1982. Zuzendaria: Alan Parker. Aktoreak: Bob Geldof, Christine Hargreaves.
95 min. Musikala, drama.
*Pink* (Geldof) rock musikariaren bakardadea eta eromen gero eta sakonagoa kontatzen dira, Pink Floyd taldearen *The Wall* diskoa oinarritzat hartuta.

**Tsotsi**
Erresuma Batua-Hego Afrika, 2005. Zuzendaria: Gavin Hood. Aktoreak: Presley Chweneyagae, Terry Pheto.
94 min. Drama.
*Tsotsi* (Chweneyagae) Johannesburgoko kaleetan bizi den gaizkile gaztea da. Egun baten, emakume baten autoa lapurtzen du, eta gero konturatzen da ume jaioberri bat dagoela barruan...

**Firewall**
AEB, 2006. Zuzendaria: Richard Loncraine. Aktoreak: Harrison Ford, Paul Bettany, Virginia Madsen.
105 min. Thrillerra, akziozkoa.
*Jack Stanfield* (Ford) informatika-segurtasunean aditua da eta banketxe bateko datuak babesten ditu. Halako baten, *Bill Cox* (Bettany) lapurrak *Stanfield*-en familia bahituko du, aditua bere planetan inplikatzeko.

**The hidden blade**
Japonia, 2004. Zuzendaria: Yoji Yamada. Aktoreak: Masatoshi Nagase, Takako Matsu.
132 min. Drama.
XX. mendean, feudalismoa bukatzen ari dela iragartzen duten aire berriak iristen dira Unasakako feudora. Bizimodu hori izan duten bi lagun euretako baten familiarekin bizi izatera joango dira. Euretako bat eta lagunaren arrebaren artean maitasuna jaioko da.

**Los productores**
AEB, 2005, Zuzendaria: Susan Stroman. Aktoreak: Nathan Lane, Matthew Broderick, Uma Thurman.
134 min. Komedia, musikala.
Broadway, 1959. *Max Bialystock* (Lane) ekoizlea eta *Leo Bloom* (Broderick) kontu-hartzailea konturatu dira irabazi handiagoak izango dituztela porrot egingo duen antzezlan bat ekoizten. Plan bat asmatzen dute orduan: lana ekoiztu eta diruarekin hanka egin.



## Mrs. Henderson presenta ***

**Zuzendaria:** Stephen Frears.
**Aktoreak:** Judi Dench, Bob Hoskins.
Erresuma Batua, 2005.
102 min. Komedia dramatikoa.

*Henderson andrea*, alargun geratu eta gero, antzerki munduan sartuko den emakumea da. Antzerki gela bat erosiko du, eta hantxe oso famatua egingo den errebista musikala antzeztuko da. Beste antzerki gelek honen kopia egingo dutenez, *Henderson andrea*-k, zentsurarekin borroka ugari izan ondoren, bere ikuskizunetarako ikusleen arreta lortu nahian, neskak biluzik aterako ditu. Antzerki gelak ospe handia lortuko du eta II. Mundu Gerran, naziek Londres bonbardatzen duten garaian, zabalik iraungo duen antzerki gela bakarra da.

Filmak *Henderson andrea*-ren adorea, ikuskizunetan zuzendariarekin sortzen diren gatazkak eta konplizitate harremanak eta ikuskizun munduaren magia erakusten ditu. Azaltzen den guztia errealitatean oinarrituta izan arren, Stephen Frears-ek istorioa ametsen eta oroimenen kutsu magiko eta nostalgikoaz bustitzen du: oso ondo islatzen du antzerki konpainian sortzen diren harremanak eta adiskidantza giroa, politak dira emanaldi musikalak, eta Londresko giropen irrealak (estudioan eginiko filma da) irudiei xarma berezi bat ematen die. Zuzendariak pertsonaiak eta istorioa gogoko ditu, eta sentimendu horiek ikusleari helarazten dizkio.

*Mrs. Henderson presenta* film atsegina da, eta, momentu batzuetan topikoetan erortzeko arriskua badu ere , aktore guztien lan bikainak –Judy Denchen interpretazioa zoragarria da– sakontasuna ematen die pertsonaiei eta epeltasuna istorioari.

**Antonio Zabala**



Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
132 posta-kutxa, Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2006-03-31

# Konbertsio baten historia

**GERTUKO ANAIA** Anselmo Arrieta abade bergararrak Demetrio anaiaren gaineko liburutxoa idatzi du

**IBILBIDE LUZEA** Errenterian eta Ekuadorren egon da abade Anselmo, eta Eibarren bizi da orain

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Anselmo Arrieta abadeak (Bergara, 1928) *Los santos me han convertido* liburutxoa idatzi berri du. Zazpi anai-arreba ziren familian, eta Demetrio anaiaren (1926-2004) gaineko liburua da Anselmorena: "Oso gertukoak ginen, adinean eta erlijio kontuetan ere bai, eta konbertsio baten istorioa da jaso dudana. Izan ere, Demetriok Frantziara alde egin zuen 1948an, hemengo egoera politikotik ihesi. 1964. urtera arte Elizatik nahiko urrun egon zen. Hala ere, handik aurrera Elizara hurbiltzen jardun zuen".

Anselmoren arabera, 1964an zerbait garrantzitsua gertatu zitzaion anaiari: "Anaia zaharrenari gutun bat idatzi zion orduan, azkenean bidali ez ziona, baina gutxi gorabehera bizitza honetatik joan nahi zuela eta bere buruaz beste egingo zuela esaten zuen. Emazteari ere halakoak esaten zizkion. Eta Jainkoari bera zigortzeko baina emaztea eta alaba ez sufriarazteko eskatzen zion. Aditzen genion bakarrak alaba eta biok ginela esaten zidan. Momentu hartan, bere barruko borrokari egin zion aurre eta unibertsoarekin eta bere buruarekin bakea lortzeko gauza izan zen. Denbora luzez sufritu ondoren, sekulako indarra eman zion horrek". Normandian bizi izan zen Demetrio. Ivetterekin ezkonduta, bi alaba izan zituzten, Liliane eta Isabel. 18 urteko aldearekin jaio ziren; lanerako ezintasunagatik bigarrenarekin, Isabelekin, ia-ia amarena egin zuen Demetriok eta bere bizitzako urterik onenak izan zirela esaten omen zuen. Hala jaso du Anselmok bere liburuan.

**PROMESA BETE**

Isabel izan da liburuaren zirriborroa irakurri duen lehenetakoa. Familia eta lagunen artean liburutxoa banatzen ari da egunotan Anselmo, baina abenduan Isabelen ezkontzan izan zen, Dakarren, eta kopia bat eraman zion. Liburua idaztean bere buruari egindako promesa bete duela dio. Idazteko zaletasuna du eta 60 bat koaderno idatzita dauzka. Handik berreskuratu ditu Demetrioren oroitzapenak.

Erretiratua egon arren, oraindik meza esaten du Anselmok Eibarren. 1953an Bergaran, San Pedron, lehen meza esan zuenetik, Angiozarren, Errenterian eta Ekuadorren (20 urtez) jardun du abade. Eibarko San Andres parrokian bizi da gaur egun, hango parroko Xabier Zubizarreta aretxabaletarrarekin batera.



**BERGARAN** Anselmo Arrieta bere jaiotetxea atzean duela, Barrenkale 34an. E.M.

## ahobero

**"Entzutegi Nazionalean, 'Errepidea ez da bidea', 'Bakea Euskal Herrian' edo 'Arnaldo Herria zurekin' kontsignen aldean bestelakoak oihukatu zituzten ultra eskuindarrek"**

**El Semanal Digital**

Ba ez, batzuetan errepidea ez da bidea, gurean behintzat. Egoera politikoan ere auto pilaketa konpontzea da bidea.

## iturri onetik

**Nazioarteko Txotxongiloen Mostra ekainaren erdialdean ospatuko da Bergaran**

Bergarako Nazioarteko Txotxongiloen Mostra ekainaren erdialdean ospatuko da aurten. Hasieran, maiatzaren azken asteburuan egitekoa zen, baina Mundumira jaialdia dela eta, atzeratu egin dute. Bestalde, antzoki egokien hutsunea ere nabaria da Mostraren VIII. ekitaldira begira. Novedades zinema aretoa eta Zabalotegi itxita, ikuskizunetarako aukera berriak aztertzen dihardute.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Bidean dago koska

E*tenaldi iraunkorra* izan zen irteera ofiziala, eta dagoeneko abiatu gara bidean. Denak goaz Itakara, ametsak bizi diren irlara. Arazo bat: bakoitzaren Itaka toki ezberdinean dago; batzuena, auskaloren erreinuan.

ETAk nahi du euskaldunok erabakitzen duguna errespetatua izan dadila, eta hor kokatu du giltzarria. Zapaterok, bere aldetik, erakutsi du nola errespetatzen duen katalanek erabakitakoa, eta legedian jartzen du muga. Bere horretan, ez dirudi *ibilbide orri* oso garbia.

Baina bidean dago koska. Joan goazela, ikasten badugu bestearena entzuten, eztabaidak burutzen, erabakiak adosten, gehiengoa errespetatzen eta gutxiengoa erakartzen… Bidaiak erakusten badigu elkarrekin ibiltzen, orduan Itaka guztiak izango ditugu eskura.

## ai, ene!




**Telefono kabinen itxurako poltsikokoak**

Telefono kabinak gero eta gutxiago erabiltzeare erruduna dira, neurri handi batean, poltsikokoak. Kabinak poltsikoan orain...

http://elfURL.com/195qiak

LORAMENDI INTERSPORT®
%50 arte
Apirilak 1etik 8ra
SKI-SNOW ASTEA
KONPONKETA 15 €